Sorreran Bizkaiak interes handia agertu zuen orduko industriaren garapenak trenbidea eskatzen baitzuen. Santa Ana de Bolueta-ko labe garaiak 1843an inauguratu ziren. Hasi eran Burgostik Donostia bidean Bilbotik pasatzea pentsatu bazuten ere, azkenean Madril, Valladolid, Burgos, Miranda de Ebro, Gasteiz, Altsasu, Beasain, Donostia eta Irun lotzen zituena eraiki zuten; 633 kilometro luzean guztira, Espainiako hiriburua eta Frantzia lotuta utzirik. Garai hartako obra erraldoia izan zen, gerora garraio mundua erabat aldatuko zuena. Azpiegitura horretan Ormaiztegi zubiak, adibidez, garaiko ingeniariak arloko obra garrantzitsua eta zailtasun tekniko handikoa izan zen.



RENFE-ren trenbide sarea 1941ean. Madril-Irun (1): Norteko trenbidea.

Frantziarekin aipaturiko *lotura* hori *etena* bihurtzen zen Hendaiako mugan. Espainiak erabakitako errail-arteak (bi errailen arteko distantzia) 1668 mm-koa baitzen Madril eta Irun artean. Frantzian, ordea, 1435 mm-koa zen, *nazioartekoa* deiturikoa, oro har, neurri hori zabaltzen baitzen Europan, ingelesek Ingalaterran, Galesen eta Eskozian erabilitakoa. Espainian neurri berezi hori hartu zutenean, inbasioak ekiditeko, egonkortasun hobea lortzeko... zela aipatu bazuten ere, beste arrazoi batzuen artean, ziur ezkutuko interes ekonomikoak eragingo zutelako orduan ere. Portugalek ere, behartuta, neurri hori hartu zuen. Espainia eta Portugal, orain 150 urte bezala gaur egun ere, Europaren azken muturrean daudela garbi dago, maparen kokapenean bezalaxe.

Azken urteotan, ordea, AHTrentzako 1435 mm-koa ezarri da, oro har, hau da nazioartekoa, Frantzian, Europan eta beste kontinenteetan hedatua dagoena. Irun eta Donostia-Astigarraga artean, ordea, oraindik aztertzen ari badira ere, badirudi oraingo trenbidean, 1668 mm-koan, hirugarren errail bat 1435 mm-ra jarrita, behin-behineko irtenbidea emango diotela. Ez da gure ingurune honetako txikizioa murrizteko hartutako erabakia izango, krisi ekonomikoaren eragina baizik. Ez dakit behin-betikorik ezagutuko dugun, azkenean hortik jotzen badute.

Trenbideetan errail-arteko neurri mota asko erabili izan dira, munduan 10 baino gehiago estandar ezagutzen dira (500-600-750-762-914-1000-1067-1435-1520-1524-1600-1668-1676), hauek dira guretzat ezagunenak:




- 1668 mm: Espainia eta Portugal.
- 1435 mm: Nazioartekoa, AHT, Europan eta munduan zehar erabiltzen da.
- 1000 mm: FEVE, Eusko Trenbideak eta Topoa / Donostialdeko metroa.

Euskal Herria zeharkatzen zuen trenbidea 5 zatitan banatuta eraiki zen: Miranda de Ebro-Olazti (74,743 km), 1862ko apirilaren 13an inauguratu zen. Beasain-Donostia (43,402 km), 1863ko irailaren 1ean. Donostia-Irun (16,872 km), 1863ko urriaren 18an. Irun-Hendaia (1,704 km), 1864ko apirilaren 22an. Azkenik, Olazti-Beasain (47,472 km) 1864ko abuztuaren 20an. Kapital frantsesa zuen enpresa batek eraiki zuen, Frantziatik eta Italiatik (Piamonte) langile asko etorri zelarik.

Hemengo geografia bereziak teknika berriak eta pertsona adituak eskatzen zituen tunelak eta lubetak eraikitzerakoan. Lan horietan trebatuak Alpeetan topatu zituzten, izan ere han hamarkada bat lehenago, mendiko trenbide ugari eraiki baitziren. Frantziako kontratistek handik langile asko ekarri zituzten Gipuzkoara: Beasain, Zumarraga, Ormaiztegi, Brinkola... Azpikontrataren bidez, hemengo langileek ere lan egin zuten eraikuntza horretan.

Bertsolaritzan aipamen ugari dago trenbideari buruz. 1931-11-01ean Makazagak argitaratu zuen *Bertsolariyan* Txirrita bertsolariak (1860-1936) Norteko trenbideari jarritako bertsopaperetan ikus dezakegun bezala. Txirrita 71 urte beteak zituen bertsoak argitaratu zirenean, baina umetan, 7 urte zituenean ikusitako kontuak aipatzen ditu bertan. Txirritaren *Norteko Ferrokarrila* oso ezaguna bihurtu zen Xabier Lete abeslariari esker.



NORTEKO TREN-BIDEARI TXIRRITAK JARRIYAK

Zortziko handian, 13 bertsoz osatutako Txirritaren sorta honetatik 6 aukeratu ditut, esanguratsuak baitira:

Garai artako itzai koskorak
ongi zebiltzan lanian,
Gipuzkuan da Bizkai aldi
da Euskalerra daniel
gorputzak bapo gobernatuaz
eranian da janian;
akabo oien jornal-biria
trena etorri zanian.

Aditu zituztenian trenen
txistua eta marruak,
geientxuenak saldu zituzten
iriyak eta karruak,
esanaz: «Orrek jetxiko dizkik
goi oitan diran arduak».
Garai artako aien abarkak
ziran basurde-larruak.

Milla zortzireun irurogei ta
zazpigarrenge urtian,
lenengo trena ikusi nuen
Españiako partian,
bire pixka bat bistan pasa ta
iñoiz sartua lurpian;
perra berriyak erantxi dizte
andikan orañ artian.


Modu orretan jarri zuenak
Norteko ferrokarrilla,
jakinduriya aundiya zuen,
entendimentu abilla;
gizonik eziñ asi liteke
zaldi obiaren billa:
goizian irten Irundik eta
illuntzerako Madrilla.

Linea orrek badauka zenbait
tunel, zubi ta erriyo,
bi birerekiñ ipiñi dute
sekulan baño berriyo,
eletrikako indarra eta
oinbeste guardarrayo;
gau eta egun gelditu gabe
beti zerbaiten karrayo.

Gizon abilla zan eletrika
sortu zuben maisu ori,
piska-piska bat arrek graduak
bajatu zizkan subari;
orañ indarra leku askotan
kendutzen zaio urari,
garai batian merke zan baño
gaur baliyo du ugari.

Garai hartan oso azkarra jotzen zuen Txirritak 633 km-ko distantzia trenez, Irundik goizean irtenda iluntzerako Madrilerara iristea. Ez da harritzekoa, Goizuetan bertso saioa zuenean, Errenteriatik joan-etorria oinez egiten ohituta baitzegoen. Bizpahiru egun guztira, topatzen zituen baserrietako sagardo tragoak barne. Txirritak, batez ere, trenbidearen alde onak eta abantailak goraiatzan ditu bere bertso sailean, baita egileen jakinduria eta abilezia ere.

Beste hainbat bertsoz ere landu zuten gaia. Xenpelarrek (1835-1869) gogor kritikatu zuen Frantziatik eta Italiatik hainbeste langile etorri izana, baita beraien ohiturek hemengo jendearengan izandako eragin kaltegarria ere, ez baitziren bere gustukoak. Besteak beste, asko edatea, elizara ez joatea, alferrak izatea... eta emakumeei buruzkoak leporatuz. Garai hartako hemengo ohiturekin talka egiten nonbait, gauza jakina baita Xenpelar elizkoia izan zela. Beraien hizkuntza ere, frantsesa, ez zitzaion gustatzen. Trenbidea eraikitzen ari ziren garaian, 1859an jarritako bertsoak dira, Xenpelarrek 24 urte zituen eta urte hartako abenduan ezkondu zen, 10 urte geroago hil zelarik. Beranduago argitaratu ziren, ordea.



“BURNI-BIDEAK EGITERA ETORRI ZIRAN FRANTZESARI JARRITAKO BERTSOAK”

Bertso hauek Bilboko *Ibaizabal* aldizkarian agertu ziren, 1902an. Geroago, 1931n Makazagak argitara eman zituen eta Antonio Zavalaren Auspoa sailean jasoak daude. Zortziko txikian, 12 bertsoz osatutako Xenpelarren sorta honetatik 6 aukeratu ditut, nahikoa adierazgarriak baitira:

Frantzes asko ill dala diote
Austrian,
beraz ez da onezkero
frantzesik Frantzian; danak
emen ditugu oraingo aldian,
burnizko bide traste
oien aitzakian.

Frantzes da italiano kasta
oiek nasi,
onera etorri eta
dabiltza nagusi;
pegoiari ederki
lana egin-arazi,
berak pikoarekin beñere ez
asi.

Orain etorri dira kase
danetatik,
bai gizonezko eta
emakumetatik;
ezin bialdurikan oriek
emendik
ibilli bear degula
deizkiot oraindik.

Badira oien artean gizon
onraduak, batzuek
aberatsak, bestiek
bajuak;
baita beste batzuek erale
majuak, garestitu digute
beñepeñ arduak.

Ezagunak dirade guziak
trajeen: lebita ta erlojua
beti gorputzean,
pantaloi lasaiak ta
bizarra okotzean, beñere
etzaie falta pipa bat
ortzean.

Oien lenguaiea
ona da berentzat, munduan
dan txarrena nere ustez
guretzat; isasiko ez degula
sekulan deritzat,
itzik ere entenditzen
ez diot nik beintzat.

«FRANTZESAREN IDEAK...» XENPELARREK JARRITAKO BERTSOAK

Neurri bereziko 13 bertsoz osatutako Xenpelarren sorta honetatik ere 6 aukeratu ditut. Hauek ere Makazagak argitara eman zituen eta Antonio Zavalaren Auspoa sailean jasoak daude. Hemen ere, Xenpelarrek egurrean jarraitzen du frantsesen aurka:

Frantsesaren ideak
beti aldrebes,
gaur lau baldin badira biyar
baterez;
aragiya len eltzian, belar
billa baratxian, kardaberak
jate'itutze dirubak aitzian.

Kantineria gaisua, bestiak
beste,
alperrik bete'itutze amaika
este;
asko dabil pegatzeko,
frantsesari fiyatzeko,
alaban jan diote
gero pagatzeko.

Frantsesak langilliak dirala
ustez, pikatxoian asita
lurrera auspez; gero altxa,
txutik larri, pipa baña lurrez
jarri, egunian ezin ausi
katilhi baña arri.

Goizianjeiki eta frantsesen
lana pikatxoiak artu ta
lanera juanda
segi, segi zeren lanari, egin
arte fuerte ari, aitormena
emango diot portatzen danari.

Oien deboziyua
juduen gisan,
ez dute enredorik
eman elizan;
gogorik ez an sartzeko,
toki txarra mozkortzeko, bildur
dira erori ta
azpiyan artzeko.

Lengo egun batian
zan komeriya:
putzura erorita
ito zan iya;
iru txiki sobre erana, urak
berriz beregana, Antoniok
izandu du ateratzen lana.

Xenpelarrek bere bertso hauetan aipatu ez arren, kanpoko langileek ekarritako gauza onak ere iritsi ziren. Frantziako eta bereziki Italiako Piamonte, Alpeetako eskualdeetatik etorritako jendeak, adibidez, ekarri zuen “soinu txikiak” edo akordeoi diatonikoak sekulako arrakasta lortu zuen hemen, bereziki nekazal munduan, geroztik mantentzen dena. Trikitixa entzutean, musika-tresna hori hain “gurea” sentitzen badugu ere, orain 150 urte iritsi zen Iparraldeko trenbidearekin batera, 1860 inguruan Olaztitik Beasainera zihoan zati hori eraikitzeko kontratatu zituzten langileen eskutik. Ordura arte txistua eta alboka erabiltzen ziren panderoarekin batera.



Donostiako geltokia, zezen plazaren ondoan, 1905ean.



Donostiako geltokia eta Maria Cristina zubia, 1908an.



Irungo geltokia, 1905ean.



Ormaiztegui zubia, 1905ean.

Aipatu gabe ezin utzi, 150 urte pasa ondoren, orduko Norteko Ferrokarrilaren eta egungo Abiadura Handiko Trenaren (AHT) arteko diferentziak, teknologiaren eraginez, nabarmenak baitira abiadura aldetik. Hau 250 km/h arteko abiaduran ibiltzeko diseinaturik baitago. Ez da ulertzen, ordea, orduan Madril-Irun, 633 km-ko trenbidea 8 urteko epean eraiki zutela jakinda, oraingo AHTrekin gertatzen ari dena. Espainiako Estatuak azken 20 urteotan hiriburu batzuk lotu arren trenbide berriarekin, Donostia-Bilbo-Gasteiz (Y) zati hori eraikitzeko, hainbeste urte pasata, oraindik ez dakigu noiz amaituko den. Ez naiz Madrilgo Gobernuaren edo Eusko Jaurlaritzaren erabakiak kritikatzeko ari, bata zein bestea kritikatzeko adina motibo izanda ere, ez baita hori lan honen helburua. Baina, ez da nahikoa urteotako krisi ekonomikoa aitzakiatzat hartzea, hau hasi aurretik urte dexente joan baitira. Azkar ibiltzeko azpiegitura nahi edo behar, gero azpiegitura hori mantso egiteko edo amaitu gabe uzteko. XIX. mendean azkarragoak zirelakoan nago, Iparrak non zegoen bazekiten behintzat, harantz iritsi nahian ekinean saiatuz. Baina, XXI. honetan noraezear goaz, agian iparrorratzaren ardatza herdoildu da, Iparrak galdua baitabilta agintariak.

La danza de los gitanos en las Magdalenas de 1611 no era flamenco

David Martín Sánchez

Si nos dejamos arrastrar por los tópicos, pensamos que los gitanos y las gitanas bailan y cantan flamenco desde la génesis de su historia como Pueblo. Es más, pensamos que todo el Pueblo Gitano en el actual Reino de España, es y ha sido flamenco, nada más lejos de la realidad. Según Felix Grande¹ son los pertenecientes a este Pueblo que residían en Andalucía en el tiempo de

los Austrias los auténticos “flamencos”. Y es que a finales del XVII no pocos gitanos de entre 18 y 40 años se enrolaron a la fuerza en los Tercios de Flandes². Los que regresaban vivos, lo hacían con una cédula en la mano que demostraba sus servicios prestados al Rey, y que en teoría, les permitía andar libres por los reinos³. Decíamos pues, que los que volvían a sus gitanerías andaluzas pasaban



Actuación del grupo Iraultza Dantza Taldea en el barrio de Alzaran (Irun) el año 1993.

1. Para profundizar en el tema, ver: GRANDE, F.: *Memoria del Flamenco*. Plaza & Janes; Barcelona, 2001.

2. También hemos encontrado casos de otras partes de Castilla en las que los gitanos fueron obligados a ir a Flandes, como el caso de Juan de Torres (AGN 029456).

3. La legislación de la época demuestra que estas cédulas poco importaron a las justicias cuando tenían que hacer cumplir con las diferentes pragmáticas sobre gitanos y gitanas, como la de 1695 y posteriores.

a ser conocidos como “gitanos de Flandes”, para posteriormente pasar a llamarse “flamencos” a secas, siendo su cante y baile conocido como “arte flamenco”. Pero en las provincias vascas había gitanos en esa época, aunque muchas veces lo negaran los propios corregidores⁴, que no eran ni mucho menos flamencos.

Aquí entra nuestra villa, la de la Rentería como era conocida entonces, y es que cuando uno está investigando sobre un tema para una tesis, trilla toda la documentación existente acerca del tema que le interesa. En nuestro caso, el interés en el Pueblo Gitano en las provincias vascas y el reino de Navarra durante la Edad Moderna, nos ha llevado a localizar un texto en un acta de Errenteria de 1611⁵. Lo tenemos que situar en el momento de la programación de los festejos del día de la Magdalena, cuando se decide hacer dos bailes, siendo uno de ellos “de gitanos”. La villa tenía por costumbre hacer bailar a los mozos para solemnizar la fiesta de la patrona y, así, encontramos referencias a dicha práctica en 1599, 1603 o 1611, fecha que nos ocupa este breve apunte.

Veamos pues, el mencionado fragmento en toda su literalidad:

“...y para que la dicha deboçión baya en aumento, acordaron que su día, dende la víspera, se hagan dos danças: la una de libreas, conforme con sus mudanças e ystrumentos y dichos en alabança de la Santa, y la otra el propio día de gitanos”.

Como no queda muy claro que se refiera a la danza, y se puede interpretar de forma errónea (entendiendo como “día de gitanos”), hemos vuelto a redactar el final, corrigiendo así la confusa

anotación del escribano y añadiendo unas comas donde proceden:

“... y la otra, el propio día, de gitanos”.

Este “baile de gitanos”, probablemente lo representarían los aludidos mozos, a través de una mascarada simulando el estilo de los *Kaskarots* de Ziburu⁶, o quizá fueran los propios gitanos los danzarines, quienes desde su llegada a la Península en el siglo XV empezaron a participar en las fiestas del Corpus con sus bailes. Sin irnos muy lejos, está registrado en el Libro de Cuentas de Beasain⁷ y mucho antes, en el de diferentes pueblos de Bizkaia en 1559, 1566 y 1570 donde se ve el pago en maravedíes a unos *egitanos que delante del Santísimo hicieron ciertas danzas e vueltas e regocijos*⁸. Sea como fuere, es siempre una satisfacción, para los que investigamos la Historia del Pueblo Gitano, encontrar textos en la Edad Moderna que hagan alusión a ésta y que no sean de carácter legislativo ni procesal.

¿En qué consistía esta danza de gitanos? Como ya hemos dicho, podemos asegurar con toda certeza (a no ser que viniese una cuadrilla de gitanos desde las tierras meridionales de la península), que los gitanos que bailaban en las fiestas de la Magdalena en 1661 –o a los que imitaban– no lo hacían con esos ritmos sureños acompasados de *fandangos* o *bulerías*⁹, sino que lo hacían con ritmos de la tierra, ritmos arraigados que luego ellos transformaban en algo particular poniéndole su “toque gitano”. Estas hipótesis no son nada peregrinas, y es que partimos de la idea de que muchos de los gitanos y gitanas de la época que vivían en los territorios vascos de ambos lados del Bidasoa, seguían las costumbres de la zona. Hablaban euskera y gascón¹⁰, vestían con ropa muy similar a los caseros rurales e incluso algunos gitanos eran

4. Amparándose en las múltiples disposiciones forales que no permitían su entrada y residencia en las provincias.


5. AME A-1-12, 150r-v. En honor a la verdad, la referencia nos la proporcionó el historiador Iago Irixa Cortés. Además, hicimos una pequeña reseña sobre el tema en el blog de Ereiten: http://www.ereiten.com/blog_view.php?uuid=33&cat=0 [Consultado el 6/4/2013].

6. Sobre el tema de las mascaradas en Euskal Herria y demás lugares europeos, ver: LOUGAROT, N.: *Bohemiens*. Gatuzain: Larresoro, 2009.

7. Si vamos al Archivo Municipal podemos encontrar en las cuentas que da Pedro de Arana de Ganzarin de 1760-1761 que éste menciona la contratación de tres músicos gitanos para fiestas. E040-03.

8. CAVANILLAS, Antonio, (1858), *Lequeitio en 1857*, Madrid, Imprenta de J. Martín, p.p. 112-113.

9. Recordar que muchos palos del flamenco, además, fueron apareciendo siglos más tarde, por ejemplo las *alegrías* surgen en Cádiz en el momento de la ocupación de las tropas de Napoleón a inicios del XIX.



destacados *bertsolaris*¹¹. En el tema instrumental, encontramos numerosos testimonios acerca de la práctica común dentro del Pueblo Gitano del oficio de tamborilero¹² y flautista, que nos recuerda mucho a la imagen del *txistulari* actual.

Muchos de estos gitanos y gitanas eran de la zona, así encontramos como uno de estos tamborileros tenía viviendo a *sus tios y parientes en las caserías cercanas en jurisdicciones alla Villa de Renteria y Valle de Oyarzun*¹³. Además, hay más referencias que muestran esta afición del pueblo gitano por el baile a lo largo del siglo XVII en

Gipuzkoa, así hay testimonios de cómo ven a gitanos *danzando* en las puertas de los caseríos de Oarsoaldea¹⁴. Por lo tanto, podemos decir que muchos miembros de este Pueblo participaban en los festejos de las villas mostrando su destreza en las artes del baile y de la música. Varias de estas demostraciones siguen aún presentes en representaciones del folclore vasco como son los carnavales de Soule¹⁵. Pero además, vemos que la etimología ha dejado una serie de pistas para entender este legado del Pueblo Gitano en el patrimonio artístico de la danza vasca, y es que “*el ball de les Gitanes*” que se practica en Cataluña es muy similar a la

10. Existen testimonios en procesos judiciales donde queda patente este hecho (AGG-GAO. CO CRI 79, 16; AGHN. Procesos 40030).

11. Este era el caso de Martín de Aguirre (AGG-GAO. CO CRI 234,5.).

12. AGG-GAO. JD IM 4/10/72; JD IM 3/14/5; CO CRI 83,6; CO CRI 152,9.

13. AGG-GAO. CO CRI 163,4.

14. AGG-GAO. CO CRI 60,12.

15. LOUGAROT, N.: op. Cit.

zinta dantza del País Vasco. ¿Lo llevaron los gitanos allí?, ¿lo trajeron ellos?, ¿adecuaron el baile a su idiosincrasia? Lo cierto es que éste es sólo un ejemplo, pero hay muchos más en diferentes lugares de Europa donde se asentó el Pueblo Gitano.

Por todo esto que acabamos de señalar, podemos afirmar que, aunque resulte evidente, hay que recordar que los gitanos y gitanas no siempre han estado ligados al flamenco. Que en la villa de Errenteria, en el siglo XVII los bailes de gitanos estaban basados en el folclore de la tierra con ese toque enigmático que tenía el Pueblo Gitano. Que las gitanas vascas no eran las Carmen Amaya de la época, sino más bien sus maridos eran los Bingen Azarloza del XVII. Que en Errenteria, en sus fiestas, la danza gitana no era flamenca.

Y no podemos acabar sin mencionar que a los gitanos se les permitía bailar en estas celebraciones señaladas, mientras que las Juntas de Gipuzkoa desde el siglo XVI habían prohibido la entrada de los mismos en la provincia. De este modo se estaría cumpliendo la letra de esa famosa canción, ésta sí flamenca, que dice:

*“Cuando llegan los días señalaitos,
hay muchos gachositos que son gitanos,
visten gitanos, cantan casi gitano,
y juran que su abuelo fue gitano.*

*Quando pasan los días señalaitos,
Los mismos gachositos cazan gitano, muerden
gitano...”.*



N. Ostolaza

Grupo de broquel y dantzaris de Errenteria en el frontón de Sara, hacia 1910. Txistularis: José Antonio Jáuregui y Juanito (hijo de José Antonio). Portador del mástil con cintas: Francisco Salsamendi (“Patxiku Aso”). Capitán de dantzaris: Isidro Bengoetxea. Primer dantzari a la derecha: José Urigoitia. Se encuentran también entre los dantzaris: Juan M^a Urbieta, Antonio Korta, Laureano Etxeberria, Domingo Gabarain, José M^a Otegui, Victoriano Arrieta y Pedro M^a Olaskoaga.

De calle de la Estación a Avenida de los Mártires de la Libertad

Rafa Bandrés

El 12 de diciembre de 1930 se produjo en la Guarnición Militar de Jaca un levantamiento republicano contra la dictadura de Primo de Rivera, acaudillado por los capitanes Fermín Galán Rodríguez y Ángel García Hernández. Abortada la sublevación, ambos capitanes fueron fusilados dos días más tarde en Huesca. Este hecho tuvo una repercusión evidente en la política de aquel momento. Cuatro meses después, el 14 de abril de 1931, tras las elecciones municipales, se proclamó la II República, siendo Eibar la primera localidad que izó la bandera tricolor.

Entre los soldados que se unieron al levantamiento de los capitanes Galán y García se encontraban los renterianos José Manuel Clavero García, Policarpo Urruzola y Pablo García García, que cumplían el servicio militar en Jaca. En abril de 1988 tuve la ocasión de entrevistar a Pablo García; tenía Pablo entonces 79 años y los otros dos convecinos habían fallecido. Clavero fue trabajador en Niessen y Urruzola era del caserío Eguiburu y mi interlocutor, Pablo García, ferroviario de profesión, había sido vecino nuestro en Casas Nuevas, el barrio que creció al borde del camino de la esta-



Llegada a Madrid desde África. Pablo García está en un círculo entre la tropa y es también el del recuadro.

ción. Pablo García falleció a los 84 años el 13 de marzo de 1993.

Pablo García, que en el tiempo de la sublevación de Jaca era cabo de transmisiones, nos relató así aquel suceso.

Ese día, el 12 de diciembre de 1930, fuimos levantados a primera hora de la mañana y reunidos en el patio del cuartel, allí estábamos los soldados de los regimientos de Infantería Galicia-19 y del de Ingenieros La Palma-8. Por cierto, el teniente de este último regimiento era el renteriano Bonifacio Etxeberria. Pues bien, a continuación tomamos las calles de Jaca, reduciendo La Ciudadela, un vieja fortaleza amurallada donde vivía el General-Gobernador, Fernando Urruela Sanabria, así como los cuarteles de la Guardia Civil y de los Carabineros.

Yo, que hacía guardia en las afueras de Jaca, tuve un percance con un oficial que pudo haber terminado trágicamente, pero al final razonamos y el incidente solamente me costó un arresto. Cuando me relevaron de la guardia, me cambié de ropa en el cuartel, ya que estaba empapado y sin tiempo de descansar me tocó subirme a uno de los camiones con destino a Ayerbe. Llegamos por la noche; en el camino tuvimos varios enfrentamientos, hasta llegar a Cilla, donde nos esperaban las fuerzas de caballería del general Dolla que nos emboscaron, cogiéndonos por sorpresa. Yo pude refugiarme en una caseta y allí recogí a todos los heridos que pude. Me hicieron prisionero e ingresé en la cárcel de Huesca. A los pocos días nos llevaron a un cuartel donde concentraron a toda la tropa que se había unido al levantamiento. Era un cuartel sin terminar, lleno de nieve, sin comunicación, estábamos sin ropa adecuada y todos los días haciendo maniobras. Por fin, nos metieron en un tren y nos llevaron a África.

Nuestro Regimiento, el Galicia-19, fue destinado a Melilla y el de Ingenieros La Palma-8 a Ceuta. Ingresamos en una Compañía Disciplinaria, nos dividieron en pequeños grupos, nos obligaban a trabajar y todo ello bajo el látigo. Pasamos muchas calamidades y mucha hambre... La ansiada libertad nos llegó, por fin, el 14 de abril de 1931 con la proclamación de la República.

De vuelta a la península, al llegar a Madrid nos encontramos con que nos estaban esperando los alcaldes de nuestras poblaciones de origen.

Por Rentería estaba allí don Paulino García Macharain, que nos acompañó en el tren en el viaje de vuelta a casa. Llegamos a Rentería el 25 de abril, en la estación nos esperaba la Banda de Música, la corporación municipal y muchos vecinos. Nos trajeron a hombros desde la estación de la Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España, por eso a esa estación la gente mayor la sigue llamando la estación del Norte, aunque desde 1944 la Compañía, que era de capital francés, fue nacionalizada y la estación y el tren pasaron a denominarse RENFE. Decía que nos llevaron a hombros y al pasar por Casas Nuevas, delante de mi casa, se escucharon vivas y vi a mi familia que me esperaba en el balcón. Hicimos una parada para tomar algo en el Café-Bar Cantábrico [hoy ciclos Iñaki], justo antes del puente de Aurrera. Cruzamos el río Oyarzun y pasando por la Alameda llegamos al Ayuntamiento, donde nos recibieron para ir después al Circulo Liberal [situado en la actual calle Xenpelar, donde ahora está el Juzgado de Paz].

En abril se cumplieron 82 años del regreso a casa de José Manuel Clavero, Policarpo Urruzola y Pablo García. Por aquellas fechas de 1931 era rara la casa de republicanos que no tuviera las fotos con la bandera republicana de fondo de los dos capitanes fusilados, Fermín Galán y Ángel García. La Avenida de los Mártires de la Libertad de Rentería conmemora precisamente esos hechos. Denominada anteriormente calle de la Estación, el nuevo nombre se le puso en 1931, al poco de proclamarse la II República, a petición de un pasaitarra afiliado a la Casa del Pueblo que era el jefe de la estación del Topo. La calle, durante toda la dictadura, con la victoria de la sublevación franquista, perdió su denominación y la volvió a recuperar otra vez tras las elecciones municipales de 1979.

Pablo García García nació en San Asensio (provincia de Logroño, entonces) el 18 noviembre de 1908. Hijo de ferroviario, recorrió con sus padres diversas provincias antes de instalarse en Rentería en 1924. Su padre era factor de la Compañía de los Caminos de Hierro del Norte y fue destinado a Rentería. Pablo trabajó en Galletas Olibet hasta 1928, año en el que ingresa como meritorio en el ferrocarril. Luego vendría la mili en Jaca y el castigo en el norte de África. Licenciado del servicio militar, volvió a ingresar en el Norte como factor auxiliar. Accedió a la condición de fijo en 1934 y fue destinado a Cartagena. Después estuvo empleado en las estaciones de Irún y Zumarraga,

población donde le sorprendió la Guerra Civil. Durante la guerra recorrió todo el norte, pasó a Francia y luego a Barcelona. En 1937 fue hecho prisionero por los franquistas y estuvo encarcelado durante dos meses y catorce días. Terminada la guerra, tras regresar a Rentería, fue readmitido en el ferrocarril del Norte, siendo destinado como factor en la estación de Zumarraga. En 1940 el nuevo destino le trajo a Pasajes y se jubiló en 1976 trabajando en RENFE.

Pablo García me recordaba todo esto sin arrepentirse de nada, lamentando que la República no hubiera tenido una mayor continuidad. Después de jubilarse sus distracciones fueron los recuerdos y la dedicación a una pequeña huerta, situada junto a la Estación de Lezo-Rentería, que su padre había comenzado a labrar.

Razón tenía Pablo García lamentando que la II República no hubiera tenido una mayor duración. Este año, en varios pueblos, entre ellos Rentería, se han escuchado las canciones de la República y se han ondeado banderas republicanas y no sólo el 14 de abril. También en Rentería se ha recordado a los mártires del levantamiento de Jaca, a los Mártires de la Libertad, esto ocurría el pasado 12 de diciembre, cuando se cumplía el 82 aniversario de la sublevación republicana. En el recuerdo estaban Fermín Galán y Ángel García, y con ellos todos aquellos jóvenes, entre ellos José Manuel Clavero, Policarpo Urruzola y Pablo García. El colectivo La Ilusión y el sindicato CGT-LKN, en una sencilla ofrenda floral, han recordado a todos los que participaron en aquel levantamiento por la libertad. La vieja calle de la Estación, la Avenida de los Mártires de la Libertad, fue el escenario de este sentido recuerdo.



Ormaiztegiko zubiaren eraisketa 1936an

Elixabete Garmendia Lasa

Ormaiztegiko zubia Paris eta Madril lotzen zituen burdinbideko obrarik garrantzitsuena izan zen 1864an, linea hori zabaldu zenean. Hirurogeita hamabi urte geroago, 1936ko irailean, moztu egin zuten Errepublikaren aldeko indarrek, frankistei bidea eragotzi nahian; ekintza honek Ormaiztegin gerra garaian izan ziren fusilamendu bakarrak eragin zituen: hiru lagunek ordaindu zuten biziarekin zubiaren eraisketa; errepresioaren soka ez zen, ordea, hor eten; sabotajea ez zuten berehalakoan ahaztu frankistek.

Han-hemenka barreiaturik aurkitutako informazioaz gain, gertakari hura ezagutu zuten zenbait ormaiztegiarren testigantzak jasotzen ditu kronika honek. Azken hitza esateko pretentsiorik gabe, izan ere, oraindik bai baitira galdera ikurretik zintzilik eta erantzunik gabe geratzen diren puntuak.

Zubi Handia eta Bainuetxea, horiexek egituratu zuten Ormaiztegiko paisaia ez ezik, herriaren izaera XIX. mendearen erdialdetik aurrera. Zubia Eiffelek egina izan zela uste izan zen urtetan: herriaz harro egoteko arrazoia ormaiztegiarrentzat, Zumalakarregi jenerala bertakoa izatearekin batera. Azterketa historikoen argitu zuten halako batean zubiaren egilea Alexander Lavalley ingeniaria izan zela, frantziarra hau ere, ez Eiffel bezain ezaguna. Desilusio apur bat sentitu zuten ormaiztegiarrek hori jakitean, baina Zubi Handiak han segitu zuen, beti bezain sendo eta dotore.

1863an eraiki eta hurrengo urteko abuztuan zabaldu zuten, Madril-Paris linea inauguratzean. 289 metroko luzera du eta 34 metroko altuera punturik gorenean; bi mendixka lotzen ditu: bata Beasain aldera, hilerria eta geltokia kokatzen direnekoa, eta bestea, Zumarraga aldera, Gabiriaranzko oinezko bidea doanekoa. Azpitik, Gabiriara eta Liernira daraman errepideak zeharkatzen du zubia. 1912an bikoiztu egin zuten trenbidea eta 1928an elektrifikatu.



Zubia eta bainuetxea (1914).

Burdinbideak herriari eragin zion aldaketa sakonaren lekuko izan zen Serapio Mujika historialaria (Ormaiztegi, 1854): baserri giroko herri izatetik langile, kontratista, ingeniari, hornitzaile eta abarren biltoki bihurtu zen zubia eraikitze lanekin, eta horrek garatu egin zuen ekonomia eta zerbitzuen aldetik.

Zubia altxatu zutenean, ia ia azpian geratu zen Bainuetxea. Ordurako hamar urte zeramatzan martxan; Pedro Zangitu eta beste ormaiztegiar batzuek 1853an zabaldua, udatiarrak erakartzen zituen, ez bakarrik ingurutik, baita Katalunia, Zaragoza eta Madriletik ere, arrautza ustel usaineko ur beltzaren onuraz baliatzera.

Trenbidearekin, garraio bide nagusien sarean sartu zen herria; Zeraingo eta Mutiloko mea Ormaiztegiko geltokitik bideratzen zen Pasaiara. Herria XX. mendearen hasieran industrializazioaren bidean sartu zen, askotariko lantegien bidez: teilak, altzariak, ferrak, motorrak, gurdiak... Familia enpresak ziren, tailer txikiak, baina arrastoa utzi



Zubia moztuta (1936ko iraila).

dutenak: hor dago Irizar autobus fabrika ezaguna, Irizartar karrogeileek XX. mendearen atarian sortua. Industriak, bainuetxeak eta trenbideak bultzatuta, zerbitzuen arloan ere osatuz joan zen Ormaiztegi, fonda, ostatu eta abarrekin. Gainera, errepide sarean ere ondo kokatua zegoen, Beasaindik Durangorako bidean.

Aurrerapenaren trenean igota zihoan, beraz, 700 biztanleko herri koskorra, XX. mendeko lehen hamarkadetan eta horrek izan zuen eragina gizartean eta politikan. Lehengo garaietatik zetozen karlisten alboan, beste joera batzuk azaldu ziren, hala nola EAJko nazionalistak eta errepublikanoak; batzuek eta besteek Batzokia eta *Centro Republicanoa* sortuak zituzten 30eko hamarkadan. Testuinguru horretan, Errepublika ekarri zuten 1931ko apirilaren 12ko hauteskunderen ondoren osatutako udalbatzak "gainerako errepublika iberikoekin konfederatutako Euskal Errepublikaren aldeko" aldarrikapena egin zuen, inguruko beste herri batzuetan bezala; EAJko zinegotzi batek, Bixente Arzelusek, aurkeztu zuen proposamena, eta aho batez onartu zuen udalbatzak, nahiz eta bertan karlista nabarmenen bat ere bazegoen.

Gerra hasi dela!

Irratiz iritsi zen Ormaiztegira, 1936ko uztailaren 18an, Francok Afrikan hasitako altxamenduaren berri. Herrian zeuden irrati bakanetan albistearen entzun eta berehala zabaldu zen ahoz aho: "gerra hasi dela!". Gertakari horren aurrean azkarren erreakzionatu zutenak gazteak izan ziren, errepublikarren girokoak lehendabizi, Batzokikoak geroxeago. Liderra Juan Mari Intxausti Peña (Ormaiztegi, 1913) izan zen; maisua, familia errepublikazalekoa, Iruñean ikasketak egin zituenetik *Juventudes Socialistaseko* kidea zen. Berak hartu zuen Ormaiztegiko Defentsa Komiteko ardura eta ekin zion herria gerrarako antolatzeari.

Bainuetxea errequisatu eta bertan kuartela eta Gurutze Gorriaren ospitalea jarri zituzten. Laster bete zen hura milizianoz: Altsasu, Beasain, Ordizia, Zumarraga, Tolosa, Donostia eta abarretatik bildutako milizianoak¹. Bilboko Garellano erregimentuko soldaduak ere egon ziren aldi batean bainuetxean. Bertakoekin –tartean gabiriarrak– eta kanpokoekin, Juan Mari Intxaustik laurhun bat lagun zituen bere agindupean. 1936ko uztaila eta iraila bitartean Ormaiztegi Errepublikaren aldeko lerroan egon zen, frankistek mendebalderantz joatea eragotziz.

1. EGAÑA, Iñaki. *Gerra zibila Euskal Herrian*. Andoain: Aralar liburuak, 1998.

Izan ere, Beasain, sei kilometrora, frankistek hartuta zeukaten uztaillaren bukaeratik; hartuta, eta nola: gutxienez hogeita hamarren bat gizon fusilatu zituzten han uztaillaren 27-28an, Mola jeneralaren errepresio basatirako aginduak gauzatu. Hegoaldetik ere, Segura eta Idiazabaletik erasotzen zuten Ormaiztegi Nafarroatik sartutako erreketee; frontea Española inguruan zegoen, karlistadetatik izen hori dakarren mendian. Egoera horretan, frankistei aurrerabidea eragoztearren Zubi Handia botatzea bururatu zitzairen agintari errepublikarrei. Ormaiztegiarrak ataka larrian jarri zituzten.

“Donostiatik asturiar bat bidali zuten, meatzaria edo, zubia lehertzeko. Ukatu egin nintzen, ze dinamita pila bat jartzeko asmoa zeukan, herria txikitzeko adina. Donostian onartu zidaten hori ezin zela egin eta orduan zubia moztea pentsatu zuten. Nik hori onartu egin nuen”. Juan Mari Intxaustik kontatua. *Gaitz erdi* pentsatuko zuen Juan Mari Intxaustik mozketarengatik. Bere anaia Inaziok, errepublikarren aldeko ekintzailea bera, hori ere ez zuen onartzen; Loiolan zeuden agintariengana joan eta esan omen zien: “ormaiztegiarra naiz; zubia moztea hanka bat moztuko balidate bezala da”². Baina ez zegoen atzera bueltarik. Miguel Amilibiak, Gipuzkoako Defentsa Juntako presidentek eman zuen agindua zubia moztu ahal izateko soplete eta oxigeno botilak errevisa zitzaten³. Eta horrela, irailaren 15ean ekin zioten lanari.

Urbano Manchobas, Eibarko udal arkitektoa zenak zuzendu zuen eraisketa, bi ingeniari laguntzaile zituela; Bergarako Labe Garaietako eta Unión Cerrajerako bost soplete eraman zituzten lana burutzer; horiezaz gain, Zumarragakoren bat eta Olaztikoren bat ere ba omen ziren. Juan Mari Intxaustik aipatzen du, berriz, Tolosakoren bat eta Diputazioko obra publikoetako langileak aritu zirela.

Joxe Urreta Izuzkizak (Ormaiztegi, 1925), 11 urteko mutikoa orduan, adi-adi jarraitu zuen zubiaren mozketari: “Zuzen ebakitzen hasi ziren

hori, baina gero trabatu egiten zen behera erortzerakoan, ze behera erori behar zuenean beste puntak jotzen zuen, eta gero ebaki zuten diagonalean; diagonalean ebaki zuten eta goiko punta nola barrurago zegoen, orduan libratu egin zen. Behera erori zenean, uraren tuboak eta denak puskatu zituen”⁴.

Bi mozketari egin zizkieten zubiari, Zumarraga aldera. Ozta-ozta bukatu zuten lana, ze irailaren 18an frankistek Ormaiztegi hartzea lortu zuten: Lierni aldetik erreketeeak jaitsi ziren; Beasain aldetik berriz, Salvatore auzotik, América 1 eta 2 batailoietako sei konpainia sartu ziren, Tejero kapitainaren agindupean. Arratsalde hartan bainuetxea utzi eta Zumarragarantz alde egin zuten milizianoek eta zenbait herritarrek, tartean Defentsa Komiteko buru izan zen Juan Mari Intxaustik; honen azken lana Udaletxean paperak erretzea izan zen. Ormaiztegi, frankisten eskutan geratu zen irailaren 18ko iluntzean.

Hurrengo egunean *Diario Vasco* eta *La Voz de España* egunkariak jaso zuten albistea, eta horrekin batera eman zuten Zubi Handiaren eraisketarena ere: “los rojos, en su huida, destruyeron el viaducto” zioen *La Voz de España*; *Diario Vasco* berriz: “los rojos habían volado el puente de hierro, aunque no en la proporción que ellos hubieran querido indudablemente”.

Gau eta eguneko lana

Zubia etenda, bidaiarien garraiorako autobusak eratu zituzten Beasain eta Zumarraga artean, baina hori ez zen nahikoa. Frankistentzat zubia konpondu eta trenen joan-etorria berriro martxan jartzea lehentasunezko helburua zen, tropen eta gerrako materialaren garraioa ziurtatzeko. Urrian ekin zioten konponketari.

“Segituan hasi ziren. Jende ikaragarri ekarri zuten: enkofradoreak, eta arotzak eta igeltseroak eta danak” (Joxe Urreta).

2. Iragi-Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa. Carlos Blasco Imaz funtsa. C05/07, C05/08. Inazio eta Juan Mari Intxaustiri egindako elkarrizketak.

3. AMILIBIA, Miguel. Los batallones de Euskadi. Donostia: Txertoa, 1978.

4. GARMENDIA LASA, Elixabete. *36ko gerra Ormaiztegin*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012. Ormaiztegiarren gainerako testigantzak ere liburu horretan daude.



Zubia konpontzen, egun eta gaueko lanean (1936-1937).

Kanpotik ekarritako langileak ziren eta herriko etxeetan egon ziren apopilo. Egunez eta gauetz, hogeita lau orduetan aritu ziren lanean, gaua egun bihurtzen zuen argiztapenarekin. Zubia indartu egin zuten gainera, hormigoizko zutabe berriak eraikiaz, lehengo harrizkoen tartetean.

“Reparación y Construcción de Puentes durante el Glorioso Movimiento Nacional” izeneko txostenean, Ormaiztegiko zubiari buruzko atalak hartzen du toki gehien, obraren garrantzia azpimarratuz. Hor esaten da 1937ko urtarrilaren 29an altxatu zela azken zatia eta bi egun geroago egin zirela froga ofizialak. Froga ikusgarriak inondik ere, memorian itsatsita geratzen diren horietakoak. Tartean zen Ormaiztegiko makinista bat, Periko Eguren, Carmen Lasa Egurenek (Ormaiztegi, 1917-2010) gogoratzen zuenez.

“Osaba Periko izan zen merkantzi batekin azkena pasa zena zubian moztu aurretik, eta gero ere, pruebetan, gogoan daukat: bi makina lotu elkarri –makina horiek ziren Brown Boveri, makina elektrikoak, e?-; ba bi makina lotu elkarri bide baten eta beste bi makina beste bidean, eta indar guztian lau makina, Zumarraga aldetik Beasain aldera, eta gero Beasain aldetik Zumarraga aldera berriz ere, zubia pasatzen, pruebak egiten”.

Zubia prest zegoen berriro. 1937ko otsailaren 1ean inauguratu zuten, Mola jenerala

bertan zela: “Jeneral Mola etorri zen, bai, hori inauguratzera; oraindik presentzian daukat: aitona majoa zen, antiajuekin eta” (Joxe Urreta).

Lehenago ere, izana zen Mola Ormaiztegin, frankistak sartu berritan. Bi gauza erabaki bide zituen orduan: zubia konpontzea eta eraisketa zigortzea.

Molaren hatzapar luzea

Zubia moztu eta hilabetera, 1936ko urriaren 15ean, gauerdian, hiru lagun fusilatu zituzten frankistek Ormaiztegiko hilerriaren sarreran: Antonio Galdos, Guillermo Martínez eta gizon gazte ezezagun bat –Santanderkoa, dirudienez–.

Guillermo Martínezi *Jefe Xaharra* deitzen zioten Oñatin, tren geltokiko arduraduna izana baitzen; herri hartako *Centro Republicanoko* presidente izandakoa, 77 urte zituen.

Antonio Galdos Ugarte (Oñati, 1906) Unión Cerrajerako enplegatua zen eta Bergarako Labe Garaietan lan egiten zuen soplelista gisa. Joera abertzalekoa, Fronte Popularreko agintariet eskatuta joan zen Ormaiztegiko zubia eraisteko lanetan aritzera⁵.

Hirugarren fusilatuaz ez dago inolako aztarnarik, ezta Elizbarrutiko Artxibo Historikoan

5. OKTUBRE TALDEA (Landa, Arrate; Balanzategi, Jabi; López de Munain, Andoni; Landaluze, Aitor; Garai, Juan Ramón). Arrasate 1936, belaunaldi etena, bigarren edizioa. Donostia: Arabera, 2003.



Antonio Galdós, Ormaiztegin fusilatua; bost hilabete lehenago ezkondu zen Arantzazun Maria Urbeloarekin (1936-04-25).

ere, Ormaiztegiko parrokiari dagozkien dokumentuetan. Aldiz, beste fusilatu baten berri ageri da dokumentu horietan: urriaren 10ean Felix Alzelai Beldarrain gazte hernaniarra fusilatu zuten hilerriko sarreran. Bi gau horietako tiro hotsak bizi-bizi gogoratzen zituen Carmen Lasak:

“Nik –gaixo nengoen orduan eta ez nuen lo asko egiten– bi gauetan entzun nituen fusilamenduen deskargak; bi gauetan izan ziren. Nik gero esan, gauean halako hotsak entzun ditut; deskarga itxi-itxi bat eta gero ta-ta-ta, horik *los tiros de gracia*”.

Biharamuneko lekukotza dakar Joxe Ramon Lasa Eguren (Ormaiztegi, 1921-2010):

“Nik ikusi nituen zubia bota zutenak – esaten zutenak–, Bergarako edo Oñatikoa bat... *Atzo ere tiroak izan dituk ba, joango gaituk, ez gaituk...* aber zein diren ba ikustera. Ez joatea hobe zen, haiek ikusteko, zergatik koadro txarra zen hura, erabatekoa”.

Ormaiztegiko hilerrian ehortzi zituzten fusilatuak, zubitik bertan. Urtetan egon zen hilobi hura, hilerrian sartu eta ezkerretara. Kanpoaldean berriz, eskuineko paretan, baziren bala zulo batzuk:

“Han asientu bat dago, eta han eserita jartzen zituzten nonbait (...) Gero kendu zituzten zuloak, masarekin edo tapatu egin zituzten, baina egon ziren han hiru-lau zulo. Bala tiroak ziren haiek, pertsona pasatutako tiroak” (Joxe Urreta).

Errepresioa ez zen, ordea, fusilamendu horiekin amaitu. Bergarako Labe Garaietako soplestetako batzuek izkin egin zioten zigorrari, Bizkaira alde eginda; haien artean Florencio Estevez Paredes (Madrigal de las Altas Torres, Avila), Alderdi Komunistako eta UGT sindikatuko militantea; Santanderren hil zen 1937ko abuztuan⁶.

Jose Antonio Zabaleta (Urretxu 1915-Derio 1937); Kandido Sasetaren laguntzaile izana, Aralar



Mola jenerala zubiaren inaugurazioan (1937-02-01).

6. MURGIZU, Josuren; GARAI, Juan Ramón. “Septiembre de 1936: La soberbia demolición del puente de Ormaiztegi”. Intxorta 1937 Kultur Elkarte, 2011.

batailoiko komandantea, heriotza zigorra ezarri eta Derioko hilerrian fusilatu zuten; Ormaiztegiko zubiaren sabotajearen parte hartu izana egotzi zioten⁷. Arrazoi berberetatik Eibarko Santos Iriondo Astarloari (32 urte, UGTkoa), hogei urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten⁸. Herritarren artean, Juan Mari Intxausti heriotza zigorraren mehatxuarekin egon zen, zubikoarengatik. Berdin Urbano Manchobas, eraisketa zuzendu zuen arkitektoa. Beste izen batzuk gordean egongo dira oraindik, edo betirako ahaztuta.

Garaipenak amildutako tren

Zubiaren mozketak ez zuen ondoko bainuetxea erasan, ez zuzenean behintzat. 1936ko irailaren 18an, frankistak herrira sartu zirenean, milizianoek hutsik utzitako eraikina beren mende hartu zuten: frontetik zetozen soldaduak artatu eta txukuntzeko toki bihurtu zuten. *Hospital Militar* deitzen zaien Ormaiztegiko udal artxiboko dokumentuetan; bazuen beste izen ofizioso bat.

“A! *Parque de Despiojamiento* zen bainuetxea... nonbait zorri asko, baina jeneralek eta denek, e? mutilek bakarrik ez. Eta hor garbitzen ziren, arropak aldatu eta... Ni ez nintzen behin ere joan, baina herriko neskak taldeka joaten ziren arropak garbitu eta gero plantxatu eta egitera” (Carmen Lasa).

“Etxe guztietara pasatzen zituzten iluntzean izarak; bakoitzarentzako bina-hiruna ematen zituzten... zorria ikusten zen izaretan... nola! Korritzen zuen artean, garbitu eta gero... Gau guztian egonda gaude gu arropak sekatzan; sua egin eta arropak sekatzan”.

Kasilde Arzelus Loiolak (Ormaiztegi, 1916-2011) kontatzen zuen hori. Aita –Bixente Arzelus, Ormaiztegin abertzaletasuna sartu zuena– eta anaia bat gerratik ihes eginda zebiltzan, eta errepresaliak jasan zituen familia osoak. Ez ziren bakarrik. Juan Mari Intxaustiren familiak alde egin zuen gerra hastean, eta itzulitakoan, etxea, Tellerizahar, hutsik topatu zuten, Kontxa Intxausti Peñak (Ormaiztegi, 1919) gogoratzen duenez:

“Bederatzi ohe zeuden. Muebleengatik ez zen izango, ze garai hartan muebleak... ahal zen bezala; baina koltxoak –bederatzi koltxoi–, mantak, izarak eta ontziak eta dena... ezer gabe”.

Bainuetxean bukatu zuen nonbait ondare horrek. Izan ere, okupazioa modu askotara ordaindu zuen herriak, baita diruz ere. Udal artxiboko dokumentuetan, 1936-1937 urteetan faktura ugari ageri dira herriko denda, taberna eta abarrek luzatuak, erreketeei, falangistei eta militarrei emandako zerbitzuengatik (egurra eta ikatza, jan-edanak, tabakoa, apopilotza...). Udalak pagatu zituen horiek denak.

Gerraren bukaera ere trenbideko gertakari bati dago lotua Ormaiztegin. 1939ko martxoaren 28a zen, gerra amaitu baino lau egun lehenago. Zumarraga aldetik Beasainera, ziztu bizian pasatu zuen zubia tren espres batek; laster, Salbatoren –Ormaiztegi eta Beasain artean– bidetik irten eta erori ziren ezpondan behera tren horretako bagoi batzuk. Joxe Urretari pare-parean suertatu zitzaion istripua:

“Ba ni orduan Beasaina bizikletan nindoan, eta Salbatore parean nintzela, orduantxe erori zen tren hori; orduan trenek eramaten zuten bagoi txiki bat, makinaren eta kotxeen artean, kalderarekin. Eta esan zuten haren kulpak izan zela deskarrilatzeke, zergatik estabildade gutxi zeukala... esan egin zuten”.

Hiru lagun hil ziren eta hogeita hamarren bat zauritu istripuan. Ormaiztegin beti esan izan da tren horretan makinista Zaragozako dukea zihoala, José Mencós y Rebolledo, Alfonso XIII. aren tren gidari izandakoa, eta 1941ean RENFE sortu zutenean oso aurrera ibiliko zena. Garaipen hurbilaren *haixek* eraman ote zuen tren hura amiltzera?

Zubia artean, literaturan eta onomastikan

Hasiera hasieratik erakarri zituen zubiak artistak eta idazleak. Ezagutzen den lehen irudia

7. GOIERRIKO HITZA. “Zabaleta, Jaka eta idazteko makina bat”. 2012-12-19.

8. GUTIÉRREZ AROSA, Jesús. *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta. Eibar-Elgeta: Eibar eta Elgetako Udalak eta Ego Ibarra Batzordea*, 2007.



Auguste Muriel argazkilaria paristarrak egindakoa da; *Chemin de fer du Nord d'Espagne* (1864) argazki albumean jaso zuen⁹. Darío Regoyos margolariak 1896an pintatu zuen zubia, paisaia berdeak inguratuta, eta burdina urdin; gainean, han doa trena, makina kea dariola.

Idazleen artean, Alejo Carpentierrek, 1934an Paristik Madrilera egin zuen bidaiaren kronikan, zubia ez, baina Ormaiztegi aipatzen du¹⁰. Pío Barojak deskribapen zehatza egiten du *El tren en el paisaje de la Tierra Vasca* (1948) idatzian:

“El tren va sobre un largo viaducto de hierro, entre larguísimos túneles; pasa volando por encima del balneario de Ormaiztegui, sobre caseríos y tierras de labor”.

Xabier Mendiguren Elizegik *Antxiñako fotografia* narrazioa idatzi zuen zubia eraisteagatik fusilatutako baten inguruan; *Errautsen distira* (2002) liburuan dago jasota.

Herritarrek erabili izan dute Zubiaren izena: *Zubiaundik* sinatuta ageri dira *El Día* egunkariaren Euskal Orrian Ormaiztegi kronika bakan batzuk 1931-32 urteetan; egilea Carmen Lasa Eguren zen. 1960ko hamarkadan *Los Zubi* izena hartu zuen herrian sortu zen lehen pop-rock taldeak. *Zubipe* izena du Ormaiztegi polikiroldegiak, halaxe baitago, zubiaren azpian.

Izen propio batzuk

Antonio Galdos Ugarte (Oñati 1906-Ormaiztegi 1936)

Zubia eraisteagatik hil zituzten hiru lagun artean, Antonio Galdosen historia da osoenik iritsi zaiguna; eta hori bere alaba Manttoni Galdos Urbeloari esker. Aita hil eta gero (1937an) jaio zen Manttoni; txikitari apenas izan zuen haren berririk; gerora, han-hemenka bila ibilita,

9. EGAÑA, Juanxo in juantxoegana.blogspot.com/2010/01/auguste-muriel-y-el-ferrocarril.html

10. IZAGIRRE, Koldo. “Historiarik gabeko bidaiaren baten kronikak”, *Berria*, 2004.

Antonioren azken egun eta orduak berregitea lortu zuen.

Galdosen bi lankidek 1980an notarioaren aurrean emandako lekukotzak dioenez, Fronte Popularreko agintariek eskatuta joan zen Zubia-
ren mozketan aritzera. Hori egin, Bergarako bere etxera itzuli zen, eta bizitza normala egiten jarraitu zuen, harik eta 1936ko urriaren 15ean, Unión Cerrajeraren Bergarako lantegian zegoela Armada Nazionaleko kideek atxilotu zuten arte. Ormaizte-
gira eraman eta fusilatu zuten hango hilerrian. Bost hilabete lehenago ezkondua zen, apirilaren 25ean, Arantzazun, Maria Urbeloarekin.

Urbano Manchobas Careaga (Ermua 1887-Caracas 1968)

Eibarko udal arkitektoa¹¹, gerra garaian bere ardura bonbardaketek eraikin publikoetan eragindako kalteak ikuskatzea izan zen. Ormaiztegi-
ko Zubiaren eraisketa zuzentzeagatik heriotza zigorra ezarri zioten, ausentzian; izan ere, 1938an Anberesen errefuxiatu zen, eta hurrengo urtean Venezuelara joan zen. 1942an Espainiako Arkitektura Zuzendaritza Nagusiak erabateko debekua ezarri zion arkitekto gisa lan egiteko.

Caracasen garatu ahal izan zuen bere lanbidea; beste hainbat eraikinez gain, euskal estiloko etxeak altxatu zituen han, hemendik alde egindako beste arkitekto batzuek bezala.

EAJko militantea zen eta 1930eko hamarkadan zenbait batzoki egindakoa.

Juan Mari Intxausti Peña Maixu (Ormaiztegi 1913-Donibane Lohizune 1993)

36ko gerran Ormaiztegin erabakimenik handiena izan zuen gizona. Defentsako Komiteko buru gisa, bere kezka nagusietako bat izan zen herrian errepresaliarik ez izatea errepublikaren kontrakoak jo zitezkeenengan.

Nazionalak sartzean herritik ihesi, Eibarko Amuategi batailoiko kide egin eta kapitain izatera



Juan Mari Intxausti, Gernika batailoiko kapitaina (1945).

iritsi zen. Gernikako sarreran harrapatu zuen bonbardaketak, Lemoako haitzetako borrokan parte hartu zuen eta baita Bilboko defentsan ere. Hortik aurrera Bartzelona, Valentzia, Toledo eta Cáceresen ibili zen, komandante gisa. Gerra bukatzeaz zela, atxilotu eta Albaterako (Alacant) kontzentrazio eremuan sartu zuten.

Heriotza zigorraren menpe zegoen Zubia-
ren eraisketagatik; hala ere, kargu hori kendu eta 30 urteko kartzela zigorra ezarri zion Donostiako Epaitegi Militarrak; azkenean Ondarretako kartzelan bi urte eta erdi pasa eta irten zen Valentziara deserriratu.

Ene Segurako aitona ogia behar zuenean Castillara joaten zen jorنالارitzara, morrointzara..., Mikel Azurmendiren poema musikatu eta abestu izan zuen Imanol Lartzabalek. Azurmendiren aitona bezala, gure Segurako aitona ogia behar zuenean jorنالaritzara jotzen zuen, herri lanetara, nahiz horretarako Gaztelara ez joan behar izan. Errotaberri baserriko semea, gure aitona eta han bizi ziren belaunaldiak baserriko lanez gain kanpoan lan egitera behartuak ziren ogia irabazteko. Arestian aipatutako abesti eta poemak dioen moduan, *pizkorrak omen ziren*

peontzan, bai, hori bai... Hamaika haur badute gosez etxean, bai!, hori bai!

Kantuan esaten dena ohikoa zen Seguran, nahiz gure aitonaen historiak berezitasunak izan, burdinbideak, Norteko ferrokarrilak, baserri haren eta gure familiaren historia aldatu zuelako. Utz gaitzazue historia hau kontatzen, horretan saiatuko gara aitonaen izena daramagun haren bi ilobok, Luisek eta Koldok, nahiz horretarako lehendabizi Lapurditik Segurako Errotaberri baserrirainoko bidea egin beharko dugun.



Errotaberri 1982an

Ordozgoiti abizenak Lapurdiko Zuraide udalerriko baserri batetik hartzen du izena. Ordoz auzoa behean da, goian mendi muino batean da Ordozgoiti baserria. Badirudi ipar Euskal Herriko inguru hartan deitura XX. mende hasieran galdu zela. Gure Segurako aitonaren adarra Gipuzkoako Goierri da XVII. mendetik aurrera, paperen arabera. Hau da, famili deiturak egun ezagutzen ditugun moduan finkatu ziren denboran eta lehen erroldak, elizetako sakramentu agiriak, orokortu ziren garaian. Ikusita Legazpin kokatzen direla lehen aipamenak, hipotesi moduan, inguru hartan hain ugariak ziren ola, teileria eta hauen lan beharrei lotutako emigrazioa izatea gure adarraren sorrera aipa genezake, baina hau hipotesi hutsa da. Hortik aurrera eta hau ziurtatu dezakegu paperetan jaso delako, Ordozgoiti ugari azaltzen dira bataio, ezkontza eta heriotza agirietan Goierriko herrietan.

Idiazabaldik etorrita sartu ziren maizter Errotaberri baserrian Jose Joakin Ordozgoiti Aldanondo eta Josefa Antonia Katarain Muxika, senar-emazteak. Ezin ziurtatu hori XVIII. mendeko hondar urteetan, hala hemeretzigarreneko lehenengo urteetan gertatuko zen. Aldiz, jakin badakigu Jose Joakin Idiazabalgo elizan bataiatua izan zela 1778ko irailaren 9an. Ez jakin arren zehatz senar-emazteak noiz jarri ziren bizitzen Errotaberrin, bataio agiriek erakusten digute Segurako elizan bataiatuak direla 1812 eta 1827 urte bitartean izan zituzten sei seme-alabak, Jose Joakin, Frantziska Ignacia, Joan Bautista, Maria Mikaela, Maria Bixenta eta Maria Ignacia. Hauek izan ziren Errotaberri baserrian jaiotako lehen Ordozgoitarrak.

Lehen belaunaldi hura jaiotzen ikusi zuen baserriak etxe bakarra hartzen zuen bere baitan eta egungoa baino askoz txikiagoa zen. Errotaberri bi etxeako baserri bilakatzea ume haien ezkontza garaietan gauzatu zen, lehen gerra karlista amaitu berria zen denboran. Ez dakigu zazpi urteko gerrak eragindako miseriagatik, ala Ameriketatik sartutako indaba, artoa eta patataren jorratzeak ekarri zuen aukeragatik, gauza da baserriaren jabeak errenta bikoizteko bidea ikusi zuela eta errenta bakarra jasotzen zuen baserrietik, etxea eta lur sailak erdibituta, bi errenta kobratzeko bidea egin zuen. Bi etxe bere baitan hartzen dituzten baserriak ohikoak dira Seguran bezala Goierri.

Baserriaren zatitzea –erditzea esango dio- gu?–, 1840. urte inguruan gauzatu zen. Jose Joa-

kin Ordozgoiti Katarain eta Josefa Luisa Arrondo Muxika, 1840ko otsailaren 9an ezkonduak, baserrian geratu ziren jaun-andre zaharrekin, Jose Joakin eta Josefa Antonia aitajaun-amandreekin. Handik lau urtetara anaia gaztea, Joan Bautista Ordozgoiti, Urtsuarango Maria Gregoria Oiarbide Aldasorekin ezkondu zen eta ezkonberriak Errotaberrin jarri ziren bizitzen, etxeokonean. Gurasoak eta bi anaiak eta hauek osatutako familiak etxeokoneko egin ziren. Sutondotik zatitu zuten etxea, hasiera batean paretekin partitu gabe, sukaldea eta etxea partekatzen zuten, alde bana bi anaien familia bakoitzerako. Lur sailak ere erdibitu egin ziren, sailez sail eta sail bakoitza erdibanatuz, kanpoko mugarriak ukitu gabe.

1846an Jose Joakinen eta Joan Bautistaren arreba gaztea zen Maria Bixenta Ordozgoiti Urtsuarango Domingo Oiarbiderekin ezkondu zen, bere koinata zen Maria Gregoriaren anaiarekin, alegia. Ezkonberriak, garai hartan Segurako auzoa zen Urtsuarango baserrira joan ziren bizitzera. Erraina eta amaginarrebaren elkarbizitza, etxeokonean ezkonberriaren eta Urtsuarango amandarearen arteko harremana ez zen erraza izan eta apaizak direla medio, Errotaberrin bizi ziren anaia eta arrebarekin etxeak trukatzearabaki zuten. Domingo Oiarbide eta Maria Bixenta Ordozgoiti Errotaberrira eta Joan Bautista Ordozgoiti eta Maria Gregoria Oiarbide Urtsuarango baserrira aldatu ziren.

Joan-etorriko etxebizitza aldaketa horiek gertatzen ziren bitartean Errotaberriko beste etxean bizi ziren senar-emazteak, Jose Joakinek eta Josefa Luisa Arrondok, lau seme izan zituzten elkarrekin. Laugarrenengo haurra erditzean, ama eta haur jaioberria hil egin ziren; hau 1849an gertatu zen. Handik urtebetera Jose Joakin bigarren aldiz ezkondu zen Josefa Antonia Aristimuñorekin eta bost seme-alaba gehiago izan zituzten. Zortzi seme-alaba belaunaldi berrian.

Aipatutako Josefa Luisa eta Jose Joakinen seme nagusiak Tiburtzio Joakin Ordozgoiti Arrondo izena hartu zuen Segurako eliza bataio-harrian, 1841eko abuztuaren 11n. Ama hil berria zuela, haurretan, Tiburtzio Ordozgoiti morroi joan zen. Hobeto esanda, haren semea zen gure Segurako aitonari entzundakoaren arabera, eta Luisek zehaztasun handiz gogoan duen moduan, *morroi joan ez, eskale batek eraman zian. Orduan eskaleak*

ibiltzen zituan eta eskaleek izaten zitean fijo lo egiteko lekuak. Nik ezagutu izan ditiat hemen, Errotaberrin, eskaleak lo egiten. Bada, eskale hark esan omen zioan gure birraitona Tiburtziori –artean umea zela– bazela Antzuolan baserri bat morroia behar zuena. Eta joan egin zituan, Antzuolara; oinez, Seguratik, egun osoa beharko zitean. Abiatu dituk hara. –Hi joan al haiz Antzuolara?– Deskargako portuan, Antzuola aldeko azkeneko kurban, bada baserri bat [Deskaga-Zarra]. Bada hara iritsi zirenean eskaleak esan omen zioan Tiburtziori, “hemen ere morroia behar ditek, baina aurrerago jo behar diagu”. Eta gora eta gora, aurrera eta aurrera, hasi zituan. Ailegatzen ez eta “hor behean lana badago, zergatik aurrerago segitu”, pentsatu zian birraitonak. “Goraxeago, goraxeago”, eskaleak, eta mutikoak –gure birraitonak– korrika ihes egin ziot eta atzean utzitako baserrira joan eta han eskatu dik lana, eta baietza jaso. Han geratu zuan, morroi. Ez zekiat zenbat urte pasatuko zituen baserri hartan; Tiburtzio egin zenean sasoiko, etxerako ere, lanerako beharko zitean eta Errotaberrira bueltatu zuan.

Tiburtzio Errotaberrira bizitzera bueltatu eta urte bertsuetan, 1858an hasi zituzten Norteko burdinbidea egiteko lanak. Trenbidea Beasaindik Altsasura Lizarrustitik barrena eramateko proposamena berehala baztertu eta gaur ezagutzen dugun Zumarraga eta Otzaurtetik Altsasurako bidea aukeratu zuten. 46 kilometro buelta egiten du burdinbideak, errepidetik hogeita gutxi kilometro behar den bidea egiteko, trenak kilometro bakoitzeko hogeita metro igo ditzakeelako; Altsasuko geltokia 533 metroko alturan da eta Otzaurte-Zegamako geltokia oraindik gorago, 620 metrotan eta aldiz Beasain itsas mailatik 159 metrotara kokatzen baita. Lan gaitza, are gehiago Aizkorriko mendia zeharkatu behar delako. Hori bideratzeko hogeita hiru tunel zabaldu ziren Olazti eta Beasain arteko burdinbidean. 10.413 metro lur-azpian, horietatik ia 3 kilometro Oazurzako tunelean, Tunel Handian; zulatu zutenean penintsulako tunelik luzeena zen eta Euskal Herriko luzeena izan da 2009. urteraino. Burdinbide zati hori zabaltzeko zazpi urteko lana behar izan zuten eta hura izan zen Euskal Herrian trenbidea egiteko lekurik zailena eta Norteko ferrokarrilean zabaldu zen azkena. Irun-Beasain-Altsasu tren-zerbitzuak 1864. urtean jarri ziren martxan.



Tunel Handia 1867 marrazkian

Ehunka lagunek parte hartu zuten pikatxa, pala eta bolbora erabiliz zabaldu zen trenbide hori eraikitzen. Horietako bat Tiburtzio Ordozgoiti, hamazazpi-hemezortzi urteko sasoiko gaztea, Aizkorripera joan zen ogia irabaztera, burdinbidean lanera. Bera bezala Segura eta inguruko herrietako ehunaka lagun. Jende ikaragarri aritu zuan lanean tunelak eta burdinbidea egiten. Herri oso bat. Birraitona eta horiek Tunel Handian ibili zituan lanean. Zulatzen zituzten harriak eta hondakinak, eskonbroa, tximiniak bezalako zuloetatik ateratzen zitiztean. Hor zeudek oraindik, putzuak deitzen ditiagu, ez zekiat zenbat putzu izango diren, hamabi-hamabost bat, bai. Tunela eta burdinbidea dena pikatxa, pala eta barrenokin, giza indarrarekin egin zuan, agian bolbora ere erabiliko zitean, ez zekiat.



Trenbidea eraikitzen, XX. mende hasiera

Errotaberriko semea trenbideko lanetara iritsi berritan, *Oazurzako lanetan zela dei bat jaso zuen. Gure birraitona Tunel Haundira... hara lanera joan duk eta, han lanean zebilela injineru batek deitu omen zioan, "Tiburtzio Ordozgoiti!". Joan omen zuan eta galdetu omen zioan injineru hark Antzuolako halako baserrian morroi egona ote zen. Baietz; holakoa eta holako ezagutzen ote zuen? Baietz. Holako gaztea ezagutzen ote zuen? Baietz. Bada, gazte hura injinerua bera zuan. Honek jarri nahi izan omen zian "listero" [lanetako kontrola zeraman langilea], orduan lan oso preziatua. Baina gure birraitona analfabetoa zuan. Ez zian batere eskolarik, ez zekian eskribitzen eta leitzen. Ezin jarri! Hala ere, artilleroaren jorjala ipini omen zioan hari. Pioia izan arren, artilleroaren jorjala. Gure aittonak kontatu zidan moduan, bere aittek bere buruari hitza eman omen zian umeak, izaten bazituen, eskolarik gabe ez zirela geratuko, ez horixe! Eta horrela izan zuan, gure aittonak –Luisek– eskola zian. Letra ikusi egin behar zitzaioan hari! Letra kaligrafiakoa zian hark. Eta lau erregelak ere ezagutzen zitian, sumar, restar, multiplicar y dividir. Aitonaren bi anaiak (Antonio eta Domingo) mikelate izan zituan, haiek ere eskolarekin eta bi arrebak, Romualda eta Maria Andresa, moja. Bost anai-arrebak izan zitean eskola.*

Tiburtzio Ordozgoiti burdinbideko lanak bukatu eta sei urtetara ezkondu zen, 1870ko otsailaren 22an, Fermina Ormazabal Insaustirekin eta ikusi dugunez Oaruzako tunelean emandako hitza bete egin zuen. Ez zen izan hura trenbidearen lanak Errotaberrin sartu zuen lehen berrikuntza. Erlojua eta ordutegiaren beharra burdinbidea



Fdo. Pradere. Segura

zabaltzeko lanean hasi eta gutxira suertatu baitzen. Egunero egin behar Tiburtziok Tunel Handirako bidea, han eguna argitu bezain pronto lanean hasteko. *Esnatzeko ordua zehatz jakin behar! Hor dagoen Erloju hori orduan erositakoa duk. Gauean, bidearen bestaldera joan eta egoten omen zituan Segurako elizako erlojuaren kanpaiak entzun ahal izateko, horrela jakiteko zer ordu zen. Herriko kanpaiak entzun behar ordua jakiteko. Orduan erosi zitean erlojua. Ordua jakin behar lanera, hemendik ia bi ordu eginda oinez joanda garaiz iristeko, egunero-egunero.*

Trenaren lanak Segurako bizimodua aldatu zuten, behar eta ofizio berriak sortu ziren. Hala nola erlojugileena. *Erlojua Seguran egina duk. Esferan dioen bezala: "Fernando Pradere", "Segura". Burdinbidea egiten hasi zirenean jarri omen zuan Segurara bizitzera eta lanera, plaza ondoko etxera. Orain gure arreba bizi den etxean. Erlojugileak horrela esaten omen zituan, bera frantsesa izanda, "frantsesen etxera hurbildu eta etxe ingurua laneko egurrez eta zaborren zikina ikusten baduk, fidatu hadi. Etxe ingurua garbia bada, orduan ez fidatu". Hura hil zenean ere egin omen zitean. Orduan hemen, Seguran, hala moduz jende asko. Zer ikusiko jendea. Pradere hura hil zenean, hura ikustera joan behar, zer ikusteko. Eta merinoa, aguazila –orduan merinoa esaten zitzaiean–, merino zaharra, Lindorekin eta halamoduzko bestelakoren bat izango zituan gorpua preparatzen. Eta jendea zain. "Lasai, esango dizuegu prest dagoenean, orain preparatzen ari gaituk eta". Gauza duk hilotza jarri omen zutela ate ondoan, zutik; piparekin eta kapeluarekin, bere trajearekin jantzita. "Beno, libre dago". Zain zeudenak behetik gora lasterka, eskaileratik gora, iritsi eta hura ikusi zutenean..., mekahuen, hura izan zuan jendeak korri egitea. Kristoren eskandalua jarri omen zitean.*

Trenbideko lanak bukatu eta hurrengo urteetan, han sortutako lan koadrilak beste herri lanetara joateko ohitura hartu zuten sasoikako langile moduan. Burdinbidearen lanetan ibilitako kontratistek herri lanak hartzen zituzten kontrata moduan eta hauek gauzatzeko baserriarren artean sasoikako beharginak biltzen zituzten. Norberaren baserriko lanak etxekeekin egin eta familia aurrera ateratzeko ezinbestekoak ziren soldatak sasoikako lanetan irabazteko. Gisa horretako herri lanak, errepideak, burdinbideak, meategietako



Artzain Onaren eliza eraiki berria

denboraldiko lanak falta ziren urteetan uzta lana zegoen lekuetara jotzen zuten lan koadrila haiek.

Gure Segurako aitonak, Luis Ordozgoiti Ormazabalek bere aitte Tiburtziok egin zuen moduan, oso gaztetan heldu zion lanari. Hamaika, hamabi urteko mutikoa –1877an jaioa zen–, Donostiako Artzain Onaren katedrala eraikitze lanetan ibili zen, itzain bere aitarekin batera. *Birraittona Tiburtzio eta aitona Luis ibili zituan biak Artzain Onaren katedrala egiten, harri karreoan, idiekin Buen Pastor elizarako harriak garraiatzen. Gure aitonak besteak baino bidai bat gehiago egiten omen zian. Zergatik hark, mutikoa oraindik, ez zian karga handirik izango, pisu gutxi eta itsasgora zenean Ibaetako horretan, garaian zubirik ez eta hura guztia padura, ur goratan idien kopeten gainean pasatzen omen zian ibaia Igeldoko harrobirako, hutsik, bueltako bidaia egiten zianean. Idiek erdi igerian eta aitona haien gainean pasatzen zian. Idien buruetan jarri mutikoa eta horrela gurdia beste aldera pasatu. Bidaia bat gehiago egiten zian hori tokatzen zenean. Egindako bidaien arabera soldata jasotzen zuten gero, Luis umeak zertxobait gehiago irabazten zuen.*

Aitona eta birraitona ez ziren izan segurar bakarrik lan horietan ibili zirenak, gehiago izan ziren, horietako bat Imanol Lartzabalek musikatu zuen poemako ene Segurako aitona, Mikel



Luis Ordozgoiti soldaduskan 1898

Azurmendiren aitona, Buen Pastorreko lanetara joana eta Igeldon ezkondu zena. *Tiburtzio eta gure aittona Luis Artzain Onaren lanetan aritu bitartean, birraitona eta aitona gure birraitonaren anaia baten etxean izan omen zituan apopilo Donostian. [Joan Mari Ordozgoiti Arrondo, Tiburtzio baino bi urte gazteagoa eta Damiana Lasarekin Donostian ezkondua] Birraitona Tiburtzioren anaia hori okina omen zuan Donostian, eta haren etxean bizi izan omen zituan.*

Luis izan zen Errotaberrin soldaduska egin behar izan zuen lehen belaunaldia. Galizian egin zuen eta ez zitzaion suertatu bakarrik 3 urteko soldaduska egin behar izatea. 1898ko abuztuaren 12an Luis itsas zabalean zen Kubako gerrarako bidean, ontzietan zirela Atlantikoaren erdian konboiak buelta eman zuen amerikanoek espainolei gerra irabazi zitelako. Soldadu haiek, eta haien artean Luisek, poza hartu zuten gerrara ez joateagatik, horrenbestearino baten batzuei

eskapatu omen zitzaie la "biba" ozen bat eta lehorrerako bidaia beldurrez egin omen zuten pentsatuz iritsitakoan kastigatu egingo zituztela. Zorionez ez zitzaien ezer gertatu.

Gure Segurako aitona soldaduska bukatu eta Errotaberrira bueltatu berritan, Plazaolako burdinbidea egitera joan zen. Hasiara hartan, 1902an, Plazaolako burdinbidea Leitzarango bailaran Berastegiko lurretan den Bizkotx meategia (Plazaola) Andoainen Norteko trenbidearekin lotzeko egin zen. Meategietarako burdinbidea zen. Eta lan haietan gure aitona Segurako lan taldearen burutza hartu zuen, kontratista baten eskutik joan ordez, aitona eta bere lagunek talde moduan antolatzea erabaki zutelako. Luisek idazten eta kontuak egiten zekien eta bera jarri zuten talde buru. *Aitona ere ibili zuan burdinbidea egiten. Hura Plazaolan ibili zuan. Garai hartan lan koadriletan egiten zitean beharra eta aitona enkargatua izan zuan. Lan-koadrilaren enkargatua,*



Tiburtzio Ordozgoiti, Fermina Ormazabal, aiton-amonak, Luis Ordozgoiti eta Antonia Aizpeolea senar emazteak eta seme alabak, Errotaberrin, 1923ko argazkia

leitzen eta eskribitzen jakin zekielako. Han zirela, koadrilako bat istripuan hil eta gorpua eraman zitean hilerrira, Andoainera. Lurra eman ziotean. Eta orduan konturatu lurperatu zutela patrikan denboraldiko soldata zuela. Aittona sartu omen zuan, beste batzuekin batera, kanposantuan gauez. Larri. Tristeia. Baina, egin-eginbehar, dirua guraso eta alargunari emateko. Joan lanera, hil eta gainera denboraldi osoko dirua galdu. Aittonak esaten zian, horrelako lan istripu batean –arestiko berean izango zuan– hilzorian zen lagunak, aittonaren adiskide eta lagun mina gainera, apaiza eskatu aitortza egiteko. Apaiza iritsi ez eta azkenean aittonak berak konfesatu izan zian. Eta apaizak eman omen zioan libertatea. Horrelako kasuetan, egin omen zitekeela.

Lan denboraldi horretako oroitza guztiak ez ziren hain txarrak. Gure aitona zenak gogoan zituen ere bestelako pasadizoak, Luisek Errotaberriko sukaldean entzun zizkionak eta kontatzen dizkigunak. Plazaolako lanetan kuadrilan zuen Merkategi –baserri hori Seguran, Mutiloa bidean duk–. Eta Merkategi horrek indarra izugarria omen zian. Horrela zioan aittonak. Gero Ameriketara joan omen zuan Merkategi hori. Handik urte batzuetara herriko batek, Argentinatik bueltatutako batek, kontatu omen zioan, “zer dek Merkategiz? Hura, aberats batzuk hartu ditek txakur lekuan.

Txakur lekuan? Bai, bai. Beraiekin zeramatek leku batetik bestera”. Urtero han, Argentinan, egiten omen zitean euskaldunek juntaizo bat, festa bat. Horretan gizon bat, kristoren aitona, bazkalondoan etzaten omen zuan lurrean eta desafioa bota, hura altxatzeko gai ba ote zen. Denak ibiltzen omen zituan saiatzen eta ezin mugitu. Han omen zuan Merkategi, aberats horrekin, “hik ere proba egin beharko duk”, esan omen zioan. Heldu omen zian etzanda zegoen gizasemea praka ipurditik eta lepa zabaletik, heldu eta zezenak baino marru handiago atera omen zian airetik bota zuenean. Azken aldia izan omen zuan gizaseme hura horrela jarri zela, gehiago ez zuan azaldu.

Aipatu moduan, Merkategi hori ikaragarria omen zuan. Andoainen, Plazaolako burdinbidea egitera zihoazela, lanera, bi gazte ari omen zituan errailak eramaten, batek punta batetik besteak bestetik. Zuek ere proba egin nahi baduzue, erronka bota omen zitean. Merkategik erantzun omen zian, “hori esku batekin...”; “Esku batekin? Egin ezak, babo arraioa”; “Egin behako duk”, esan zioan gure aittonak, eta hara non Merkategik heltzen duen eta airetik botatzen duen. Ikaragarria omen zuan. Horrelako historiak hamaika zitian aittonak. Gu mutikoak gintuan orduan eta ez geniean kasu gehiegirik egiten. Orain ez bezala, ez diek kasu egiten mutikotan! Orain penatu egiten gaituk.



Plazaola trenbidearen tunel bat



Koldo Mitxelena Errenteriako semea Euskara Batuaren gidari eta lemazain. Zergatik?

Miren Azkarate
(Euskaltzaina)

Hizkuntza *Politika* edo *Hizkuntza Plangintza* terminoak ezagunak egin zaizkigu euskaldunoi azken hogeita hamar urte hauetan. Ikasi dugu, halaber, Corpus Plangintzak eta Estatus Plangintzak osatzen dutela Hizkuntza Plangintza. Hau da, erabilera-mota eta erabilera-esparru guztietara hedatu behar da hizkuntza; hizkuntzak funtzio guztiak bete ditzan beharrezko neurriak hartu behar dira (estatus plangintza). Baina horretarako, jakina, hizkuntza bera prestatu behar da; eskolan, hedabideetan, administrazioan, osasun-zerbitzuetan... erabiltzeko gaitu behar da; euskarari dagokionez (eta, oro har, gurea bezalako beste edozein hizkuntzari dagokionez) aldaera estandarra lantzea izan zen lehen eginkizuna, euskara batua deitu diogun aldaera izatea.

Horretarakoxe sortu zen Euskararen Akademia, Euskaltzaindia, 1918an; orduan Luis Eleizalde euskaltzainak Oñatin egindako hitzaldian “aspecto social” eta “aspecto literario” izenez eman zuen aditzera gaur estatus plangintza eta corpus plangintza deitzen duguna eta horregatik ditu hasieratik Euskaltzaindiak bi sail nagusi: Jagon Saila, euskara “zaintzeaz”, euskararen gizarteratzeaz arduratzen dena eta Iker Saila, euskara aztertzeaz, ikertzeaz arduratzen dena.

Azken honi heldu zion bereziki Euskaltzaindiak eta hiru ardurak nagusi hartu zituen 1919an: a) ortografia finkatzea; b) hiztegia eguneratu eta osatzea (garai hartako bizitzako kontzeptuak adierazteko behar ziren neologismoak, hitz berriak sortzea); c) lurralde guztietako euskaldunak batuko zituen *euskara literarioa* osatzeko lanari ekitea, beti ere tokian tokiko euskalkiak errespetatuaz eta hauek ordezkatzeko borondaterik gabe.

Azken eginkizun hau ageri da 1920an onartutako estatutuetoako 6. artikuluan ere (Euskaltzaindiaren Sortarauak). Eta egiaz ekin zion lanari Euskaltzaindiak: ez ordenagailurik, ez informatikarik, ez corpusik ez zegoen garaietan, inkesta zabala egiten hasi zen euskaraz, euskalki batean eta bestean, formarik hedatuenak zein ziren jakin nahian: fonetika, morfologia eta lexikoari buruzko galderez osatutako *Erizkizundi Irukoitza* (Triple Cuestionario) prestatu, inkestagile-taldea antolatu eta euskararen zazpi lurraldeetako euskaldunei egin galde-sorta bera. Euskaltzaindiak berak argitaratu zuen lan erraldoi horren emaitza 1984an Iker bilduman, Ana M^a Etxaidek paraturik. Gerrak eten eta zapuztu zituen lan horiek guztiak.


Guk ezagutzen dugun batasunaren aldeko lana 1968tik honakoa da. Urte hartan, sortu zela 50 urte bete zirenean, Euskaltzaindiak Arantzazun egindako Kongresua hartzen dugu euskara batuaren hasieratzat. Orduetik aurrerako bidean hartutako erabakietan gidari nor izan zen galdetuko bagenu, uste dut euskararen munduan gabiltzan guztiok (edo ia guztiok) bat etorriko ginatkeela Koldo Mitxelenaren izena ematean. Zergatik? galde dezake batek baino gehiagok; izan ere, 1987ko urrian hil zen Mitxelena eta haren lana, batasunaren historia oro har, ezezaguna gerta dakieke euskara batua aski egina aurkitu duten belaunaldi gazteei. Zergatik? horri erantzun nahi diote orrialde hauek.

Garai hartan gertatua hobeto ezagutu eta ulertzeko, beharrezkoa zaigu nolako giroa zegoen jakitea. Besteak beste, komeni da argitzea ez zela Euskaltzaindia bera izan, bere baitatik, batasun-bideari ekitea erabaki zuena.

Hamabi urte lehenago, 1956ko irailean izan zen *Euskaltzaleen Bilkura Arantzazun Euskaltzaindiaren itzalpean* batzarra zela eta, "Karta idigia" idatzi zien Txillardegik "Arantzazun biltzen zeraten guziori". Euskararen beheraka gorriaz kezkatu ageri da Txillardegi (Mitxelenak berak ere antzeko kezka azaldu zituen biltzar hartan). Geroz eta ahulago zegoen euskara ahozkoa, eta literatura-lanetako euskara ere beheraka zihoan; hala zioen Txillardegik. Horri aurre egiteko zer egin behar zen ere, ez zuen zalantza handirik: "Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko. Egia esan, eta euskeraren sufijatzeari eskerrak, berritze ederra egin diteke euskera beretik atera gabe, ta au egin bear da al denetan. Bañan asmakari ta kontzetu berri ugari ekarri dizkigu zibilizazioak, oso itz berezi, ta euskera "garbia" egiteko asmoa txatxukeria utsa da, izkuntza batek ere egin ez duena, eta gure izkuntzan gertatuko ez dan gauza".

Eta handik bi urtera, 1958an Bilbon egindako Euskaltzaleen Batzarrean "Batasunaren bidea" izeneko txostena aurkeztu zuen Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegik", proposamen zehatzak eginaz ze neurri hartu beharko liritekeen deklinabidean, joskeran, hitz berriei eta maileguei dagokienez, maileguak egokitzeko moduz... Baina artean Euskaltzaindiak ez zuen ikusten lan horri ekiteko giro egokirik. Berrito ere Koldo Mitxelena izan zen, Txillardegik txostenaren aurkezpena amaitu eta, hauxe erantzun ziona: "Nire ustez, alegia, gutxi gora bera bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekeanik" (*Euskera* IV, 1959: 171).

Baina hazia ereinda zegoen eta mugaz alde bateko eta besteko idazleek osatutako *Euskal Idazkaritza Elkarte*a izan zen 1964an Baionan egindako bilkuran akordio zehatzak hartu zituen idazkeraz, deklinabideaz, aditzaz eta baita "H" dun hitzen zerrenda bat osatu ere. Beren idatzietan akordio horiek betetzeko erabakia izan zen, praktikan, euskara batuaren ernamuina. Baionan hartutako erabakiak Euskaltzaindiari bidali, batasunaren gidaritza hartzera dei egin eta hortik sortu zen 1968ko Arantzazuko Biltzarra. Mitxelenak berak ere hala aitortu zuen 1977an *Deia* egunkarian argitaratutako "Jaioko dira berriak" izeneko artikuluan: "Gauza jakina da, edo behar luke izan, Euskaltzaindia batasun bideetan barrena abiatu zenean, jendearen (euskal idazle eta irakasleen, ez euskaltzale platonikoen) orroak bultzaturik abiatu zela. Mende erdi batez sortu zuen eskariari uko eginaz bizi ondoren, euskararen



Mitxelena. Ayalde, 1967

batasunerako izan baitzen sortua, bestetarako baino areago Oñatiko batzarrean".

Nori eskatu zion Euskaltzaindiak Biltzar hartarako txostena, ondorengo eztabaida eta erabakien oinarri izango zena? Koldo Mitxelenari. Zergatik? Bera zelako hizkuntza-gaietan jantziarena, zalantzarik gabe, unibertsitate-ikasketak zituena, doktore-tesia egin zuena euskal fonetika historikoaz, ordurako lan garrantzitsuak argitaratu eta Europan itzal handiko hizkuntzalari eta filologoa zelako. Antonio Tovar Salamancako katedradunaren zuzendaritzapean idatzitako *Fonética histórica Vasca* tesi-lan mardulaz gain, kaleratuak zituen *Lenguas y protolenguas*, *El Pasado de la Lengua Vasca*, *Textos Arcaicos Vascos*, *Historia de la Literatura Vasca* edo *Apellidos Vascos*.

Erreterian jaio zen hizkuntzalari, filologo, euskalariak utzi zigun lan erraldoia zenbaterainokoa den jabetzeko hortxe dago 2010. urtean argitara eman zuten Mitxelenaren lan osoa 'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. 15 liburuki, hizkuntzalaritza historikoaz, hizkuntzalaritza orokorrak, euskal hizkuntzaz, Onomastikaz, Lexikografiaz eta lexikoaren historiaz, euskal literaturaz, eta abarrez idatzitakoak biltzen dituztenak¹.

1. Bilduma horretako X liburukian aurkituko ditu, interesa duenak, hemen aipatzen ditudan Mitxelenaren artikulua. Beste batzuk, berriz, Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Alberdaniak 2001ean argitaraturiko *Mitxelena gure artean* bilduman.

Nekez eztabaida zitekeen, beraz, haren pres-takuntza "teknikari lana" egiteko, berak handik urte pare batera aitortu bezala. Batasunaren aurka zeudenen erasoak irakurri ondoren, "Pro Domo" izeneko artikulua argitaratu zuen *Egan* aldizkarian 1970ean. Gaur ere irakurtzea eta gogoan hartzea merezi duen lanean, hauxe idatzi zuen: "Erabakiak, nik uste, ez dituzte inolaz ere teknikoek hartu behar, politikoez (...) baizik: herriak horretarako hautatu dituen politikoez, noski. Teknikoen lana erabaki horiek ahalik errazen, lasterren eta ekonomikoen, nolarebait esan, eragitea da. Hizkuntzalaria ere, hizkuntza gaietan, ez da tekniko bat besterik. Euskal jendeak, gero eta ugariago, zerbait nahi zuela iruditu zitzaidan. Jomuga horretara jotzeko erosoan uste nuen bidea hartu nuen, besteren mandari bezala, ez neure kabuz. Ez nintzen, beraz, teknokrata izan, baizik tekniko soil. Gaitasuna, tekniko izateko beharrezko dena, edonork uka dezake: edonork, nik neure aldetik (eta bestek beretik, ez bainintzen, ez hurrik eman ere, ni bakarrik mintzatu han) aurkeztu nuenaren aldamenen, nik aurkeztu nuenaren kontra, nahiago baduzue, beste zerbait aurkezten baldin badu. Hona ene "desapioa": kontu hauek jendaurrean astindu nahi dituenak, prest gauzka, uda aldean edo, jendaurrean ahoz aho eta aurpegiz aurpegi aztertzeke. Donostian, bestetan ez bada, idoroko dugu leku egokia horretarako. Baina, hau bego garbi, bere aldetik zerbait ekarri beharko du eskaintzeke, okerragoaren truk. Ez dadila esku-hutsik ager, aski esku-hutsik baikaude euskaldun guztiok". Esan beharrik ez dago, inork ez ziola erantzun "desapio" hari.

Lau ildo azpimarratuko ditut eta nabarmendu Mitxelenak euskara batuari egindako ekarrian. Lehena, batasunaren beharra aldarrikatzea. Aipatu berri dudana "Pro Domo" artikulua ezin hobea da garai hartako giroaz jabetzeko. Izan ere, Euskaltzaindiak batasun-bideari ekin izanak ez zuen esan nahi, inola ere, euskaltzale guztiak, euskal hiztunak oro har, batasunaren alde zeudenik. Mitxelenak berak hor aipatzen dituen *Zeruko Argia* aldizkariko artikuluetan ikusten den aurkakotasunaz gain, aski dugu Bixente Latiegik eta Dunixi Oñatibiak 1982an argitaratu zuten *Euskaltzaindiari epaiketa* liburuko hainbat pasarte irakurtzea, edo hurrengo urtean gaztelaniaz kaleratu zutenari *Euskaltzaindia el batua y la muerte del euskera*. Nahikoa argiak dira izenburuak, baina, zalantzarik izanez gero, horra lerro batzuk zer pentsatzen duten jakiteko: "Kezka gogo-zigortzalle biurtu zaigu, euskaldunoi,

joandako mendearen amaia ezkerro Izkuntzaren Batasuna, eta nire ustez batere arrazoirik gabe, Euskerak –nire ustez–, ez bait du ezertarako batasunik bear. Ez behintzat bizitzeko. Batasunik gabe bizi izan da orain arte. Izkuntza bateratuz inguratua egon oi da beti. Il dira izkuntza aundi, gogor, indartsu, "zeatz bateratu" aiek danak. Guzti aietatik euskera bakarrik bizi da oraindik: "bateratu gabeko" izkuntza!".

Horixe zen, beraz, lehen lana: batasunaren beharra lau haizetara zabaltzea, batasunaren beharraz konbentzitzea euskal jendea. Eta horrelaxe hasi zuen, hain zuzen ere, Arantzazuko biltzarrerako prestatu zuen txostena (Euskaltzaindiaren webgunean Arauen ataleko lehena, "Ortografia" izenekoa): "Ezin-bestekoa. il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea". Eta ideia bera errepikatuko du gehiagotan ere. 1970eko "Pro Domo" artikuluan: "Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskarak iraun dezan, ez hurrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez baitu iraungo, bizi garen oraingo eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde zurretik. Eta hau ez da ene uste ustela, euskaldun anitzena baizik. Galda iezaiozu edozein hizkuntzalariri eta ikusiko duzu zer erantzungo dizun". Edota 1977an *Deian* argitaratutakoan: "Eguzki argia bezain argi ikus daiteke batasunik gabe ez dugula bihar edo etzi euskararik izango: batasuna ez da aski den baldintza, baina bai premiazkoa eta ezinbestekoa, hizkuntza biziko baldin bada".

Ez zegoen bakarrik, jakina, batasunaren aldeko aldarrian. Ondoan zituen Txillardegia, Aresti, Baionako Biltzarreko idazleak eta, oro har, gazteak. Hala ere, hamaika nahigabe ekarri zizkion batasunaren aldeko jarrera honek; "Pro Domo"n aitortzen du: "Maizegi pentsatu dut euskalduntasunari edo delako arbasoengandik datorkidan grina horri hain loturik ez banengo, lasaiago biziko nintzatekeela eta are agian nagoen baino diruz hornituago nengokeela". Pentsatu, agian, pentsatuko zuen, baina horrek ez zuen bere bidetik aldendu. Mitxelenak berak azalduko digu zergatik, Patxi Altunak prestatutako *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* bildumarako idatzi zuen "Azken ordukoak" testuan: "Behin eta berriz esana dut ez nintzela neure gogoz sartu saltsa horretan, besteren eskez eta bestek bortxaturik baizik. Ongi baino



Mitxelena 1984ko Kilometroetan.

hobekiago bainekien, batere atsegin ez zitzaidan erantzunbeharra bizkarreratzeaz gainera, nolako lokatzetan sartzen nuen neure burua. Besterik ere gehitu behar dut, ordea. Azken buruan, ez ninduten bulkatu, nerau sartu nintzen neure baitarik. Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen. Eguzkiaren argia baino argiago agertzen baitzen norbaitek abiatu behar zuela eta, inor sartzekotan, nola egingo nion neronek uko deiarri? Hauxe da gerra aurretik, gerratean eta gerra ondoan ikasi dudana: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokela besteri agin. Gogorik gabe eta gogo gaiztoz hasi nintzen, beraz; ez, ordea, kontzientziak eskatzen eta are agintzen zidanaren aurka". Ezin argiago esan.

Azpimarratu nahi dudan bigarren ildoak: argi erakustea euskara batua zertarako zen. Arantzazuko txostenean, batasuna ezinbestekoa zaigula aldarrikatzeko da lehen perpausa. Eredu batua zertarako? galderari erantzuteko ondorengoak: "Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenekin batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago". Berdin "Aditz Batuaz" txostenean 1972an: "Hizkuntza batuaren eredu hori *izkribuz* erabiltzeko da, noski, gero aho-

hizkuntza bihur baledi ere. Eta izkribuz diodanean, lehen esan izan dudan legez, irakaskintzaz ari naiz batez ere, gainerako hizkuntza idatziaren bideak batere gutxietsi gabe". Handik ia hamar urtera ere horixe nabarmenduko du: "Batua, noski, ez dugu non eta noiznahi erabiltzeko behar, zenbait izkribu mota edo erabil-mailarako baizik. Baita ere, bidenabar, han-hemengo euskaldunok elkarrekin hizketan hasten garenean ez dezagun berehala jo, maizegi gertatu ohi denez, erdara batura" ("Jaioko dira berriak").

Hirugarrenik, euskara batuak egin beharreko bide osoa aurreikusi zuen Mitxelena Arantzazuko txostenean eta errazenetik zailenera zerrendatu zituen: idazkera edo ortogafia; antzinako euskal hitzen formak; hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen formak; morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza; joskera. Eta ez zuen aukera galdu hizkuntzaren batasunak egin beharreko bidez zein zen oroitarazteko, Euskaltzaindiak *Euskararen Liburu Zuria* egin zuenean: "Bizkortu nahi den hizkuntzak eredu berdindua izan beharko du nahitaez, eta, ahal delarik, batua: ñabarduren mugarriak, desiragarri bezain halabeharrezkoak, arau batzuen barnean hesitu beharko dira. Berdintze lan honek hitzen egokitzea (hitz eratorpena eta konposaketa, ez deklinabidea eta aditza bakarrik) eta sortzea, inoiz ez *ex nihilo* sortua, bideratu beharko du, eta, azkenean, hizkuntza maila guztietara zabaldu, idazkeratik (beti ebakitzeari atxikia) sintaxi eta perpaus barruko hitzen joskeraraino" ("Euskararen bide luze bezain



Mitxelenaren eskuidatzia Salamancatik Euskaltzaindira, 1968.

malkarrak”, 1978). Berak zuzenean idatzitakoak dira, urte horietan zehar, “Aditz batuaz”, “Aditz laguntzaile batua”, “Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz”, “Udal izenen ofizialtasuna”, *Udal izendegiari hitzaurrea*, “Mailegu berrien idazkera”, “Hitz mailebatuez”... Bide horretatik aztertu eta onartu zituen Euskaltzaindiak maileguz hartutako hitzak egokitzeko arauak, eta bide horretatik sortu zen eta lan egin zuen lexiko-irizpideak finkatzeko batzordeak, edota Gramatika Batzordeak.

Mitxelenaren ekarriaren laugarren ildoak, batasunerako erabakietan soziolinguistikaren irakaspenak kontuan hartzea. Aditz baturako hautua egitean ikusten hori da ongien, esplizituki aitortzen baitu zein irizpidek duen indarririk handiena. Euskaltzaindiaren hasierako urteetan Luis Eleizalde bazekien aditza izango zela auzirik zailenetakoa; berdin uste zuen Mitxelenak ere eta horregatik zioen: “bi motatako arrazoiek behar dute izan gidari hautatze horretan: arrazoi linguistikoek, hizkuntzaren egituraren bertan finkatuek, eta arrazoi, nolabait esan, soziolinguistikoek. Dударik eta zalantzarik gabe uste dut (...) azkenekoen pisuak behar duela izan nagusi egiten den bereizketan. Besteek dutena baino larriagoa baita. Bestela esan, batak ez daude besteen ondoan jartzeko neurrian, ezta

alderatzeko ere. Hori horrela delarik, eta nahiago nuke besterik esan, Gipuzkoako aditza hartu behar da oinarri, ezpairik gabe. Gipuzkoa eta Nafarroa garaikoa” (“Aditz Batuaz”, 1972).

Eredu baturako formak hautatzean, beraz, soziolinguistikako irizpideei eman zien lehentasuna. Soziolinguistikaren argitan zekien, halaber, Arantzazuko txostenaren hasiera-hasieran baieztatu zuena, euskara biziko bada, euskaraz irakatsi beharko da. Beste hitz batzuetan esanda, ezinbestekoa zitzaion euskarari irakaskuntzara hedatzea; baina horretarako, irakasleak eta, batez ere, gurasoak irabazi beharko dira batasunerako: “Batasunaren aldeko indarra, idazleak dira batik bat, idazle “ikasiak” nolabait esan. Ez dut nik gutxietsiko idazleen indarra, baina, batasuna ametsen erresumatik gure lurrera jatzeko baldin bada, ikastolen laguntza nahi eta nahiezkoa dugu. Hori bistan dagoela deritzat (...). Ikastolez mintzo bagara, irakasleak gureganaturik bageneuzka ere, deus gutxi dira oraingoz gurasoan aldean, sartagia hauen eskuetan dagoelarik. Gauzarik aski ez dakit, baina ez ote da dagoeneko istilu garratzik sortu arlo honetan?” (“Aditz batuaz”, 1972). Arrazoi zuen, berriro ere, eztabaida eta haserre gogorren iturri izan baitzen zein eredu erabili behar zen ikastoletan, batua ala euskalkia. Zorionez, 1980an sortu zen Eusko Jaurlaritzak ez zuen zalantzarik izan zein eredu arautu behar zen irakaskuntzan. Garai hartako Hezkuntza sailburuak, Pedro Miguel Etxenike nafarrak aholku-emaile eta adiskide izan zuen Koldo Mitxelena. Hor jaitsi zen euskara batua ametsen erresumatik gure lurrera eta irabazi etorkizuna.

Askotan aipatu dira azken urteetan Mitxelenaren hitz hauek: “Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia” (‘Euskararen bide luze bezain malkarrak’ *Euskararen liburu zuria* 1978). Argi izan zuen batasuna zela horretarako lehen urratsa, nahiz hori ere aski ez izan: “batasuna eginik ere gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde aurretik”. Buru-belarri lotu zitzaion eginkizun horri kontzientziak hala agintzen ziolako, bere eginkizuna zelako. Koldo Mitxelena Elissalt errenteriarrek egin zuen bere parte. Orain guri dagokigu lanean jarraitzea euskarak iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia izan dezan.

Mi primer encuentro con Ignacio Ubiria

Josu Mitxelena

Presidente Asociación de Cultura Musical de Errenteria

En vísperas de que el próximo año de 2014 la banda de música de la Asociación de Cultura Musical, nuestra banda de música, cumpla su 150 aniversario, nos dejaba uno de sus más respetados directores; una pieza básica para entender el movimiento musical de nuestra villa, Ignacio Ubiria. Así es como yo recuerdo nuestro primer encuentro.

Como en tantos y tantos momentos, a veces una llamada puede dar un giro inesperado a nuestra vida. Corría el año 1984, era mediodía cuando sonó el timbre de la casa de mis padres. Yo mismo abrí la puerta. Al otro lado me encontré con el director de la banda de música de la Asociación de Cultura Musical, Ignacio Ubiria. Con semblante serio se dirigió a mí y me dijo:

–Hombre, contigo quería hablar yo. Buenos días.


–Buenos días –le respondí, y pasamos a la sala.

Me comentó que tenía conocimiento de que yo estaba cursando estudios de flauta en el Conservatorio de San Sebastián y, acto seguido, me propuso integrarme en la banda de música de la asociación. He de reconocer que la proposición me pilló por sorpresa. Era todo un honor el hecho de que el director de la banda de música de nuestra villa se dirigiera a mí proponiéndome integrarme en ella pero, sinceramente, no me lo esperaba.

Quedamos en que le daría una respuesta al día siguiente pero, justo antes de que saliera por la puerta, le respondí que sí, que me hacía mucha ilusión formar parte de la banda.

Pero Ignacio Ubiria no era una persona que dejara nada al azar. De este modo me expuso que

antes de acudir al primer ensayo de la banda, quería cerciorarse de cual era realmente mi nivel instrumental, independientemente del nivel que cursara en el conservatorio, y me citó en su casa para realizarme unas pruebas técnicas. Al día siguiente allí estaba yo, en el primer piso del primer portal de la calle Santa Clara, tengo que reconocer que un tanto nervioso, listo para pasar la prueba a la que me quisiera someter Ignacio Ubiria. Abrió la puerta y me invitó a pasar. De inmediato sin mediar palabra, descolgó un teléfono, me lo puso en el oído y me preguntó:



– Dime, ¿qué nota es la que está dando el teléfono?

Se refería al tono que dan los teléfonos cuando los descolgamos. La maniobra del teléfono me había dejado desconcertado, pero debía dar una respuesta. Más que escuchar el tono del teléfono, pensé con lógica cual debería ser la respuesta correcta y recordé un artículo que había leído al respecto (aquél artículo versaba sobre el La que dan los teléfonos al descolgar) y le respondí:

– Es un La.


Ubiria cogió el teléfono y lo colgó. Esa era su primera prueba. Y es que, para Ignacio Ubiria, todos los sonidos que nos rodean son música. Era como una obsesión para él. Una obsesión de la que le era muy difícil abstraerse y que yo mismo, tal vez por su influencia, comparto en cierta medida.

He de reconocer que la figura del director Ignacio Ubiria despertaba cierta atracción en mí. Me llamaba poderosamente la atención la fuerte personalidad, ese punto de arrogancia, la seguridad que emanaba. Lo cierto es que, en los tres meses que acudí a su casa tras aquél primer encuentro, pude aprender más solfeo que en los cinco años que cursé con anterioridad en el conservatorio. Y ese fue, como se narra en los grandes relatos, el inicio de una larga relación. Una relación que me llevó a ingresar en la banda de música de la Asociación de Cultura Musical en ese mismo año de 1984 y... hasta la fecha.



Para finalizar, sí quisiera dejar constancia en el presente artículo, de la inestimable labor que realizó Ignacio Ubiria en el movimiento de enseñanza musical de nuestra villa en general y, más en concreto, en el movimiento bandístico a través de la Asociación de Cultura Musical de la que también fue presidente. Ubiria fue un director implacable, exigente, que mostró un altísimo nivel técnico a lo largo de su carrera y que, hoy en día, es recordado como uno de los mejores directores que han tomado la batuta de la banda de Erreterria. Un hombre que generó admiradores y detractores a lo largo de su trayectoria profesional pero que, como señalaba al inicio de este artículo, fue una pieza básica para entender el movimiento musical de nuestra villa. Un hombre con un método pedagógico de enseñanza, o mejor debería decir, con un método de enseñanza falto de pedagogía, pero de un incuestionable nivel técnico.

En definitiva, un gran músico y un excelente director. Un hombre que se entregó apasionadamente a su gran vocación: la música.



El Motor, motor de una vida

Agustín García

Fotos cedidas por Mikel Huarte y Agustín García

Durante años, y desde el punto de vista de la participación, el deporte del motor tuvo mucha e importante implantación en nuestra villa, con pilotos que alcanzaron notable consideración tanto a nivel regional como nacional.

Cuando el año pasado en la revista *Oarso* se publicó un artículo escrito por Ángel Elberdin sobre la Escudería Touring, pensé que también sería bonito acercarnos al motor a través de los deportistas, en este caso de los pilotos. Como por espacio es imposible hablar en estas páginas de todos ellos, busqué a uno en quien todos los demás se vieran reflejados.

La primera persona en la que pensé fue en Mikel Huarte, porque creo que es el errenteriarra más representativo en el mundo del motor a nivel individual. A su etapa como piloto (motos y coches), hay que sumar su faceta de impulsor de proyectos (Kezka y Escuela de Pilotos) y organizativa (Bombardier y Fly

Group). Además, estaba seguro de que surgirían otros muchos nombres realizando su recorrido deportivo.

El debut oficial de Mikel en competición fue en una carrera de motocross en las laderas de San Marcial de Irun. Lo hizo con una Bultaco Pursang MK2 prestada por otro entusiasta del motor como Joxe Susperregui. Joxe adquirió la moto a Mario Goretti, un italiano afincado en Donostia. "Suspe" tuvo bastante trabajo en montarla ya que le faltaban varias piezas, entre ellas las ruedas. Se las compraría al bilbaíno José Ángel Mendivil, que con el tiempo se convertiría en una de las figuras nacionales del motocross.

En principio, la moto la iba a llevar Miguel M^a Loyola que, junto a Antonio Blanco, venía participando con sus Derbys 75 Sport en pruebas de velocidad de diversas carreras que se organizaban en distintos pueblos. Los hermanos Rodríguez eran los grandes "cocos" en este tipo de carreras. Tenían



Mikel Huarte con un Alfa 33 en el Campeonato de España de Rallyes de Tierra.



Además de organizar el Motor Show de Hondarribia, Mikel participó en dos ediciones del mismo.

su taller de motos (Motos Eladio) en la calle San Sebastián (junto a lo que fue la discoteca Penny Lane) y pilotaban las llamadas "balas rojas", réplicas de la Derby de Ángel Nieto.

El debut de Mikel Huarte no fue nada afortunado, ya que la moto se incendió. La causa fue, posiblemente, alguna pequeña fuga en el depósito de gasolina que derramara el combustible sobre el cilindro. Entonces las carreras no eran como en la actualidad, y los escasos voluntarios que ejercían como comisarios tenían la misión de señalar las posibles anomalías en la carrera y apenas existían medidas de seguridad en el circuito. Fue el propio Mikel quien intentó apagar el fuego por todos los medios, pero nada se pudo hacer. La moto quedó inservible y allí acabó su trayectoria. La carrera fue ganada, y de manera aplastante, por el vizcaíno Jesús "Txiki" Molina con una Bultaco Pursang MK5 del equipo de Motos Mendivil de Bilbao.

Mikel, que tenía una Bultaco Lobito, decidió vender su moto para compensarle en lo posible a Joxe Susperregui la moto incendiada. Pero "Suspe" que creía mucho en Mikel, le dijo que el dinero que sacase de la venta de la Lobito, en vez de dárselo a él, lo destinara a comprarse una moto de motocross. Le puso en contacto con José Ángel Mendivil y a los pocos días Mikel se iba a Bilbao y visitaba a Mendivil. Saldría de la tienda con una

Bultaco Pursang MK5 vieja, que le sirvió para ganar de manera autoritaria la primera carrera en que participó con ella en el circuito de Sosoka.

Ahí empezaría el largo periplo competitivo de Mikel, al que contribuyeron de manera importante y desinteresada el ya mencionado "Suspe", los hermanos Korta y Javier Andiano.

Por aquel entonces había llegado al mundo del motocross Pedro Etxeberria, que anteriormente había sido ciclista. Fue quien sugirió la posibilidad de alquilar un terreno para entrenar cerca de su caserío, en una zona colindante al cementerio de Zentolen. Allí se estuvo algún tiempo, para luego cambiarlo por otro perteneciente al caserío Darieta en la zona de Altamira.

Mikel y Pedro acompañados por Miguel Martiarena, del Camping "Oliden", en cuya furgoneta se desplazaban a las carreras, participaron en el Campeonato de Gipuzkoa 1974, título que recayó en Huarte, al manillar de una Pursang MK5 nueva. Tanto Mikel como Pedro estuvieron siempre entre los pilotos más punteros de la especialidad.

Los buenos resultados de Mikel animaron la aparición de nuevos pilotos como Ismael Borges, Josetxo López, Juan M^a Mendizabal o Javi Raedo. De ellos, el más destacado sería Ismael Borges



Mikel Huarte en sus inicios.



Cómo puede acabar un piloto en una carrera de motocross en un circuito embarrado.

que se mostró altamente competitivo en todas sus apariciones.

Mikel pasó a ser piloto oficial, primero de Montesa y luego de Ossa, contando con el apoyo incondicional de José Ramón Ayerza y de Motos Ayerza de Donostia. Mikel con Montesa sería subcampeón de Gipuzkoa en 1975. Realizado el fichaje por Ossa, esta marca de motocicletas prometió a Mikel una 125 cc para poder hacer el Campeonato de España de la categoría. Ossa tuvo problemas con la fabricación de la 125, consiguiendo fabricar sólo dos unidades, quedándose Mikel sin montura. Sin embargo, la marca no le puso ninguna traba para que participase con Montesa en el Campeonato de España de 125. Con la Ossa 250, Mikel volvería a proclamarse Campeón de Gipuzkoa en 1976.

En estos años surgiría otra nueva generación de pilotos de motocross con Luis M^a Lazcano "Pita" y Juan M^a Otxoa "Matxi" a la cabeza. "Matxi" sería Campeón de Gipuzkoa en 1978.

Los años 78, 79 y 80 son el periodo de la Escudería Torrolo, con Mikel Huarte como piloto y Toño Blanco en las labores de mánager. De nuevo Toño Blanco aparece en escena del motociclismo para apoyar en lo posible a Mikel, y ambos, en compañía del "Giscard", el perro dóberman del primero

de ellos, recorren la piel de toro, llegando a participar en el Campeonato de España de Motocross de 500 cc. En este campeonato fue muy importante la aportación de Julián González que, gracias a sus conocimientos mecánicos, pudo dulcificarse el comportamiento de la difícil Montesa 500.

101 urte beteko zituen abuztuaren 24an. Ahizpak, izeba Justinak, desafioa bota omen zion: ea bera baino luzarago biziko ote zen. Izebak ez zituen bete 99 baino; hortaz, amamak irabazi, nahiz eta azkenean heriotza izan beti saria. Behin batean, erizain batekin haserretu zen, oso gazte eta *guapa* zegoela esan baitzion doinu amatiar eta mainatiz, ume bati hitz egingo balio bezala. Amamak, gogorra izaki, suharturik erantzun zion: "Zer *guapa* eta zer *guapaoste*! Zaharra, zaharra naiz orain! Baina ez ergela!". Bazekien bere burua errespetarazten. Zaindari hura ere amama baino lehenago joan zen.

Beharbada, kontraesanak zein dotore zermatzen egiten zuen berezi amama: aldi berean zen, esaterako, gorria eta erlijiosua. Elizaren aurka jardun ondoren, ohera sartu eta 20 pertsonaren alde otoitz egiten zuen, gauero, memoriari eutsiz. Betidanik izan bazen ere errepublikazalea, gaztetan korrika zihoan erregea ikustera, festa giroan. Reala eta Osasuna bihotzean eraman arren, Athletic-ekoa. Hori bai, abertzale bezain euskaltzale; horretan tolesik ez.

Amama elegantea zen; azken egunetara arte itxura gorde zuen (onartu behar da itsusiak

ez zituela oso gogoko). Animalien eta landareen zale porrokatua, txoriak etxean hazten zituen. Lorontziak edonon eta katu edo zakurren bat beti aldamenean, Karolina maltzurra bezala, edo Kaiku, txapelokerrei zaunka egiten ziena. Etxea txukundu baino nahiago zuen dekoratu, gustu fina zuen. Eta, oroz gain, gozozale porrokatua izan da; ondorengoei ondareztat utzi digun zaletasuna.

Puntu melodramatiko baten jabe ere bazen amama. Seme-alabek gogoratzen dute gaixotzean biziki urduri jartzen zela, eta, medikuari deitzea nahi ote zuen galdetzen ziotelarik, hark ezetz, medikuari ez, baizik eta apaizari! 30 urte bete berriak zituenen ere, berdin! Bitxia da, kontrasteetara bueltatuz, azkenean apaizik gabe hil izana. Azken asteetan zaindu zuen emakumeak izebari esan zion “cura”

eskatzen ari zela. Baina ez, “ura” zen hil aurretik nahi zuena. Ura baino ez. Urteak aurrera, heriotzari beldurra galdu zion. Elizkizunik ere ez zuen nahi izan; horren orde, bera gogoratzeko bazkari bat ordaindu zigun senideoi.

Nola iritsi 100 urte betetzera? Batzuek garbi janda erantzungo dizute, beste askok kirola eginez, edo meditazioaren bitartez... Amamaren errezeta orijinala izan zen. Denetarik eta ugari jaten zuen, frijituak gustuko zituen, eta, esan bezala, pastelak ere bai: bat jan aurretik bere gustuko beste bat erretiratzen zuen, geroko. Ez zen ariketa fisikoaren laguna, kolore guztietako botikak hartzen zituen, eta ebakuntza eta ebatondo ugari zeukan gorputzean. Umoretsua zen; umore beltzaren zale, zehazki, eta ziur aski horrek luzatuko zion horrenbeste bizialdia.

Hil aurretik oraindik etxean jendea hartzen zuen, apainduta, zutik eta *Gara* irakurtzen. “Lehen hasi eta buka irakurtzen nuen egunkaria, goitik behera”, esaten zuen azken hilabeteetan, “orain iritzi artikuluak baino ez”. Berrito bisitan joatean, Itzuli jauzika etorriko zaigu gainera eta pixaz beteko du korridorea. Izebarekin kafetxo bat hartuko dugu, eta amamaren hutsune handia topatuko.

Aitor joan zenean, bere alaba Ainarak ere Argentinarako bidea hartu zuen amarekin batera. Amamaren etxera orduan eramán zuten zakur emeari Itzuli deitu zioten, Ainarak itzul zedin laguntzeko edo. Eta sorginkeria bete egin zen, birloba ondora etorri baitzitzaion hil aurretik. Eta hemen gelditu da, gurean.

Guk ere amama itzultzea nahi dugu, 100 urte ez baitira nahikoa izan hura ezagutzeko, maitatzeko, haren bizitzako pasadizo gehiago entzuteko. Denbora galdua berreskuratzeko. Horretarako 100 ez dira aski urte. Eta, nolabait, sorginkeria betetzen ari da: joan zenez geroztik bere inguruan gabiltza, haren istorioak gurera ekarriz, argazkiak miatuz, azkeneko egunak gogoratu. Gure baitan dabil, barrea eraginez, harridura, maitasuna. Gertatu da. Gure bihotzetara behin eta berrito itzultzen da Itzuli.



AMAMARI

Gure amama, 100 urteko emakume sendoa,
iraunkorra.

Zumaiarra bihotzez, baina Eibarren jaioa,
eta eibartar guztiak bezala, dotorea.

Markesa izateko jaioa,
bere silloitik, eserita, besteez zer egin behar
zuten esaten ederki zekiena.

Edertasunaren mireslea,
guapoenganako inkondizionala.

Kontu-kontari alaia,
aukera emanaz gero, besotik heldu eta
gaztetako istorioak kontatzen zituena.
Eta gozozale bezain besarkada eta musu zalea,
goxoa eta, aldi berean, karakter handikoa.


Denon amona,
baina Aitorrenganako debilidadea
ezkutatzen ez zuena.

Gehienetan bizitzaren alde ilunari begira
egon arren,
momentu larrietan indartsua, oso indartsua.
Moderna, buru-argia, politikoki abertzalea
eta erradikala,
ia azkenera arte periodikua goitik behera
irakurtzen zuena.

Berezia.

Amama, arraroa da bizitza zu gabe.
Agur amama maitia!

Lore Mendiola Egaña



Inaxito Albisu gogoan

Itziar Aduriz Agirre

Atzo arrats partean. Telefonoa. Ama da, jartzeko. Ezin dut orain, txikia lokartzen ari naiz. Gero deituko diot.

Deitu dut. “Ba al dakizu nor hil den?”. Azken boladan, maiz, gure amarekin dugun hitz-aspertuaren lehen esaldia izaten da hori.

Inaxito.

...

Orain dela bi aste ikusi nuen Erreterian. Semearen dendaren atean zegoen, jendez inguraturik, semea ondoan zuela. Ni presaka nindoan, enkarguak egiten. Gelditu nintzen pixka batean. Aspaldiko hilabeteetan ikusi gabe, ez nion itxura txarrik hartu. Presaka nindoanez eta jendea zuenez, agurtu gabe pasa nintzen, pentsatuz, hurrengoan kasu egingo niola.

Hara ba, hori burutik kendu ezinik nabil. Gure Axularrek esan zuen ba aspaldi: “... zenbat kalte egiten duen, luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak”. Ematen du ez dugula ikasten.

Eta burutik kendu ezinik nabilelako, gaurko pentsatuta neukana alde batera utzi dut eta barruak

eskatzen didana konpartitu nahi dut zuekin. Hau da, Inaxitoren omenez bi hitz esan nahi dizkizuet, batez ere ezagutzen ez zenutenontzat.

Oso sakon ezagutu gabe ere, antzematen zen izaera konplexuko gizona zela, mila kantoikoa.

Lehen begi kolpean ikusten zenion itxura berezia, altua baitzen oso eta argala, ileurdin luzexka, eta bere aurpegia, argala izanik, koska handikoa. Bereziki gogoan dut bere begiratua, zuzena ala zehar begiratua, beti barrurago ikusi nahiko balu bezala. Hori, hizketan hasten zen arte, orduan hasten baitzen festa! Sutsua, kartsua, bakarra.

Herrian maiz ikusten zen kaletik. Denok ezagutzen genuen eta maite genuen. Izan ere, gehixeago ala gutxixeago, esango nuke denok izan dugula aferaren bat, loturaren bat berarekin.

Gaur egunean berrogeita hamar urte inguru dugun erreteriar euskaldunontzat eredu izan zen (batez ere guretzat!). Euskaldun oso izateko egin behar izan genuen esfortzuan erabat lagundu gintuen. Zuzenean ala zeharka. Zuzenean, euskarazko klaseak ematen zituelako eta euskarak herrian aurrera egin zezan behar ziren oinarriak jarri zitue-

lako. Zeharka, guk euskara berreskuratzeko ala alfabetatzeko behar genuen sarea sortu zuelako. Euskara sare sozialean sartzen lagundu zuen, interesgune bihurtuz. Giltzarria izan zen.

Eta izan da, noski. Izan ere, gerora ere eta azken momentura arte euskararen aldeko langile nekaezina izan da. Adibide gisa, hortxe dugu Lau Haizetara euskaldunon elkartearekin zuen lotura estua (ohorezko bazkide izendatu zuten), eta bertako komunikabideetan egiten zituen kolaborazioak.

Gogoan dut Bartzelonako Unibertsitateko nire ikasle bat, Josep del Rio, Errenteriako hizkerari buruz tesia egiten ari zenean laguntza eske joan

gintzaizkionean, zenbat lagundu gintuen adin desberdinetako bertako jendea bilatzen herriko hizkera jasotzeko. Lau Haizetarako guztiak martxan jarri zituen gure emaitza ona izateko. Eta hala izan zen, bere laguntzari esker.

Euskararekiko atxikimenduan aparta baldin bazen, bere aieka bihozbera ez zen ba, makala (ez al daude ba biak lotuak?). Hori ere gertutik ezagutzeko aukera izan nuen, gure etxean genuen arazo handi batean lagundu gintuenean. Zenbat ordu hizketan, zer indarra ematen zuen, dena musu-truk!

Esker ona azaldu nahi diot guztiagatik eta agur esan, merezi dituen laudorio guztiekin.

Nire doluminak familiari.



Homo Artis

Xabier Obeso

Lección de ingreso de Xabier Obeso como miembro de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

Homo Habilis, Homo Sapiens, Homo Artis o el hombre (y) del arte.

El miedo a la muerte impulsó la creación de las religiones y el arte fue su gran aliado. La necesidad de representar lo más fielmente posible los iconos y elementos rituales precisó de la habilidad creadora de algunos miembros de aquella sociedad primitiva.

El crecimiento intelectual del homo sapiens propició el desarrollo de una serie de actividades propias y exclusivas de nuestra especie: política, religión y arte.

La política, para regular el nuevo orden social, mediante normas y jerarquías, ya que la inteligencia permitía a los humanos actuar según criterios de conveniencia y no solo en base al instinto, como ocurría y ocurre en el resto de las especies.

La religión, para mitigar el miedo a la muerte y el dolor, frutos ambos de la consciencia humana ante las consecuencias que se derivan de los acontecimientos. El ser humano sabe, por ejemplo, que la sequía traerá una mala cosecha y que consecuentemente el próximo invierno pasará hambre y, por tanto, quizás él mismo o algún miembro de su comunidad muera.

Y el arte, expresión máxima de todas las culturas y civilizaciones, que, aunque no tenga un fin determinado –más allá del mágico-religioso y/o glorificador del poder, históricamente hablando– es, a nivel individual, un medio importantísimo para obtener

la felicidad, tal y como han demostrado estudios recientes en los que se ha constatado de forma científica que el arte estimula la segregación de endorfinas, serotonina y dopamina, causantes éstas de la sensación de bienestar y felicidad. Los sentimientos se expresan mediante el gesto, la voz, la risa y el llanto. Por ejemplo, el mejor lenguaje para expresar los sentimientos y emociones producidos por la música es la danza. El salto ingravido de una bailarina describiendo maravillosas cabriolas en el aire y posándose como una pluma, a pesar de que el consciente del espectador sabe que es el bailarín quien soporta el peso de ella, es interpretado por su subconsciente como si él mismo volara, provocando una descarga de estas drogas naturales tan estimulantes e importantes para la vida.



RSBAP. De izquierda a derecha: Asun Urzainki, Montserrat Fornels y Xabier Obeso en el acto de ingreso en la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. 29.09.2012.

El artista crea formas o sonidos que mediante su "caricaturización" o exageración consiguen una mejor percepción de la propuesta. Valga como ejemplo las mujeres de los cómics, cuyos rasgos femeninos son exagerados para conseguir una mayor voluptuosidad y despertar un mayor deseo sexual.

Así pues, si el arte actúa como una droga estimulando los circuitos neuronales, la pauta de comportamiento parece clara: consumamos arte a raudales, puesto que esta droga no tiene efectos secundarios negativos.

Hay que poner de relieve que el arte como manifestación estética y simbólica es el rasgo más diferenciador de los humanos con respecto al resto de los animales.

Si eligiéramos a cualquier personaje importante de la historia, pongamos por ejemplo a Luis XVI rey de Francia, y lo pusiéramos desnudo sobre una roca, su aspecto poco nos diría de su categoría social. Pero si adornáramos su cuerpo con ricos ropajes, capas de armiño, afeites, peluquería y joyas, y sustituyéramos la roca por un suntuoso palacio rodeado por maravillosos jardines llenos de esculturas y estanques, su aspecto sería, sin lugar a dudas, el de un gran monarca. Pues bien, si nos damos cuenta, han sido esa pléyade de artistas,

orfebres, modistas, escultores, pintores y arquitectos, quienes en realidad han operado el cambio. Al poder le resulta imprescindible la colaboración del arte y el arte se beneficia de la vanidad humana.

A lo largo de la historia el "Homo artis" ha buscado múltiples formas de expresión y múltiples lenguajes para transmitir sus propuestas artísticas. Al menos los últimos 2000 años han estado marcados por ciclos o periodos en los que una determinada forma de expresión artística ha estado de moda, enseñoreándose y anulando a otras formas o estilos. Existe una alternancia constante en dichos ciclos: a una época cuya característica predominante es la austeridad estética le sustituye otra cuya característica primordial es el barroquismo (Románico-Gótico, Renacimiento-Barroco etc.).

Curiosamente, a estas alturas del siglo XXI, nos enfrentamos al hecho de que estos diferentes lenguajes no gozan de las mismas oportunidades, es decir, que la historia se repite arrinconando a los artistas que no optan por el lenguaje de moda.

El año 2011 ocurrió un acontecimiento que pone de relieve esta cuestión. Me refiero a las exposiciones de Antonio López que se han celebrado en Madrid y Bilbao. Ambas han batido récords de asistencia de público, poniendo de manifiesto la gran aceptación que tiene este tipo de arte entre la población. Y me pregunto: es que los programadores de arte, tales como directores de museos, comisarios, ferias y diferentes espacios expositivos, ¿no se han percatado de que el arte contemporáneo no solo es el abstracto y de que el término "Vanguardista" referido a este lenguaje ya va siendo hora de revisarlo, teniendo en cuenta que el pico más alto o máxima expresión en esta línea de investigación se alcanzó con los Dadaístas y que el "Urinario" de Marcel Duchamp hace ya un siglo que escandalizó a la opinión pública de Nueva York y del mundo entero?

¿Qué ocurriría si aparecieran en escena artistas como Shakespeare, Bach o Velázquez? Pues mucho me temo que serían ignorados, por no utilizar un lenguaje moderno.



RSBAP. Lección de ingreso.

Un bien tan escaso como es el arte no debería despreciarse solo por que no esté de moda. Y al artista de hoy no le deberían bastar las formas puramente abstractas y renunciar a otras formas de expresión. Esto mismo ya lo decía Kandinsky, uno de los padres del abstracto, en su obra "De lo espiritual en el arte".

Revindico la universalidad y el eclecticismo del arte, pues me son tan propios el Renacimiento como el Impresionismo, el Magdalenense como el abstracto y el Románico o el cubismo. Y como artista del siglo XXI, me siento depositario de todos los logros y aportaciones que a lo largo de miles y miles de años nos han legado todos los creadores que nos han precedido. Ese legado introducido en el artista actual se impregna de su idiosincrasia y sale por la punta de sus dedos convertido en un arte personal y contemporáneo, es decir, imbuido de la filosofía y sensibilidad del momento histórico que le toca vivir.

Creo yo que el arte se manifiesta con múltiples lenguajes y que los ciudadanos del siglo XXI disfrutamos tanto del arte que se entreteteje con una virtuosa técnica como del que se materializa en pinceladas expresionistas y gestuales, libres de todo formalismo. Aprendamos del mundo de la música, que es capaz de programar un concierto en el que se ofrecen obras del siglo XVIII junto a otras del XX de la forma más natural.

Existe la tendencia a pensar que a quien le gusta una estética no le gusta la otra. Nada más lejos de la realidad, ya que todos nos hemos educado y convivido con las diferentes formas de expresión y todas ellas nos son igualmente propias. La figuración que se ofrece en estos momentos es muy diferente a la que se hacía en los siglos precedentes, pues se encuentra impregnada de la filosofía y sensibilidad del siglo XXI. Cada artista tiene el derecho a expresarse de la manera que estime más conveniente, y el espectador a disfrutar de todas las tendencias que le sean de interés, sin que ningún "iluminado", más bien miope, decida "qué sí o qué no o quién sí y quién no", solo porque tiene el cargo o la posición que le faculta para ello, empeñándose en primar lo raro y absurdo.

No cabe duda de que el arte se manifiesta de muchas maneras y de que, cuando éste está presente, lo apreciamos y disfrutamos. Asimismo,

no cabe duda de que una parte importante de la sociedad se encuentra con el problema de "entender" el arte abstracto (o como lo queramos llamar: habrá quien simplemente lo llame "arte raro").

En cierta ocasión visitando una exposición de Julian Schnabel, en Tabacalera de Donostia, me encontré con un amigo al cual acompañaba su familia, mujer y dos hijos adolescentes. Tras los saludos, me pidieron que les ayudara a comprender lo que allí se mostraba, pues según ellos aquello parecía una tomadura de pelo. Yo sugerí que ante una obra no figurativa hay que adoptar una actitud diferente, ya que no se pueden buscar en ella los mismos valores que ante una figurativa. En este caso y libre de prejuicios, hay que dejar que lo que contemplas te mueva de alguna manera, que te produzca alguna emoción... la que sea. En una obra figurativa, buscamos la técnica, es decir, el dibujo preciso, la proporción, la composición y el color, pero detrás de todo esto buscamos el arte, es decir, esa parte inenarrable e inmensurable llamada arte, ¿quizás la emoción? Ellos me decían que aquello no era más que unos toldos viejos, castigados por las inclemencias del tiempo y amarrados a unos grandes bastidores, sin más mérito. Yo sugerí que el mérito estribaba en tener la capacidad de ver entre aquel amasijo de trastos la belleza y mostrarla al mundo. Es como el fotógrafo que selecciona un fragmento de la naturaleza y la muestra con el fin de provocar un sentimiento en el espectador. Lo mismo hace un artista figurativo que, empleando una técnica virtuosa, es capaz de mejorar el modelo mediante la enfatización o la exageración, tal y como decíamos antes, para aumentar las sensaciones.

Quizás con estas sugerencias y un poco de entrenamiento, consigamos acercarnos y disfrutar de esta forma de expresión, y gozar plenamente.

La dificultad para entender el arte abstracto no me es ajena, pues a mi mismo me ocurrió que, manteniendo una postura radical en contra de este lenguaje, descubrí de repente, al visitar una exposición de Lucio Muñoz, que lo que veía me gustaba... y mucho, poniendo en crisis todo mi discurso antiabstracto. No cabe duda de que a partir de aquel momento todas las defensas fueron cayendo, dando paso a una actitud más tolerante con estas formas de expresión.

Quiero llamar la atención sobre una cuestión sumamente importante y es que estamos rodeados de arte por todas partes en nuestra vida cotidiana. Cualquier objeto es una auténtica escultura, fruto del ingenio y la creatividad de un artista, desde el cenicero hasta la tostadora.

La mirada dulce e inocente de un niño, curiosa y atrevida de un adolescente, tierna y protectora de unos padres, serena y experta de un anciano, o pérfida fría y lacerante del mal. Si alguna de estas sensaciones está presente en una obra de arte, nadie dudará de que lo es. Detrás de lo evidente, de lo obvio, subyace eso que llamamos emoción, alma, chispa, ángel..., es decir, eso que nos hace vibrar... eso se llama arte. Y da lo mismo que esté detrás de unos trazos que modelen una escena realista, o detrás de manchas expresionistas, de sonidos sincopados y estridentes o dulces y melódicos. Si detrás hay arte, eso es lo que debe prevalecer. ¡Olvidemos las etiquetas clasificatorias y tantas veces discriminatorias! De si es arte figurativo, abstracto, contemporáneo moderno o de cualquier otra índole. Estas clasificaciones siempre traen confusiones, como ocurre en los museos, salas de arte o galerías llamadas de "arte contemporáneo" cuando en realidad deberían serlo de "arte moderno". Explico la diferencia: si fueran de arte contemporáneo, mostrarían el arte que se hace en este momento, sin distinción de estilos, tendencias o lenguajes; se exhibiría con la misma categoría cualquier forma de expresión, sea cual fuere su lenguaje. Si no es así, deberían llamarse de arte "moderno", es decir de arte de "moda", la cual todos sabemos es siempre efímera, caprichosa y, sobre todo, manipulable.

Fama y talento muchas veces se confunden, así como popularidad y calidad. Es pública y notoria la capacidad que tienen los medios para crear personajes, cuya calidad nadie se atreve a cuestionar, haciendo que la provocación parezca genialidad, y elevando a la categoría de arte moderno lo meramente absurdo y grotesco. Moderno, contemporáneo o vanguardia, no llevan implícito el marchamo de calidad. No hay arte bueno y arte malo, solo hay arte, y éste siempre es bueno. No importa la apariencia en la que se manifieste o la forma y el soporte que adopte. Cuando aparece, lo percibimos y lo disfrutamos, como una de las cosas más gratificantes de cuantas experiencias acontecen en nuestras vidas y, sin duda, una de las

manifestaciones más importantes y diferenciadoras del ser humano.

Por tanto, disfrutemos conscientes de todo lo que nos rodea, ya sea una bella puesta de sol, un cenicero o el desconchado de una vieja pared, decorado por un herrumbroso chorretón. Si estamos atentos, descubriremos que estamos rodeados de belleza, y de esta manera la vida se hará más agradable, estimulante y plena.

En muchas ocasiones, al salir de un concierto, ballet o cualquier manifestación artística que me ha emocionado, suelo decir: "¡Ahí queda eso!"; si alguien dudaba sobre la existencia del arte, he aquí la prueba definitiva, la más empírica, la más científica, la más real: la emoción propia.

Hasta ahora, he expresado mis reflexiones desde el punto de vista de una persona consumidora de obras de arte. Pero también soy creador, dentro de la modalidad de pintura, y no cabe duda de que también en mí se han operado todos los cambios y debates que la sociedad ha experimentado a lo largo de los siglos y sobre todo en los últimos tiempos, y de que dichos avatares han influido en los resultados de mi obra personal. Una obra que ha transitado desde un realismo formal y, pasando por el surrealismo, desembocado en un realismo simbólico.

Dentro del proceso de crecimiento, pasamos por diferentes etapas que nos van formando como personas. Al periodo infantil, caracterizado por la espontaneidad libre de prejuicios y ataduras, le sigue la adolescencia, llena de rabia contenida y rebeldía, y a continuación la madurez, tiempo éste de preguntas a las que tratamos de dar respuestas, intelectualizando la existencia, cultivando la reflexión y el cuestionamiento sistemático, para luchar contra el dogma. De la misma manera ocurre en mi proceso creativo. Siguiendo un método de trabajo propio del arte abstracto, construyo un fondo texturado a base de estuco, periódicos, cartones, pan de oro etc., que permite vayan aflorando los sentimientos más profundos, sin una idea previa, sin una intención preconcebida, dejando que de un modo espontáneo se vayan plasmando los colores y textura del alma. A ese periodo dulce de la irresponsabilidad y la espontaneidad, donde resulta difícil sostener la máscara, le sigue otro dominado por la intelectualización. Es

ahí donde surge la necesidad de plasmar y compartir las inquietudes y dudas, en busca de un espacio-tiempo materializado donde volcar lo que soy, lo mejor y lo peor de mí, la arrogancia y la sencillez, la dulzura y la ira, la intransigencia y la tolerancia, la luz y la sombra.

Para mí el arte es comunicación y, como tal, considero un deber y un privilegio contar mis sentimientos e inquietudes. Crítica y compromiso. No se pueden separar el arte y la filosofía, al menos en mi caso.

Para contar todas estas cuestiones, me valgo del lenguaje de los símbolos, algunos de ellos muy recurrentes, como por ejemplo:

- los ojos, que representan la curiosidad, pulsión fundamental en el avance del ser humano, y son, además, el nexo entre el mundo interior y exterior. Y, de manera especial, el ojo de Dios, o la conciencia, del cual o de la cual jamás podemos sustraernos.
- el árbol, que simboliza la vida y cuyas raíces profundas se nutren de la sabiduría acumulada durante generaciones, crean un tronco sólido y se ramifican y extienden ofreciendo sus frutos al mundo.
- las cruces y las aspas, cuyos brazos convergen en un punto utópico, de encuentro de las diferentes culturas, ideas y sensibilidades. También punto de partida para irradiar al mundo las ideas.
- los templos, símbolos de la espiritualidad, para cuyo cultivo han sido creados. Escenarios éstos de tal porte y teatralidad, que resultan idóneos para contener escenas que cuenten cosas como el miedo a la muerte, la necesidad de la confesión, la comodidad de vivir al amparo de una religión, etc.

En cuanto al cuadro que presento, homenaje a Xabier de Munibe y a su legado, recoge una serie de símbolos que tratan de plasmar el espíritu de "La Bascongada": algunos han quedado explicados en el párrafo anterior como es el caso del árbol, cuyas raíces se nutren del legado de quienes aportaron su fuerza y sus ideas, su tronco robusto que sustenta las largas ramas que ofrecen sus frutos simbolizados con las panelas de oro. Las bellas artes representadas con las notas musicales. La agricultura, la industria y otros que no creo que necesiten explicación, como es el caso del libro abierto, símbolo del futuro, cuyas páginas están por escribir; y esto ¡sí que es responsabilidad nuestra!



RSBAP. Acto de entrega de la acreditación.

Musikasteren egituraren aldaketa: bi asteburutako musika astea

Jon Bagüés

Fotografías: Iñigo Arizmendi

Musikaste 2013ko Amaierako kontzertua.

Musikasteren 40. urtemuga ospatu eta gero, lan talde antolatzaileak 2013an ekitaldiaren formulazioan aldaketa bat proposatu zuen: kontzertuak bi asteburutan zehar ospatzea, eta astean zehar jarduera pedagogikoak egitea. Sailkapen honen arabera ere musika edukiak bereizi dira, lehen asteburuan musika biziak lekua izan dute, hau da, bizirik dauden konpositoreek sortutako musikak entzungai izan ditugu, eta bigarren asteburuan berriz, Musikasteko formulazio klasikoaren baitan biltzen den musika, antzinako musika edo ganberakoa, koruen eguna eta amaierako kontzertuak izan ditugu. Lehen asteburuko kontzertuak ez dira soilik musika klasikokoak, XX. mendean zehar sortutako musika urbanoak ere egon dira: jazz musika eta pop-rock musika. Beste erakundeekin lankidetzat sustatzea garrantzitsua da Musikasterentzat, horrela musika garaikideko egunean Musikagileak-en (Euskal Herriko Musikagileen Elkartea) laguntza izan genuen, eta Jazz-aren egunean Musikeneren laguntza. Izan ere, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiak, jazz departamentua du, eta musika genero hau etengabe hornitzen duen interprete promozio berriak sortzen dira urtero. Euskal Herriko Diskoetxeen Elkartearekin batera kontzertua antolatu nahi izan genuen, baina bertan

behera gelditu zen aurrekontu arazoengatik. Musikasteko hurrengo edizioetan egitasmoa gauzatzea gustatuko litzaiguke.

Espacio Sinkro

Vitoria-Gasteizeko musika garaikideko musika taldeak, Parisen bizi den Félix Ibarronodo oñatiarraren 70 urtemugako omenaldi moduan, bi piano eta perkusiorako musika programa proposatu zuen. Kalitate handiko kontzertua izan zen, izaera biziko autoreen lanak entzungai izan genituelarik: Sofia Martínez, Sergio Gutiérrez, Ramón Lazkano eta Guillermo Lauzurica, eta noski Félix Ibarrondorenak. Kontzertu ostean Félix-ek esan zigun, kontzertuan egoteko aukerarik izan ez zuen arren, entsegutan egon zela, eta Gasteizko taldeak egindako lanarekin oso gustura gelditu zela eta gogotik hunkigarria iruditu zitzaiola Musikasten interpretatu ziren obrak, bereziki 1971eko biak, Pariseko lehen urteetakoak, izan ere gaur egun egiten duen musikaren tankera hartu baitzien. Kontzertuaren aurretik mahai ingurua izan genuen ERESBILen Mikel Chamizok zuzenduta, non arratsaldeko kontzertuetako konpositoreekin euren obrei buruz hitz egiteko aukera izan genuen. Konposizio garaikideari buruzko hausnarketa interesgarria izan zen.



Schorndorf-eko musika eskolaren saxofoi taldea.



Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Banda.



Musikaste 2013ko Musika garaikidea Ensemble Espacio Sinkro-ren eskutik.

Jazz-a Musikasteko ostiral gauean

2004ean estreinakoz, jazz musika entzungai izan genuen Musikasten Pirineos Jazz Orchestraren eskutik. 2009ko Musikasten Iñaki Salvador Trioren emanaldia izan genuen Mikel Laboaren omenez. Azken hamarkada honetan Musikasteko "Mugetan" atalak jazz estilo ezberdinetako interpreteen lanak bildu ditu. Aurten, Musikasteko formulazio berriarekin, Reunion Big Band taldearen emanaldia izan dugu. Musikeneko jazz departamentuko ikasle eta ikasle ohiez osatutako formazioa izan dugu gure artean. Musikastek Euskal Herriko jazz taldeei euren lanak aurkezteko lekua eskaini nahi die.

Organoa eta erlijio-musika

Bi urtetik hona, eta batez ere Jasokundeko Ama Mariaren Parrokiako organoaren zaharberritzearen ostean, Musikastek organorako musika programatzen du liturgiako testuinguruan interpretatua izan dadin. Honela, Isidro Alegría eta Martín Gorostidiren lanak entzungai izan genituen mezako atal ezberdinetan. Mezaren amaieran, kontzertu moduan, Xabier Sarasaren koro eta organorako obra eta Fernando Gonzaloren organorako pieza entzungai izan genuen, bi musikagileak bertan zeudelarik. Errenteriako Andra Mari Abesbatzak eta Loreto Aramendik emanaldi ezin hobea eskaini ziguten, modu honetan organoak parrokiaren baitan eskaintzen dituen aukerak argi ikusteko parada izan genuelarik.



Landarbaso Abesbatza Musikasteko Koruen egunean.



Musika Eskolen Emanaldia.



Ensemble Diatessaron, Donostia 1813 programan, Nagore Indakoetxea eta Jon Maya dantzariekin.

Sarriegi

Musikastek ezin izan du ahaztu Donostiako musikagile ospetsuenaren heriotzaren ehungarren urtemuga. Urte hasieran Donostiako inauteriak eta danborradako abestiak sortu zituen autore famatuari buruzko web orria kaleratu genuen. Foru Plazan bildu zen publikoak Udaltxistulari Bandak eta Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Bandak eskainitako kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuen.

Musikasteko kontzertu pedagogikoak

Aurten Errenteria Musikal-ek eskainitako laguntzari esker, Errenteriako 8-12 urteko ikasleei zuzendutako kontzertu pedagogikoen antolaketan salto kualitatibo bat emateko aukera izan dugu. Mikel Cañada pedagogoaren laguntza tekniko eta ideiarekin, Errenteriako ikastetxeetan unitate didaktikoa landu da, eta Musikasteko kontzertuaren aurretik 30 bisita baino gehiago egin dira, non edukiaz gain, kontzertuan erabiliko den musika tresnak ikusteko aukera izan duten.

Musika eskoletako ikasleen kontzertuak Xabier Olaskoaga plazan

Azken urteetan Musikasteko arratsaldeetan musika eskoletako ikasleek kontzertuak eman izan dituzte Errenteria Musikal-ek antolatuta, eta aurtengoan kontzertu hauek inoiz baino difusio handiagoa izan dutela esan genezake. Musika eta mugimenduko txikien taldeez gain, dantzariak, talde instrumentalek eta bandek parte hartu zuten. Beste herrietatik etorritako taldeek ere parte hartu zuten, Lezo, Oiartzun, Usurbil eta Legazpikoek. Emanaldi hauek Gipuzkoako musika eskoletako termometroa direla esan daiteke. Aurtengoak, nazioarteko kontzertuak izan direla esan daiteke, izan ere Errenteriako Udalak eta Schondorf hirien arteko senidetze ekitaldi aprobetxatuz, bertatik etorritako saxofoi taldeak kontzertua eskaini baitzuen Xabier Olaskoaga plazan. Zorionak benebenetan Errenteria Musikal-i antolaketagatik eta fundamentuagatik!



"En torno a las publicaciones de música en el País Vasco", topaketa Musikenen.



Andra Mari Abesbatza Jasokundeko Elizan.



Reunion Big Band, Musikasteko Jazz egunean.

Euskal Herriko musika publikazioei buruzko topaketak

Aurten estreinako aldiz eta Musikeneren laguntzarekin, bi asteburuen arteko aste egunetan, Euskal Herriko musika publikazioei buruzko topaketak egin genituen. Sortzailearen ideia eta publikoaren bitarteko dokumentuei buruzko arazoaren inguruko hausnarketa izan zen topaketaren ildo nagusia. Alde batetik partiturak, bestetik grabazioak eta azkenik literatura eta musikari buruzko idatziak. Partituren gaia Juan Solaguren bilbotarrak, CM Ediciones Musikaletako arduradunak, aurkeztu zuen, berriki Eresbilen laguntzarekin José M^a Usandizagaren euskal musika herrikoari buruzko Laukotea kaleratu duena. Grabazioei buruzko arazoak Isasi Laukotean biola jotzen duen Karsten Dobbers-ek aurkeztu zuen, duela hilabete batzuk Andrés Iasiren

harizko laukote integralaren lehen diskoa kaleratu zuenak. Musikako literatura eta testuei buruzko musikologiako arazoa Itziar Larrinagak azaldu zuen, Francisco Escuderoren obraren arrazoitutako katalogoa aurkeztu zuenak. Katalogoa online ikus daiteke Eresbileko web orrian autoreari dedikatutako atalean. Hiru arazo ezberdin, baina gauza asko partekatzen dutenak, eztabaida animatua sortu zuten eta etorkizunean ere gisa honetako topaketak egitea animatu zuten.

Donostia 1813: Musikaste 2013ko kontzertu berezi bat

Donostiako 1813ko gertakarien bigarren mendeurrenean musika klabean gogora ekarri nahi izan ditu Musikastek. Horretarako Ensemble Diatessaronek, hiru zatitan sailkatutako programa



Musikasteko Kontzertu Didaktikoa.



Musikagileak-ekin batera antolatutako mahai ingurua, Mikel Chamizo-ren ardurapean.

prestatu zuen. Lehen zatian hondamendiaren aurretik Donostian entzuten ziren abestiak entzungai izan genituen, bereziki garai hartan Santa Mariako musika kapera zuzentzen zuen Mateo Albénizen sonata. Bigarren zatian, Julitxu Gysling mezzosopranoak gogora ekarri zuen, tropa aliatuek egindako hiriaren suntsiketa, gertatutakoaren testigantzak entzungai izan genituen eta baita data haietan sortutako musikak ere. Kontzertuaren hirugarren zatian hiriaren berreraiketak Donostiako hiritarren artean sortutako giro baikorra gogora ekarri nahi izan zen, erromantizismo kutsuekin. "Hiru damatxo" doinuaren moldaketa eta aldaera ezberdinak, kontzertuaren elementu baterakorrak izan ziren. Jon Maya eta Nagore Indakoetxea dantzari bikainek maisutasunez dantzatu zuten soinean eramanez, Ramón Garciak sortutako Iraultza Taldearen jantzi zoragarriak. Kontzertu bikaina izan zen, bertako musikaltasunak eta ikusgarritasunak publikoa biziki hunkitu zuelarik.



Errenteriako Udal Txistulari Taldea.

Karnaba otxotetik ahots gazteko abesbatzetara

Musikasteko koruen eguna Karnaba otxoteak ireki zuen. Otxote honek 1965ean Errenteriako gazte talde batek sortutako otxotearen izena hartu du, eta bertako partaide den Iñaki Goñik, bi abesbatzetan abestu du... sortu zenetik 48 urte beranduago! Hamalau

ahotsez osatua dagoen taldeak zaindutako ahots doinua eskaini zigun. Bi abesbatza gazteek erakutsi zuten bizitasunak, argi uzten du koru taldeek etorkizun handia dutela. Izan ere bi koruetako zuzendariak Musikenen ikasiak baitira. Formazioaren bikaintasunak bere fruituak eman ditu. Eta bereziki ahots berezi batek, Ainara Hernández-en ahotsak, liluratu gintuen eta oso etorkizun oparoa izatea opa diogu. Gure artean hiru alditan izan dugun Euskal Herriko Unibertsitateko Abesbatzak heldutasuna azaldu zuen zailtasun ugari zituzten obren interpretazioarekin. Landabaso abesbatzak amaiera eman zion kontzertuari hiru autoreren lanekin, horietako bat lituaniakoa, euskaraz idatzia Errenteriako Landabaso abesbatzarentzat, interpretatzeko nahiko zaila zena. Zalantza sortzen zaigu, mende aldaketarekin bat datorren berezko sonoritatea lortu al dute korurako abestien euskal musikagileek?

Musikaste 2013ko amaierako kontzertua

2013ko Musikasteko amaierako kontzertua Vitoria-Gasteizko Udal Bandak eskaini zuen Andra Mari Abesbatzarekin batera, biak Hilario Extremiana zuzendari eta musikagileak zuzendu zituelarik. Kontzertuan Rodrigo Santiago eta Jesús Guridiren obra klasikoak bateratzen ziren (Tomás Aragüés-ek egindako Diez melodías vascas-en egokitzapen bikainean), bai eta bizirik dauden konpositoreen lanak ere: Ruper Lekue edo Hilario Extremiana berarenak. Kontzertuari amaiera eman zion Luis de Arambururen Dantzari de Dantzarinea obrak, bai bandak eta baita koroak ere lan bikaina egin zutelarik. Kontzertuaren azken sorpresa Hilario Extremianak koro eta bandarako moldatutako Xalbadorren heriotzan abestia izan zen. Publikoari asko gustatu zitzaion.

Balantzea

- ♪ Euskal musikari buruzko zortzi mahai inguru.
- ♪ Euskal musikari buruzko hirurogei jardunaldi.
- ♪ Interpretatutako obrak: Idatzitako 2.192 obra 422 konpositorek idatzitakoa.
- ♪ Estreinaldi absolutuak: 323
- ♪ Parte hartu duten abesbatzak: 126
- ♪ Orkestra taldeak: 12
- ♪ Musika garaikideko taldeak: 16
- ♪ Antzinako musikako taldeak: 13
- ♪ Ganberako taldeak: 24
- ♪ Jazz taldeak: 12
- ♪ Musika gazteko taldeak: 16
- ♪ Besteak: 22

Eta Musikaste 2014

Musika garaikidearen babes, musikagileak bere urtemugetan gogoratzea, eta interpretazioko balore berriak babestea izango dira hurrengo Musikasteren ildoak. Hurrengo Musikasten honako musikagileen mendeurrenak oroituko ditugu

• Heriotzaren II Mendeurrena II Centenario del fallecimiento

Francisco de la HUERTA (Borja, 1733-1814)
Manuel SOSTOA (Eibar, 1749-1814)

• Jaiotzaren II Mendeurrena II Centenario del nacimiento

Luis Florencio BIDAOLA MÚGICA
(Segura, 1814-1870)

• Heriotzaren I Mendeurrena I Centenario del fallecimiento

Pío ARANGUREN (Ikaztegieta, 1862-1914)
Valentín ZUBIAURRE (Garai, 1837-1914)

• Jaiotzaren I Mendeurrena I Centenario del nacimiento

Federico COBOS (Portugaleta, 1914-1974)
José M^a ARIZ (Pamplona, 1914-1975)
José M^a DÍAZ de TUESTA (Matauco, 1914-1984)
Antonino IBARRONDO (Oñati, 1914-1985)
Juan URTEAGA (Balmaseda, 1914-1990)
Pío IRAIZOZ (Pamplona, 1914-1991)
Ignacio M^a LOJENDIO (Sevilla, 1914-2002)
José M^a ZAPIRAIN (Pasai Antxo, 1914-2007)
Félix ARELLANO (Ablitas, 1914-1996)

Gehien bat korurako musika eta musika erlijiosoko eremuan nabarmendu ziren musikariak dira. Horien artean aipagarria da Valentín Zubiaurre, Garai-n jaiotzako musikagilea, Madrilgo ganbera errealean lan egin izan zuena. Urte honetan berriro ere kontzertu sinfonikoa egin nahiko genuke eta Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Bandaren 150. urtemuga ospatuko dugu. Hauek izango dira 2014ean ospatuko dugun Musikasteko 42. edizioko programako ildoak. Programazioaren aurrerapena honako gunean kontsultatu daiteke:

<http://www.musikaste.com>

Bienaventurados los pobres ...

María Jesús Magaña

¿Cómo se mide la pobreza? ¿Quién es pobre? No hace falta ser muy listo para mirar a nuestro alrededor y ver de cerca quién pasa necesidades, y no me refiero a los que piden limosna en la puerta de la iglesia o en las tiendas, sino en los que dentro de sus casas pasan necesidad de comida o productos de primera necesidad. Y ya no digo calefacción, esto ya es un lujo para miles de personas que en su casa no entra ningún euro. Se les agota el paro, la ayuda, y tienen que sobrevivir, primero de la familia, Cáritas, Cruz Roja, etc. Dejan de pagar la renta, les cortan la luz, el agua, y se tienen que levantar cada día y seguir viviendo.

El matrimonio en paro, los hijos tienen que seguir yendo a la escuela, muchos sin desayunar

porque ya no tienen ni leche muchos días, la madre pensando en qué comida podrá ofrecerles hoy, mirando los armarios y la nevera vacíos y nosotros vemos esto y nos preguntamos ¿cómo es posible?, si hoy en día todo el mundo tiene de todo, tiran comida sobrante, van a los sitios de ocio, frecuentan restaurantes, van al fútbol y malgastan en cualquier cosa.

Los pobres se multiplican en todo el mundo, y en los países más pobres el hambre mata a miles de personas adultas y niños, no tenemos conciencia de que a nuestro lado hay gentes que pasan dramas de puertas para adentro, y ya esta mala racha se está alargando en el tiempo. Los puestos de trabajo no se ven por ningún sitio, al revés, se destruyen más empresas. Esta reforma laboral es



Xabier Pérez

un fracaso, subvenciona a los empresarios, la educativa garantiza la formación para los ricos, la fiscal más de lo mismo con impuestos para los pobres, una planificación ineficaz para la vivienda y para más inri salen cada vez más casos de corrupción, todo es robar y sacar tajada del erario público. Los pobres no quieren ser como ellos, solo quieren un trabajo para poder ir viviendo sin tanta penuria.

Si legislan un salario mínimo de 540 euros ¿por qué ellos se salen de madre?, ¿por qué no se rebajan un mínimo por honradez, por dignidad, por dar ejemplo?, sí, sí. Una madre de familia hace milagros con ese mísero sueldo, pero que no le falte, porque entonces sí que aflora la necesidad. Bastante humillación es tener que ir a pedir alimentos. Cuando hay una catástrofe por causas naturales la gente se vuelca en ofrecer ayuda humanitaria, todo es poco para paliar tanto daño, pero esta emergencia social nos tiene que remover por dentro y dar una respuesta a esas voces, parece que estamos hastiados de responder. Aunque siempre son los que tienen menos.

La crisis económica nos invita a los que nos sentimos cristianos a dar pasos hacia una vida más sobria y compartir lo que nosotros tenemos ¡Para qué necesitamos más! Deberíamos revisar nuestro consumo, sólo pensamos en tener, tener cosas. ¿Por qué no seremos más responsables? En esta sociedad moderna hay hombres y mujeres que no siendo creyentes trabajan por un mundo más justo y humano y están abriendo caminos al reino

de Dios. Cuando hablamos de la ayuda al desarrollo que los países ricos donan a los que están más faltos de ayuda se cumple el gran papel que juegan los políticos, quieren camuflar ese efecto que causa la miseria y ellos hacen negocio. Se mostraban orgullosos los gobiernos de donar el 0'7% y muchas ONG's esperaban con ilusión ese plan, pero debido a otros acuerdos económicos no pueden dar ni unas migajas a los países pobres. Solo buscan el enriquecimiento de unos países en detrimento de otros.

La doctrina social de la Iglesia ha denunciado, en múltiples ocasiones, un sistema económico que oprime a los pueblos. La crisis nos está enfrentando a dos realidades, por un lado las que estaban en situación de exclusión y por otro a familias normales que se ven en la necesidad de pedir ayuda, y recuerdo las bienaventuranzas. Cristo dijo bienaventurados los que tienen hambre y sed de justicia porque serán saciados ¿Cuándo y dónde serán saciados? En el cielo, dicen algunos, pero yo creo que el reino de Dios está en este mundo y eso nos hace sentir más hambre y sed de justicia de verdad, lo pensamos, pero si nos es más difícil amarnos a nosotros mismos es casi imposible amar al prójimo y aquí está la clave de todo. Hay miles de organizaciones cristianas que luchan contra el hambre y miles de misioneros católicos que lo han dejado todo, compartiendo su vida y problemas con los más pobres de la tierra. Ellos sí que saben lo que es vivir en la pobreza.





India, gorabidean dagoen ekonomia-aren krisia

Asha-Kiran

Indiari buruz hitz egitean, maiz esaten da gorabidean dagoen herrialdea dela eta hango ekonomia arrakastatsua etengabe hazten ari dela.

Indiako errealitatea hobeto ezagutu behar da, ordea, eta hazkundearen zenbaki soilen atzean dauden biztanle ahulenen egoera zehatzago aztertu.

Indiako zenbait herritar mendebaldean gizapikotzat jotzen diren kondizioetan bizi dira, edo, hobeto esanda, bizirauten dute. Besteak beste, baliabide urriko hurrek eta emakumeek osatzen dituzten biztanle-taldeek dute gizarte-erreformen premia handiena, edozein dela ere esparrua: gobernua, kultura, gizartea, familia.

375 milioi haur baino gehiago daude Indian, munduko beste edozein herrialdean baino gehiago. Nahiz eta Indiak konpromisoa hartu duen haurren oinarritzko eskubideak bermatzeko, Estatuak oraindik ere ez du nahikoa baliabide ematen haurren biziraupen eta osasun premiei, heziketari, garapenari eta babesari aurre egiteko. Hurrekiko konpromiso legal eta politikoen eta globalizazio prozesuaren ondorioen artean kateaturik dago haurren eskubideen auzia.

Estatuak sistematikoki murriztu du alor sozialari ematen dion babesari, eta pobrezia-aren atalasearen azpitik bizi dira 360 milioi lagun

–biztanleriaren %36–. Atalase horren azpitik bizi direnen %73 emakumeak eta haurrak direla jotzen da. Esparru sozialean egindako murrizketek, beraz, zuzenean eragiten dute haurren bizitzetan. Elikagaien erreserbak dauden arren, 75 milioi haur baino gehiagok elikadura-gabezia pairatzen dute, banaketa publikorako sistema kentzeaz gain bidezko banaketa-sistematik ezartzen ez delako.

Bestalde, faktore sozioekonomikoak ere aintzat hartu behar dira. Neskak mutilak baino gutxiago balioesten dira Indian, eta eskubide, aukera eta onura gutxiago dituzte haurtzaroen. Mutilari ematen zaio lehentasuna familiaren eta komunitatearen baliabideak ematerakoan. Elikadurari eta osasunari dagokienez ere neskak baztertuak izaten dira.

Haurrak izan ohi dira lan-merkatuko helburu nagusi, helduena baino askoz soldata txikiago baten truke kontratatzen baitituzte. Haur asko hiru urte baino ez dituztela hasten dira lanean.

Haur izatea zer den ez dago argi

Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren arabera (Indiak berretsi zuen konbentzioa), 18 urtetik beherako pertsonak dira haurrak. Hala ere, adingabearen hainbat definizio daude Indian. Indiako erroldak 14 urtetik beherako adingabeak hartzen ditu haurtzat. Baina zientzialari sozialek 15 urtetik 19ra arteko neskak ere haurtzat jotzen

dituzte datu demografikoetan. Adin nagusitasunari buruzko legearen arabera, 18 urteko emakumeak eta 21 urteko gizonak dira adinez nagusiak. Bestalde, Kode Penalak 16 urteko adina ezartzen du neskontzat sexu-harremanak onartzeko, eta adinik ez du zehazten mutilentzat. Legeetan adin ezberdinak zehazteak nahastu egiten dute adingabearen definizioa bera.

Adingabeekiko politika

1989ko azaroaren 20an, NBEko Batzar Nagusiak Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena adostu zuen. Indiak 1992an berretsi zuen hitzarmena. Halaber, bost urteko planak ezartzen dira Indian, eta hasieran helburua hurrei oinarritzko zerbitzuak ematea besterik ez bazen ere, egun asko aldatu da ikuspegia, eta kontuan hartzen dira haurren garapena lortzeko eta haien ongizatea areagotzeko gizarte-laguntza ematea, lurralde-eremua zabaltzea, haurren garapenerako zerbitzuak aberastea, komunitatea defendatuz, mobilizatuz eta sendotuz giza garapena lortzea eta haur guztiek ongizatea lortzeko konpromisoa. Lege, politika eta konpromisoak gorabehera, ordea, Indiako haurren benetako egoera oso larria da heziketari, osasunari, haur txikien arretari eta babesari dagokienez.

Osasun arreta

Denborak aurrera egin ahala, hobera egin du Indiako haurren osasun-egoerak. Hala ere, bi milioi haur hiltzen dira urtero, 1960. urtean adina haur, ia-ia.

Gobernuak onartzen du erronka eskerga dela 375 milioi haurri osasun-laguntza ematea, batez ere horien herena pobrezia eta bazterkeria kondizio larrietan bizi delako.

Haur txikien zaintza

Haurraren lehen sei urteek berebiziko garrantzia dute. Urte horietan gertatzen da haurraren gorputz, adimen, hizkuntz eta gizarte garapen handiena. Ezinbestekoa da haur txikien zaintzan eta heziketan inbertitzea.

Haur txikien arretan eta heziketan inbertituz gero, amaren arreta osoa eskaintzan da, bai eta diru-laguntzak ere hainbat esparrutan: haurtzaindegiak, elikadura, immunizazioa, osasun-arreta, eskolaurreko heziketa, babesak eta haur-zaintzarako zerbitzuak, neskek anaia gazteagoak zaindu behar ez izateko eta heziketa eskuratu ahal izateko.

Gaur egun Indian 800.000 haurtzaindegi behar direla jotzen da, baina 14.925 haurtzaindegi baino ez daude. Beraz, hutsunea handia da.

Heziketa eta garapena

Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ezartzen duenez, estatu batek aitortu beharra dauka haurrek heziketa jasotzeko duten eskubidea. Hori lortzeko, oinarritzkoak dira





aukera-berdintasuna, denentzat eskuragarria den derrigorrezko lehen hezkuntza, adingabe guztientzat eskuragarria den bigarren hezkuntza, heziketa eta lanbide informazioa eta laguntza eta eskola uzteak edo huts egiteak saihesteko neurriak hartzea.

Datu interesgarriak:

- Alfabetatu gabeko 60 milioi lagun daude herrialde horretan, 1961ean baino gehiago.
- Haurren %65 baino ez da iristen 5. mailara, eta lehen hezkuntza gainditzen dutenetako askok ezin dute ez irakurri, ez idatzi.
- Haurren %54k lehen hezkuntza bukatu aurretik uzten dute eskola. Haietatik %51 mutilak dira, eta %59, neskak.
- 1962an, BPGaren %6 hezkuntzara bideratzeko gomendatu zitzaion Indiari. Lau hamarkada igaro dira, eta hezkuntzari %3,5 baino ez zaio esleitzen.
- Lehen hezkuntzako eskolen %12k irakasle bakar bat dute, eta %60k itoginak dituzte sabaian.
- Irakasleen %25 baino ez dira egoten beren lanpostuetan.

Babesa eta eskubideak

Zenbait hurrek, haien gizarte eta ekonomia maila dela, buru- nahiz gorputz-egoera dela, desabantaila handiak dituzte. Gobernuak aitortu du arreta "arina" eman zaiela egoera larrian dauden haurren premia eta eskubideei, haurren beste oinarritzko behar batzuen asetze mailaren aldean. Egoera larrian dauden haurrei buruzko datu fidagarri gutxi egotea ere traba bat da zerbitzuak emateko.

Haurren lana

Acompañados por la Orquesta Nacional de Burdeos-Aquitania, la soprano dramática americana Heidi Melton y la dirección del inglés Paul Daniel, la Coral Andra Mari interpretará fragmentos corales de las obras: *Tannhauser, Aida y Nabucco*.
- 7 de septiembre. El festival se traslada a Arcachon para repetir el mismo concierto.

- 22 de septiembre. El festival francés convoca a la Coral Andra Mari-AMA para cantar en la iglesia de Urruña-Urrugne la composición religiosa *Salmo XIII* del compositor húngaro Franz Listz (1811-1886), con el acompañamiento de Thomas Ospital al órgano y la dirección de José Manuel Tife.
- 4 de noviembre. Iniciamos en el Auditorio Euskalduna de Bilbao el periplo de los conciertos de la Orquesta Sinfónica de Euskadi (OSE), interpretando la maravillosa obra *Requiem alemán-Ein deutsches Requiem* del compositor alemán, de Hamburgo, Johannes Brahms (1833-1897), dirigidos por el joven director barcelonés Josep Caballé Domenech.
- 5 de noviembre. En el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz.
- 7 y 8 de noviembre. Finalizamos la gira en el Auditorio Kursaal de San Sebastián-Donostia con dos conciertos consecutivos cantando esta inolvidable obra brahmsiana.
- 23 de noviembre. Colaboramos en los festejos del 50 aniversario de la *Ikastola Orereta* de Erreterria interpretando la parte cantada del ballet *Sorgiñeta*, la atractiva obra del compositor hernaniarra José Olaizola Gabarain (1883-1969).

El acto va a tener lugar en el Polideportivo Municipal de Erreterria.

Con este concierto, los componentes de AMA celebran, además, la festividad de Santa Cecilia, patrona de los músicos.

- Diciembre 2013. *Gabon Kontzertua*. En un emotivo fin de curso, *Adeste Fideles* incluido, todas las secciones de la familia AMA subimos al altar de la iglesia de Nuestra Señora de Fátima (Capuchinos) de Erreterria para interpretar los tradi-

cionales villancicos-gabon kantak con mensajes de alegría, hermandad y paz.

Ama Harrobia, mila kolore

Kantuzaletasunaren bizirautea zein bidetatik aurrera joan daitekeen jakitea ez da erraza. AMaren argia diren harrobiko neska mutilek oholtzara igotzen diren aldiro erakusten digute bide luze eta ilun hori nondik joan daitekeen.

Imanol Elizasu eta Lorea Intxaurrendietaren gidaritzapean Musika Tailerra, Orereta txiki, Orereta eta Oinarri osatzen duten 200 abeslariak beraien ahots garden zein indartsuek bihotza uzkurtarazten digute abesten duten aldiro. Zin dagit.

Geniales, ikaragarriak, maravillosos, zintzoak, lagunkoiak, alaiak... emanaldiak eskaini dituzten lekua nonahi dela ere, orotatik hitz beretsuak ekartzen dizkigute. Bai eta ekarriko ere!

Ohituta egonagatik ezin dugu ahaztu horren guztiaren atzetik dagoen lan eskerga, iluna bai eta astuna batzuetan. Esfortzu handia Erreterriak duen erakusleho esaguratsuenetako bat kanpora zein barrura begira. Kanpokoek abeslari bikainak ikusten dituzten neska mutil horien aurpegietan, guk geuk geure seme alabak ikusten baititugu, Erreterriako seme alabak. Guri dagokigu behar duten bezala zaintzea beraz.

Torreveija, Biasteri, Pasaia, Donostia, Villabona... bisitatuko dituzten herri eta hiriak.

Habanerak, sakroak, herrikoiak landu eta ikasiko dituzten estiloak.

Alaiak, lasaiak, arinak, tristeak, martxosoak abestuko dituzten kantak.


Hauexek, beraz, abesbatza hauek guztiak eskaintzen duten kolore paleta zabala.

Beltz "ilun" distiratsurik, txuri argi itsugarriraino.



Festival de narración oral KONTUZ KONTARI!

Mikelazulo Kultur Elkartea



Guadalajara es una pequeña capital cercana a Madrid. Hace más de veinte años, la biblioteca organizó un maratón de cuentos con la idea de impulsar la lectura y ayudar a la activación cultural de la ciudad. Hoy en día el maratón dura tres días, con sus noches, durante los cuales cientos de ciudadanos y ciudadanas suben al escenario a contar un cuento, junto con profesionales de la narración llegados de distintos rincones del mundo. El Maratón de Cuentos de Guadalajara es una de las actividades culturales más importantes de la ciudad y un referente europeo de la narración oral.

Los Silos es un pueblo de 5.000 habitantes que se encuentra al norte de la isla de Tenerife. Como en muchas localidades el turismo es una de las principales actividades locales. El año 1996 se celebra por primera vez el Festival Internacional del Cuento Los Silos. Hoy en día es uno de los principales atractivos de la localidad. Durante dos semanas el pueblo bulle de actividad, con gentes venidas de distintos lugares, todas atraídas por el festival. Es difícil encontrar entradas para las actuaciones si no se han comprado con antelación, así como difícil es encontrar alojamiento. Durante dos semanas la localidad de Los Silos vive por y para el cuento.

Podíamos seguir poniendo más ejemplos, Beja en Portugal, Grenoble en Francia, etc., en los cuales un festival de narración oral ha conseguido activar, no sólo la vida cultural, sino económica de una localidad, convirtiéndose en una seña de identidad de la misma, tanto para sus habitantes como para los visitantes.

El festival de narración oral Kontuz Kontari!, celebrado entre el 29 de mayo y el 2 de junio, nace

con la idea de aportar a Errenteria una novedosa propuesta cultural que se suma a las ya existentes, y contribuya a hacer de nuestro pueblo un referente cultural tanto para sus habitantes como cara al exterior. La narración oral de cuentos sigue estando confinada a los márgenes de la actividad cultural. Siendo como es un arte escénico, la imagen social que se tiene de ella es la de una actividad enfocada al mundo infantil, lo cual no es malo en sí, pero no tiene por qué ser limitada a ello. También se suele tener una imagen de esta actividad artística como algo demasiado atado a la literatura escrita, casi como una actividad inevitablemente atada al fomento de la lectura; siendo esta una de las razones por las que las sesiones de narración oral se ciñen en gran parte a las programaciones de las bibliotecas, o como refuerzo de las clases de literatura en la enseñanza. Nos encontramos con otra idea de la narración de cuentos como algo bucólico, que nos trae sabores de épocas antiguas, mitificando quizás en exceso todo ello. Pero pocas veces oiremos hablar de la narración oral como una propuesta de creación escénica, tal y como se puede hablar del teatro o la danza, por poner unos ejemplos.

Es por ello que el festival Kontuz Kontari!, se ha centrado en esta primera edición en la narración para adultos, presentando en el teatro del Centro Cultural los espectáculos programados. De esta manera se ha querido mostrar los espectáculos como propuestas escénicas importantes en sí mismas. Las condiciones que reúne un teatro a la hora de apreciar un espectáculo, de la índole que sea, no las puede tener una biblioteca o un bar, ya que dicho espacio está pensado para esa actividad, no así los otros espacios. Esto no quita que la narración pueda mostrarse en otros formatos adecuados

al espacio en el que se presenta, de ahí el organizar un *cuento-poteo* por las calles y bares de la villa, recuperando de esta manera los espacios sociales públicos como espacios de la palabra, de la comunicación y transmisión cultural, siendo el relato de historias parte de todo ello.

El festival de narración oral *Kontuz Kontari!*, no es un fin en sí mismo, sino que forma parte de un proyecto más ambicioso, como es que Errenteria sea una referencia de la narración oral, tanto en Euskal Herria como fuera de ella. Para ello se intentará trabajar otros aspectos de la narración oral, desde la formación a la dinamización de dicho arte. Así

mismo se impulsarán relaciones e intercambios con festivales del mismo tipo. En definitiva, el objetivo es hacer de Errenteria un lugar en el que la narración oral llegue a ser una de sus referencias culturales, tanto para sus habitantes como para foráneos. Una propuesta cultural más que se una a otras de distinto tipo que se desarrollan con éxito en nuestro pueblo. Apostar por la cultura no es simplemente un recurso programático, sino que es impulsar una sociedad con espíritu crítico, en el que las personas busquen en la existencia algo más allá de los intereses materiales e individualistas. El festival de narración oral intenta aportar su grano de arena a todo ello.



<http://ladamasa.blogspot.com.es/>

Otro año más con vosotrxs...

Mikel Martín Conde
Ehgam

Algunxs conciudadanxs habrán tenido noticia en su momento, mediante los carteles colocados en diferentes establecimientos, en las paredes, prensa, web, etc., de los actos públicos que a continuación pasamos a informaros y comentar.

Somos Ehgam quienes este año nuevamente hemos programado en el pueblo algunas actividades para continuar ofreciendo a la ciudadanía local –y de la comarca– el acercamiento a las diferentes caras de la homosexualidad, lesbianismo, transexualidad y de las infecciones de transmisión sexual.

Nos mueve un interés “egoísta”, está claro, ¿no? Somos egoístas en el buen sentido de la palabra. Nos importa/n nuestra/s vida/s. Nos importa nuestra salud en primera persona: lo que no hagamos nosotrxs para normalizarnos socialmente en la vida cotidiana por nosotrxs mismxs, no esperemos que lo hagan quienes no viven en primera persona el deseo homosexual o la identidad de género.

En el año tenemos prefijadas unas fechas en el pueblo para realizar diferentes actividades, con mejor o peor resultado: 26 de febrero, *Glam Zinemaldia*; 17 de mayo, Jornada Internacional contra la Homofobia; 28 de junio, Día Internacional del Orgullo Gay;



Presentación de la 7ª edición del *Glam Zinemaldia*

8 de noviembre, la llamada "Noche de los Cristales Rotos"; 1 de diciembre, Día de Lucha Contra el Sida.

El día 26 de febrero preparamos una nueva edición del *Glam Zinemaldia*, *Zinegoak Luzapena*, en la auditorio de Errenteriako Hiri Kulturgunea (*la Niessen*). La sesión única de este año fue seguida con interés, pero con menor asistencia que el año pasado, y, por qué no reconocerlo en estas páginas, con desigual crítica por parte de lxs asistentes sobre las películas proyectadas.

El día 13 de mayo tuvimos la ocasión de contar con la presencia de dos militantes de Amnistía Internacional (minorías sexuales) y de una activista de *Stop Homofobi* de Iparralde en el Mikelazulo Kultur Elkartea, para debatir sobre la reacción homófoba producida en el Estado francés durante y tras el acuerdo de la llamada Ley de Igualdad en Francia, que reconoce el derecho a la adopción y al matrimonio a las personas del mismo sexo. El mismo día se llevó a cabo la proyección y debate del documental del director de cine navarro Luis Arellano sobre el proyecto de ley en Uganda, que introduce la pena de muerte para las personas homosexuales, en homenaje al activista gay asesinado. La presen-

tación de las personas y el contenido del acto fue de la mano de un militante de Ehgam.

A propuesta del departamento municipal de juventud, estuvimos en los locales del *gazteleku* en el barrio de Gabierrota proyectando un documental, *Elige siempre cara*, sobre la problemática del sida y las infecciones de transmisión sexual, seguido con muchísimo interés por parte de lxs jóvenes que acudieron (decir que quienes estuvieron en el debate salieron gratamente sorprendidos por las preguntas planteadas).

El mismo documental se proyectó en el Gaztetxe el domingo 8 de diciembre e igualmente la reacción de lxs asistentes fue la de reconocer la importancia de proyectar documentales como éste (abordando la problemática del sida) que traten temas de interés para la juventud.

Tenemos así mismo planeada la realización, por vez primera este año, de una comida de convivencia a la que hemos invitado a familiares y amigos de la comarca con motivo del 28J (¡para cuando leáis la revista habremos hecho ya la digestión y nos habremos reído!).

Juantxo Quiroga



Participantes en el acto contra la homo-lesbo-transfobia/s

Baso naturalak berreraikitzen Lau Haizeta parkean

Iñigo Moreno, Xabier Agirre

(Eguzki-Ihintza Ingurumen-Zerbitzuak, S.L.)

Europako Batasunaren eta Naturaren Kontserbaziorako Erakunde Internazionalaren (UICN) ingurumeneko lehentasunekin bat eginez, Errenteriako Udalak, bere Mendi eta Ingurumeneko Sailaren bitartez, urteak daramatza bioaniztasunaren alde inbertsioak eginez. Estrategia honen helburua Errenteriako bioaniztasunaren galera (habitat naturalak eta basa espezieak) gelditzea eta hau hobetzea da.

Baina zer da Bioaniztasuna? Bioaniztasuna ekosistemek eta bertan bizi diren animalia, landare, onddo eta mikroorganismoek osatzen dute. Espezieek bizirauteko elkarloturik egon behar dute, gizartean gertatzen den modura, adibidez: nekazariak garia landatu, errotariak irina ekoiztu eta okinak ogia egiten du guk ogia jan ahal izateko. Bakoitzak bere ekosistema du: nekazariak landa-lurra, errotariak errota, okinak okindegia eta herritarrok bizigunea. Eragile eta ekosistema guztiak dira beharrezkoak, batek hutsegitean kate guztia apurtu baitaiteke.

Egun, bioaniztasunaren galeraren arrazoi nagusiak ekosistema edo habitaten suntsitzea (artifizializazioa) eta eremu txiki eta sakabanatuetara mugatzea (fragmentazioa), klima aldaketa, natur-baliabideen erabilera ez jasangarria eta espezie exotiko inbaditzaileak dira.



Egoera larri honi aurre egiteko, bioaniztasunaren kontserbaziorako sortutako tresna nagusiak, Europako Batasuna jatorri dituzten Hegazti (1979) eta Habitat (1992) Zuzentarauak dira, eta hauen ondorioz sortzen den Natura 2000 Sarea, bertan Aiako Harria naturgunea barne dagoelarik, Artikutza, Ulia-Jaizkibel edo Txingudirekin batera.

Baina zer gertatzen da Natura 2000 Saretik edo zuzentarau hauetatik kanpo gelditzen diren eremuekin? Ez al dira zaindu behar? Errenteriako Udalak, udalerrri osoko bioaniztasunaren galera gelditu behar dela argi izanik, Errenteriako zenbait herri-lurretan egindako ekintzen arrazoia eta abian dauden beste ekintzen berri eman nahi du. Hauek ondorengoak dira:

Herri-basoen lehengoratzea eta hobetzea

Udalerriko bioaniztasuna babesteko modurik eraginkorrena delakoan, bertako ekosistemek duten adierazgarritasuna areagotzea eta hauen kontserbazio egoera egokia sendotzea helburu dituzten ekintzak egin dira. Hauen artean, egur ustiaketa komertziala bertan behera utziz, Lau Haizeta Parkean dauden landaketak, bertakoak diren hostozabalen landaketengatik aldatu dira. 2012an adibidez, 14 espezie autoktono desberdinen 10.000 zuhaitz eta zuhaixka baino gehiagoren



Sanmarkoko magaleko pinudia kendu eta baso-espezieez egindako landaketaren adibidea.

landaketa burutu da. Beste basoetan berriz, espezie autoktonoen aniztasuna, basoen estratifikazioa handitzea eta zuhaitz zaharren errespetua irizpide dituzten baso-tratamenduak gauzatu dira.

Mehatxatutako espezieei laguntza eta Interes Bereziko Habitategi arreta berezia

Natura 2000 Saretik kanpo, hau da, Aiako Harritik kanpo dauden basoen gaztetasunak eta landa-lurrek duten artifizializazioak, espezie askoren biziraupena zailtzen dute. Egoera honi aurre egiteko, hegazti eta saguzar espezie desberdinei zuzenduriko habi-kaxak ipini dira eta anfibio eta narrastien ugalketa erraztea helburu duten hiru urmael eraiki dira. Era berean, urtero esleitzen den baso, aisialdi eremu, ibilbide eta herri-bideen garbiketarako, landare exotiko inbaditzaileen ezabaketa eta kudeaketa egokia eta Interes Bereziko Habitategi kontuan hartzen dituen baldintza teknikoak berridatzi dira.



2013. urtean egin berri den Kutarroko urmaelaren argazkia.

Fauna eta flora exotiko inbaditzailearen aurkako borroka

“Flora eta Fauna Exotiko Inbaditzailea; Basa bitzita eta ekonomiarentzako mehatxua” esku-liburua inprimatzeaz gain, Oiartzun ibaian eta Lau Haizeta Hiri-parkean fauna eta flora inbaditzailearen aurkako ekintzak burutu dira.

Egun, Errenterriko Udala udalerriko Flora Exotiko Inbaditzailearen Inbentarioa eta hauen kente lanen Ekintza-Plana burutzen ari da, *Eguzki-lhintza* enpresaren bitartez. Inbentario eta Ekintza-Plan honek, udalerrian dauden inbasio biologiko desberdinak kokatzeaz gain, hurrengo bost urteetan herri-lurretan aurkitutako inbasioen kente lanen kudeaketa eta balioespena du helburu.



Etorkizunari begira

Etorkizunari begira, gure ibai, baso eta landa-lurren egoera ekologiko egokiak Errenterriko ekonomia eta, oro har, herritarrentzat onurak besterik ekarriko ez dituelakoan, Errenterriko Udalak herri-lur nahiz bestelako administrazioen ardurapean dauden landa-lurretan bioaniztasunaren aldeko estrategiarekin jarraitzeko asmoa du. Emango diren urratsen artean, besteak beste, Interes Bereziko Habitategiaren hobekuntza, egindako landaketen naturaltasuna areagotzea, eta landare exotiko inbaditzaileen kontrako ekintzak aipatu daitezke. Era berean, bioaniztasuna guztiontzat onuragarria den ondaretzat hartuz, Errenterriko Udalak herriko bioaniztasuna zaintzeko deialdia egin nahi du herritar orori; natura babesteko beharra ez baita bioaniztasunak gu behar gaituelako, guk uko egin ezin diogulako baizik.



Trenak ekarriak

Juan Gartzia



RENERIA. - Estacion y vista general. - Ll.

SELECTA

runek, Errenterriak, Pasaiak eta Donostiak badute bereizgarri bat, aspalditik eta gaurdaino: bi trenbidek zeharkatzen dituzte, bade-larik gutxienez haien geltoki bana herriotariko bakoitzean.

Trenbide txikiak, ibilibide labur eta burdinbide estuenekoak, tunel sarriak direla eta, izen metaforikoa hartu zuen gaztelaniaz, euskaraz ere itzuli gabe darabilguna: Topoa.

Handiak, berriz, izen ofizialari eutsi dio, Renfe, baina geltokiek, oraintsu arte behintzat, antzinako konpainiaren izena gorde dute jende xehearen ahotan: Norteko estazioa. Burdinbide nagusi horretatik joko du hizkizko nire bidaiatxo honek.

Baten batek pentsatuko zuen, ezta?, egokiago zela hiriburutik hasia tren-herrien zerrenda hori, baina ez da hala, inondik inora ere. Administrazioari eta biztanle-kopuruari dagokienez

Donostia izanagatik buru, ez da halakorik trenbide-kontuan. Irun da nagusi, zalantzarik gabe, Renferen ikuspegitik. Hura da Penintsulako sarearen mutur nagusietariko bat; han dago Pirinioz bestaldeko Europarako atea, bere geltokizati berezi eta guzti; hantxe daude bildurik zerbitzu nagusiak... Hitz batean, Irun da trenbidegune –jatorrizko erdara oihartzuntsuagoz: *nudo ferroviario*– nagusietariko.

Geltokiko auzotik Kolon ibilbidea zeharkatzean ezker-eskuin ageri den errailtza trinkoari erreparatzea aski: herria erdibitzen duen burdinazko ibai zabal halakoa.

Bada, horien arteko errail pare batek ekarri gintuen gu, 1960 aldera, Irunera; ni eta nire familia, alegia. Zehazkiago, ez familia guztia, gure anaia gazteena geroago jaioko baitzen, hantxe, Irunen. Artean hura falta arren, ordea, oraingo gehienak baino osatuxeagoa genekarren familia. Kronologiaren aurkako egozentrismoa barkatzen

bazait, hurrenez hurren: anaia biok (nik, bost urte; anaiak, zazpi), aita-amak eta aitona-amonak (amaren gurasoak, alegia; etxeko benetako tituluz: *aitajauna* eta *amandrea*). Aise ematen du istorio edo istorio-abar bat baino gehiagotarako pertsonaia horietariko bakoitzak, baina, honetan, bigarren mailakoak dira guztiak ere, ni barne. Trena dugu hemen protagonista. Gainerakook, bidaiari goaz hartan.

Adierazi berri dut trenak ekarri gintuela Irunera, eta herren geratzen da noski *ekarri* aditz hori, *nondik* esaten ez bada.

Trenak, bere burdinbidearen ganean dabilenez, ezinbestekoa du material hori; burdina, alegia. Bada, patua haur baten gisa gurekin trentxoetara jolasten ari balitz bezala, antzinadanik burdina ekoiztera emana zen herri batetik gentozen gu, hantxe probintziaren beste muturretik. Gure jaioterria, hain zuzen ere, bi anaia nagusia eta amarena, burdina zela-eta sortua zen: hantxe Udanapeko burdinolak ugaritu eta haien jabeak botere puska bat berendu ahala, Segura hiribildutik askatu, eta hala sortu zen Legazpi.

Sinbolikoki, mitikoki, baserritar izatetik olagizon izatera etorritako burdin jende horren kastakoa zen Patrizio Etxeberria, eta harena zen, gure haur eta gazte garai hartan, burdin ekoizpen alde-aldean guztia, eta –hori bai erabat– Legazpi oso-oso, gu barne.

Ez da, ez, metafora edo hiperbole inolakoa: Legazpin, *Nagusia* zen Patrizio (erdaraz, *El Amo*). Harenak ziren fabrikak; harenak eskolak, ospitaleak; harenak etxeak, gurea barne. Gurea bereziki barne. Fabrika-sarreraren parean eraikiarazi zuen Patriziok bere beharginentzako lehen etxea, eta hantxe jaio ginen gu: Etxe Alai. Patrizioren zen etxea, eta, harekin batera, noski, gu ere bai. Aitajaunaren soldata miseriazkoa konpentsatuz, aitakiro egiten zizkigun doan, edo merke-merke, argien-eta gastuak. Hori ere, ordea, beste istorio bat da, eta are beste Historia bat.

Joeraren kontra gindoazen, nolabait, Legazpitik alde eginik. Izan ere, burdingintzaren puria zela eta, etorkin-ekarle zen herria. Oldeka inguratuak ziren hara jendeak lan hobe bila, hiru txanda nagusitan: inguruetakoa baserritarrak

aurrena (aitajauna haien artean, Angiozartik); mugante ziren nafar-arabetako herrietakoak gero, eta andaluz-estremeñoak hurrena.

Haiek Legazpira ekarri zituen, bada, trenak, eta gu Legazpitik kanpora eramanez, aldi bertsuan. Irunera. Ez nuke arinkerian erori nahi bere herria uztera bortxaturik gertatu den jendearen sentimenduez, herrimina infinituki gogorragoa baita txirotasun gorriarekin bat eginik doanean, baina nik ere neureak pasatu nituen, ez pentsa, fabrikaren eta zelaien arteko neure mundutxotik erauzi eta Irunera *deserriratu* nindutenean.

Neurekoia zen noski pentsamendu hori neure familiaren orduko premiekiko, baina kontuan hartu eskola txikia besterik egin gabeko bost urteko haurra nintzela artean. Beste bost bat urtean egon nintzen herri-aldatze latz hura barkatu ezinik. Barkatu ezinik, nori?, galdetuko duzue. Bada, neuk ere ez dakit, baina bai ez niola barkatzen munduari halakorik niri egina. Eta, bai: zer da mundua, ordea, bost urteko haur batentzat?

Trenak eramanez eta ekartzeaz ari naizenez, barkatuko didazue baldin eta, Irungo trengune nagusia utzi, eta atzera Urola aldera egiten badut. Ez, hala ere, Legazpira, baizik eta auzo-herrira, Zumarragara.

Zumarragak bazituen orduan (Irundik Donostiarainoko herriek bezala, eta Legazpi –eta, gure parajeotan behintzat, aipatuok salbu, beste inongo herri– ez bezala) bi geltoki, bata bestearen ondo-ondoan: batetik, Nortekoa, Renferena, Legazpikoa baino dexentez handiagoa noski, eta, bestetik, Urolako tren txikiagoarena. Trenbide hori (gazteenentzat diot) Zumaiaraino zihoan, eta han lotzen Donostiatik Bilboraino zihoan eta doan linearekin. Urolakoa itxi egin zuten; gainerakoa, Topoarekin batera, Eusko Tren sarearena da orain (lehen, oker ez banabil, FEVE zen: *Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha*).

Zumarragakoa, iradoki dudanez, estazioalde koxkorra zen jada, neguko hotzetan kafesne beroa hartzeko bere kantina eta guzti. Zumarraga ez zen trengune nagusietariko ere, baina bazuen bere pisua. Bada, haraxe etorria zen gure aita bere gurasoekin, ni Irunera aldatu ninduten adin bertsuan, baina puskaz urrutia gotik, Asturias aldetik.

Aita jaio zen herria Asturiasen eta Leonen arteko Pajares mendate mitikoa pasatu aurreko azken tren-geltokia zuena zen. Herri txikia baina bere garrantzi ez nolana hiko zuena orduko trenentzat. Haraxe ezkonduak ziren Abuelito (asturiarra, izatez) eta Abuelita (Mirandako beste trengune nagusian bildua), eta hantxe izan zuten lehen haurra, gure aita. Datu batzuez ez nago oso ziur, hala nola Abuelitaren familia-jatorri benetakoaz (ez informazio faltaz, soberaz baizik, hitzontzi bezain fantasiatsua izaki hura), baina beldur naiz, hara, zehatz dakidan beste datu bat emateko, sinetsiko ez didazuelakoan. Beldur eta guzti, bada, horratx aitaren jaioterriaren izena: Puente los Fierros.

Jolasean ibilia da beti gure patua, esana dizuet, bizitzaren trentxoan geure bidea egin nahi genuenok. Itxura batean (ez dut ikertu puntu hori), Burdinen Zubia euskaratu daiteke aitaren herri horren izena, baina *puente* hori –euskaraz ere, zer da ba *ponte?*– *fuentes* izan liteke, eta, orduan, Burdin(en) Iturria izan liteke. Eta hala dela egingo nuke.

Hala izatera, horra patua berriro jolasean: metal-ura ematen duten iturburuz josirik dago Legazpi eta ingurumaria. Zumarragara bidean ere bazen, ongi oroitzen banaiz, halako bat baino gehiago. Kontua da gure aita, bost bat urterekin Zumarragaratu, hantxe aitak lan egiten zuen estazio alde hartan hazi, eta, halako batean, Legazpiko metal-urez egarritu zela, antza, eta halaxe aurkitu gure ama.

Hori gabe, ez nintzen ariko ni hemen istorio hau kontatzen. Eta ez pentsa, bestela, guztiz erraza zenik bide horretan topo egitea biek: amak oinez egin ohi zuen Zumarragara bidea, eta aitak, berriz, trenean, Renfeko langile baten seme gisa *kilometriko* delakoa baitzegokion txikitatik, eta doan baitzitzen, muga bateraino, tren-bidaiak. Ordurako, gainera, hasia zen noski bera ere Renfen lanean.

Beste kontu bat ere bazen elkarketa oztopatzen zuena. Askoz geroago kantatuko zuen *Shocking Blue* taldeak harako *Never marry a railroad man*, baina, Legazpiko orduko giroan ere, ez zuten askok begi onez ikusten bertako neska batek burdinbideetako langile bat hartzea senargai.

Azken hiztxo bat aitaren aitaz. Guk eten dugu azkenean belaunez belauneko trengizon-katea, nahiz gure aitak ahalegintxoren bat egin bere garaian bide horretatik jarrai genezan; Abuelitok atzera, berriz, esango nuke haren aita ere (gure aitaren aitaren aita, alegia) trengizona zela, eta horrela haren *linea* guztian. Ez dut ikertu genealogia horretan gora, baina deituek ere hala iradokitzen dute: gure aita García zen; haren aita, García García... Litekeena da 1848 baino lehenagotik ere arituak izatea garciatarrak burdinbideetan, non edo han, nahiz eta, jakina denez, urte horretan agertu estreina asmakuntza berri hori penintsulan, eta oso linea laburrean. Auskalo.

Linea hitza aipatu dut jada, baina argitu dezadan baduela hitz horrek esanahi bat baino gehiago, oro har, eta bereziki trengizonentzat; eta, are berezikiago, gure aita (eta haren aita) bezala Elektrifikazio sailean zihardutenentzat.

Alde batetik, errail pareek puntu (nagusi) jakin batetik beste puntu (nagusi) jakin batera daramaten bideari deritzo linea. Lineak elkarrekin *lotzen* dira (halako lotuneetan kokatzen dira aipaturiko trengune edo *nudo ferroviario* gehienak), eta hala sortzen da armiarma-sare egitura bat, oraingo internet-amarauna baino linea gutxiagokoa eta astunagoa, jakina, burdinazkoa izaki, baina gurutzabide asko zituen nolanahi ere. Oraingo atzera-aurrera birtualetatik beste muturrean, nolanahi ere: espazio errealean denbora errealean jendeok hara eta hona garraiatzen gintuena. Eta ikusten duzue aski korapila daitezkeela linea horiek, gure patuenak bezala; aurrera egingo badugu, bide asko ibiltzeke uztera behartzen gaituzte betiere, zein bere istorio kontatu gabearekin.

Elektrifikaziokoentzat (aitaren aitaren aitak ez zuen noski ezagutuko tren elektrikorik, baina Abuelito jada sartua zen modernitate horretan, ez pentsa)... elektrifikaziokoentzat, diot, zera da nagusiki linea: errailen paretsuan katenariak eutsita doazen tentsio-kableak, handik hartzen baitu trenak, pantografoen bitartez, bere elektrizitate-bazka. Hiztegian bila ditzakezue noski elektrifikazioko lexiko berezia, baina hitz horiek ez dizuete sekula eragingo barnean txikitatik entzun ditugunoi bezalako durundia: bagoneta, pantografoa, katenaria, linea, subestazioa...

Lotsa apur batez aipatu behar dut une honetan nire literatura-ibilbideko pasarte bat edo beste. Oso atzean utziak ditut jada lanok, baina oraintxe etorri zait burura Txirritaren bertso-paperak maiseatuz ondu nuen saiakera xumetik datorrela, inondik ere, trena mugitzen duenari bazka deitze hori. Izan ere, Ereñozukoak erabili eta nik barrendu dudan irudian, animalia bat da trena, haren aurretik karga-garraio zebiltzan zamarien gomutaz edo: *Gizonik ezin asi liteke zaldi obiaren billa*. Txirrita, izan ere, txunditurik zegoen, eta irudi bikainez marraztu zigun trena elektrifikatzeak ekarri zuen aurrerapena, ikatza errez ura irakinez mugiarazten ziren lokomotora astun haien aldean: *Orain ur otzak dabilki trena lehen irakinak bezala*. Ur hotza, jakina, elektrizitate-errotak (zentralak, alegia) mugiarazten zituena zen.

Gure aitaren ardura zen, besteak beste, subestazioetatik lineara elektrizitatea etenganbe behar bezala iritsi zedin. Aste eta jai, Irunen zein Brinkolan, nonahi eta noiznahi gerta baitzitezkeen –eta gertatzen baitziren– matxurak, erlojuari zein egutegiari jaramonik egin gabe, ez baitzegoen trena gelditzerik: *Gau eta egun gelditu gabe dabil oiu ta irrintzi*.

Eta, hala, aita Elektrifikaziokoa zenez, guk baguenen –eta ez, ez pentsa, inolako *entxufetatik*, lege-arauz baizik–, hark bere aitaren semea izateagatik bezala, kilometrikoa. Ez dut gogoan zenbat kilometro ziren gastatzekoak urtean, baina, aurrena Irun-Legazpi joan-etorrika bizian ibiliagatik eta gero urrutixeago ere saiatuagatik, ez dut uste osorik ahitzen genuenik.

Kilometrikoak bazuen, jakina, bere alde ona, baina, gerora hartaz pentsatzen jarrita, nago ez ote zigun ondorio txarren bat ere utzi gazte-denboran hartaz baliatzeak. Alde on nagusia bistakoa da: doan egiten genituen bidaia gehienak. Hobe zatekeen noski aitari soldata taxuz igo baliote, baina halakoxeak ziren orduko lan-harremanak, Patriziorenean zein RENFEn; utz dezagun, hala ere, kritika-linea hori ere hor, eta jarrai dezagun geurean.

Kilometrikoaren, kilometrikoa erabiltzearen alde txarra askoz ere sotilagoa da noski, baina bazen, beharbada, gaztetxo baten nortasuna apur bat markatzeko eta are makurtzeko lain. Kontua da bidaiatzeko erraztasun hori engainagarria dela,

trenbide-sarera lotzen baikintuen horrenbestez, beste komunikabiderik ez balego bezala. Debaldekotasunak berak ere, bestalde, balioa kentzen zion, nolabait, bidaiatzearen ideiarri. Ez dakit. Horrek murriztu egingo zuen, nik uste, gure bidaiagarria, ez baikara izan gerora ere mundu zabalera oso ibili zale. Hain zuzen ere, gure anaia gazteenak, Irunen jaioa, urte batzuk geroago, ez du izan hainbeste erabiltzerik kilometrikoa, eta bidaiazaleago irten zaigu, askoz. Zaleago, eta ibiliago.

Apur bat katramilatzen ari dira nire honen lineak ere, baina barkatuko didazue berriro lotzen badut kontua neure idatziekin. Argitaratu nuen lehenbiziko kontakizun nagusian, Zumarragako estaziotik abiatzen da protagonista, pilotari bat, Ameriketako egiteko asmoan. Aski inozo agertuko da gerora bestela mutila alde askotatik, baina badaki noski ez dela tren-linearik Atlantikoan zehar. Hala, Bartzelonara abiatzen da trenean, Altsasuko eta Castejongo trengune nagusi mortuak zeharkaturik, han hastekoa baitu, Bartzelonan, aurreikusia duen pilotari-karrera. Akaso ez da haren errua izango, eta bai nirea (kilometrikoa tarteko), Bartzelonatik hara ez iritsi izana.

Ia-ia nik bezala. Nik, ordea, joan-etorria egin nuen hara, Bartzelonara, ikasketak zirela eta, eta hementxe nabil zuentzat gogoratzen neure bizitzaren atzera-aurrera burdinbidetsuko gorabehera batzuk. Gorabehera apur batzuk, zientoka pasatu baitzaizkigu jada begien aurretik, eta kliskada batean beren bidean galdu, gurutzatu ditugun hara-honako linea korapilatuetan.

Bertan behera geratu zen Urolako trena, erlikia turistiko gisa ez bada, eta Topoa metro-edo bihurtzen ari zaigu. Eta kontua da Renfe ere poliki aldatu dela garai haietatik hona. Elektrifikazioa ere gainditu bide du Aurrerapenak. Trenbide zaharra ez da egokia abiadura handiko oraingo eta geroko trenentzat... Etxe Alai gure jaiotetxea ere bota berri dute; horrenbestez, han munduratu nintzen arren, neke zait jada esatea handik natorrenik... Dena aldatu dela dirudi, hain baita zaila geuk ikuspegia aldatzea: izan ere, etengabe doa gure mundua inoiz ez bezalakoa bihurtuz ... beti bezala.

Eta, beti bezala, hor jarraituko du trenak jendea hemendik hara eta handik hona ekartzen, eta bizitzaren lineak gurutzatzen, sare finkoak ibiliz bizipen-amaraun beti berriak ehuntzen.



Renfe iristen ez den Bizkaiko itsas herri batean, *trenak ekarrikuek* (trenak ekarritakoak) izan da ohiko esapidea etorkinak izendatzeko. Ez dago gaizki esana, nondik begiratzen zaion. Hori gogoan, egin dezadan berriro neure istorioan atzera.

Nire jaioterritik pasatzen den tren-linea erruz baliatu zen burdingintza puri-purian zegoen garaian, baina, ikertzaileek diotenez, ez zen aurreikusten halakorik; Legazpira desbideratzea, alegia. Aitzitik, Otzaurtetik Zegamara sartu eta handik N-I errepidea doan inguru horretara jotzea zen aukerakoena. Norteko trenbidearen arduradunek, ordea, linea pasatuko zen udalerrri bakoitzeko agintariekin negoziatu behar zuten kontua. Bi bertsio entzun ditut Zegamatik ez eta Legazpitik pasatze horren arrazoitzat.

Bertsioetariko bakoitzean, zegamar autoritateek ez zuten nahi tren handik pasatzerik, ekarriko zuenaren beldur edo. (Irakurtzekoa da, horren arrastotik, *Garoa* eleberriaren lehen kapituluaren amaieran, hantxe Aizkorriko gailurretik narratzaileari bistaratzen zaion trenaren deskripzioa).

Beste muturreko bertsioak, berriz –edo ez dira beharbada guztiz kontrajarriak biak–, ez du auziaren erdian euskaldun-fededuntasun idilikoa hausteko arriskua jartzen, baizik eta dirua, horrela esanda gordinegi badirudi ere. Legazpik eskaintza hobea egin zuela, alegia, handik pasa zedin tren.

Bertsio biek arrazoia izatera, bi herriek ere zeinek bere etekina bilatzen zuten: materiala batek eta espiritualak besteak. Ziurtzat jotzen dut ez zela egin bozketarik herritarren artean, baina badirudi denak ere pozik daudela orain (orduko ondorengoak, noski) orduko aukerarekin eta beren izatearekin, bi herriek handik aurrera hain bilakabide desberdinak izan dituzten arren. Egia esan, zaila da inon aurkitzen ia inor harro ez dagoenik hain gauza arrunt eta merezimendugabeaz; jaio den herrian jaio izanaz harro, esan nahi dut.

Istorio guztietan egoten da une bat non ez dagoen noski garbi nondik nora joko duen kontuak. Gure honetan, tren bera izanik istorio, horixe izan zen erabakigune horietariko bat, argi eta garbi. Patuaren apetatxo bat, eta tren ez zen pasatuko, ez Legazpitik, ez Zumarragatik, eta nekez garatuko zen han halako industriarik. Hala, Historia bera ere aldatuko zen, eta, gurea nabarmenen, nire familiarena eta nirea. Aldatu, edo, zer esaten ari naiz: batere historiarik ez zen izango noski.

Gogoan izan, bada, bidaide, etorkin-etorkinik ez dela, edo ez zaiola esaten etorkin etortze aldera datorrenari: etorraziazak izaten dira etorkin esan ohi diegun jendeok, ekarriak, zerbait ekarriak, maiz bortxaz. Historiaren eta giza bizitzaren linea korapilotsuetarikoren bateko trenen batek ekarriak, patu apetatsu baten jolasen astinduz.

Zu eta ni edonoiz gerta gintezkeen bezala. Zu eta ni garen bezala.

BLANCANIEVES

La literatura de la humanidad

Mariasun Landa

Realmente, la película *Blancanieves* de Pablo Berger es merecedora de todos los elogios, alabanzas y premios que ha recibido este año. Una verdadera sorpresa que emociona y maravilla, aún más tratándose de un cuento clásico que creemos conocer. Pero una historia clásica lo es, precisamente, porque nunca lo cuenta todo, porque cualquier recreación saca a la luz nuevas potencialidades, mensajes ocultos, que son resultado de su gran poder de evocación, ya que trata temas vigentes y candentes, aquellos que atañen a los eternos sentimientos humanos.

Ése es el caso de la película *Blancanieves* que Berger nos ha regalado con toda su ofrenda de pequeños homenajes cinematográficos y referencias literarias para que no nos perdamos en el camino, semejantes a las piedritas que fue dejando caer Pulgarcito al adentrarse en el bosque.

En la película de Berger se dan cita, sin nombrarlas, otras protagonistas femeninas de los cuentos de Charles Perrault: Caperucita, Cenicienta, La Bella Durmiente... Esas narraciones que tan bien definió Marc Soriano como "la literatura de la humanidad". Narraciones de tradición oral que resisten el paso de los siglos y las culturas, (de la Cenicienta se tienen registradas, al menos, 345 versiones en oriente y occidente) porque responden a las grandes pasiones humanas: amor, odio, envidia, sexualidad, el paso del tiempo, la muerte... Contadas, eso sí, con unas intensas claves simbólicas, envueltas en un celofán de fantasía y poder de evocación que las hacen llegar a ser una y otra vez recreadas.

Para Vladimir Propp, referencia esencial al tratar el tema de los cuentos maravillosos de tradición oral, estos serían reflejo de concepciones míticas anteriores a ellos. Racionalizaciones del mito que, de forma simbólica reflejarían los ritos de iniciación de los niños y niñas a la edad adulta, el paso de la pubertad a la madurez de los protagonistas. Este rito iniciático se da en el protagonista masculino gracias a la resolución de enigmas o aventuras dificultosas.

Pero en el caso de las protagonistas femeninas, este ritual iniciático nos llega, a menudo, reflejado por una pasividad extrema, rayando la muerte. A esta figura recurrente Vladimir Propp la denominó "la chica en el ataúd". Sucede así en otros conocidos relatos que forman parte de nuestro imaginario colectivo: La Bella Durmiente, que cae en un sueño de 100 años, también sufre esa pasividad extrema que experimenta Blancanieves. Y, en ambos casos, ello ocurre tras introducir algo en el cuerpo: la aguja con la que se pincha en el dedo o el ingerir el trozo de manzana. Símbolos que Bruno Bettelheim, en su libro *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*, no duda en relacionarlos con la sexualidad femenina, por lo que la intermediación de un varón, su beso simbólico, haría posible que estas heroínas despertasen a la edad adulta, se hicieran mujeres. Caperucita Roja en la versión de Charles Perrault (siglo XVII) no llega a tener ni esa posibilidad ya que el lobo (símbolo de la sexualidad masculina) se la zampa y ahí acaba la historia. Doscientos años más tarde, los Hermanos Grimm recogen la versión del cazador, que al abrir la panza del lobo, permite a la niña cumplir su rito

iniático de paso a la edad adulta. De nuevo, la intervención masculina.

En cualquier caso, el destino femenino planteado en estos cuentos es bien diferente al de los protagonistas masculinos, de los que Pulgarcito podría ser el paradigma: abandonado en el bosque, toma decisiones, se enfrenta al ogro, y vuelve a casa, salvando a sus hermanos y vestido con las botas del ogro, símbolo de la potencia sexual según Bettelheim. Así pues, estos cuentos tradicionales maravillosos tienen marcados rasgos sexistas

muy cuestionados hace tiempo y que han suscitado siempre una gran ambivalencia hacia ellos en el mundo de la educación moderna a la hora de transmitirlos y valorarlos.

La *Blancanieves* de Berger, a mi parecer, nos deja ante el umbral de una nueva versión del destino femenino. No hay príncipe ni beso, sólo una lágrima densa y sutil, inquietante pero también esperanzadora. Quizás sugiere un posible nuevo final para la protagonista que cada uno tiene que recrear al terminar la película.



Las 5 sílabas de Alfonso Sastre

Ion Arretxe

No pretendo que nadie se crea mi relato ni los hechos que en él voy a referir. Reconozco que yo mismo, si no fuera porque los viví –y de qué manera– hasta sufrirlos en lo más quebradizo de mis propios nervios, también hubiera dudado de su veracidad.

Por qué fui yo el elegido para tan singular experiencia todavía a día de hoy se escapa a mi comprensión. Mantendré siempre mis fundadas sospechas sobre el extraño librero, jorobado y ex-siamés –tenía el pobre hombre todo el lado derecho de su cuerpo, del tobillo a la sien, pespunteado por las horribles cicatrices que le provocara la traumática separación de su hermano, y una giba del tamaño de un melón coronándole la espalda– que vendía libros de segunda mano en un pequeño local de la calle Aita Donosti, a los pies del monte San Marcos, en el barrio de Beraun.

Si no se sospecha de un ser así, de quién se va a sospechar...

Además, estoy seguro de que él era la única persona que sabía de mi adicción, enfermiza como todas las adicciones (todavía ahora me sonrojo al confesarlo) a los libros, fueran éstos del género que fueran, del escritor Alfonso Sastre.

Cómo me inicié en ese vicio maldito hasta caer en el pozo negro en el que ahora me encuentro sería muy difícil de explicar por alguien que, como yo, desconoce los mecanismos de la psicología profunda, ciénaga donde se generan las depravaciones más oscuras e inconfesables del ser humano.



¿Fui sedado? ¿Fueron manipuladas de alguna manera las neuronas que gobiernan mi sueño? En cualquier caso yo no fui consciente de ello. Pero ya sabemos, gracias a Segismundo Freud –cuyos libros ojeé en mi juventud y ahora

me arrepiento de no haberlos estudiado con más provecho– que la consciencia es muy frágil y caprichosa.

El caso es que fui transportado, poco antes de la media noche, por tierra, mar o aire –cualquiera lo sabe– al lugar de la fabulosa asamblea que intentaré describirles, si las musas y las fuerzas me acompañan: una fría y marmórea estancia en un castillo de los Cárpatos, tierra de vampiros y de sobrecogedora belleza, paraje donde la inmensidad y el vacío resultan asfixiantes a la pequeñez del más grande de los mortales. Recóndito rincón donde dicen que el mismo Satanás perdió el mechero.

Por lo poco que pude entender, a medida que se desarrollaba la ceremonia, aquella reunión, cumbre o asamblea –que de las tres maneras la nombraron en distintos momentos de la vigilia– se realizaba cada vez que la noche de Walpurgis caía en sábado, que como sabrá el avisado lector es el día elegido por las brujas para sus desenfundadas orgías y libertinos desmanes, con lo cual variaba su frecuencia entre los siete y los once años, según fueran éstos bisiestos o no. Una especie de Año Santo, pero al revés. Año de los mil Demonios, Año de Condenación, Año Satánico...

Los cinco demonios que integraban aquella infausta hermandad a la que fui invitado fueron anunciados con mucha pompa, pompa fúnebre añadiría yo, ya que a cada nombre gritado desde un altavoz por el maestro de ceremonias –al cual, por cierto, nunca llegué a ver– seguía un toque de campanas, DOOONG... DOOONG... fúnebre como siempre lo son las campanas que tocan a muerto.

El primero de todos, representando al continente americano, un súcubo que había adoptado los rasgos indios y los andares lentos de una bella y extraña mujer. Sus labios gruesos y sus marcados pómulos conferían a su rostro el aspecto de una máscara primitiva y elemental. El pelo negro,

negrísimo como el más oscuro azabache, acababa de dar a su aspecto una nota de irrealidad.

—Procedente de la Facultad de Filología Románica en la Universidad de los Andes, de Santa Fe de Bogotá, en Colombia, la Doctora Roberta Allyson.

A ella le siguió el representante de Oceanía, un demonio caído desde las lejanas antípodas que atendía al nombre de Matías Pérez, y que no poseía más título ni más distinción que la de ser el mismo Matías Pérez, aeronauta portugués que en una demostración de vuelo aerostático en la Plaza de Marte (actual Parque Central de la ciudad de La Habana en Cuba) desapareció sin dejar rastro entre las nubes del reluciente cielo caribeño, ante las incrédulas miradas del numeroso público que la curiosidad y el aburrimiento habían congregado.

Y nunca más se supo de él...

Al menos hasta el día de hoy en que, tocado con un sombrero de cuero y armado con un estilizado boomerang, reaparecía como ciudadano australiano. A buen seguro fue Australia la tierra a la que llegó en su perdidizo globo, el Villa de París. Eso sí... su desaparición se produjo una luminosa mañana de junio de 1856, y su reaparición en esta lugubérrima noche de todos los demonios tenía lugar... ¡157 años después!

—Llegada desde la enigmática y remota China —continuó el invisible presentador— Margarita Chávez León, hija adoptiva de Paquita Chávez, ex mujer del malogrado profesor John H. Allyson, que fuera jefe del departamento de Español de la Gurméndez State University, cuyo campus se emplaza, como todos ustedes sabrán, en la localidad de Chula Vista, al sur de San Diego en la dorada California, y también hija, igualmente adoptiva, de su compañera sentimental Margeritte León, reputada escritora francesa, algo apartada de las ficciones, y dedicada en la actualidad a la semiótica y la narratología.

Representando a la vieja Europa, y tan vieja como ella o más, una anciana de nombre Celestina y de apellido impronunciable, hispanista del este europeo —creo que de la República Checa— aunque residente en una barriada chabolista junto al río Tormes en Salamanca, datos que no entendí demasiado bien por unos molestos e inoportunos

problemas que surgieron en forma de pedorretas en el anticuado sistema de megafonía.

Y por fin, el representante africano, cuya aparición debo reconocer que me hizo bastante gracia, si es que un sentimiento así pudo anidar en un alma como la mía. Alma poseída por la pena, la extrañeza y el horror con los que fue castigada durante las largas horas de aquella inolvidable, siniestrísima e innarrable noche. O al menos, difícil de narrar para un simple aficionado a las letras como es el menda.

El auténtico, el verdadero, el genuino Arpad Vászary y no otro. Éste era el último demonio. Quien en otro tiempo fuera conocido como el Vampiro de la calle Virgen del Val, porque fue en esta calle del madrileño Barrio de La Concepción donde tuvo su morada, comparecía ahora como un negro del África profunda, con la extravagante peculiaridad de que se notaba a las claras (o tal vez debería decir “a las oscuras”) que su palidísima piel había sido ocultada burdamente bajo una gruesa capa de betún negro o de corcho quemado, tal como se hace para caracterizar al Rey Baltasar en las cabalgatas de muchos pueblos.



En el centro de la lujosa y fría estancia, sobre suelo de mármol, estaba trazada una estrella de cinco puntas, pintada de un solo trazo —la famosa Pentalfa— tan asociada a los pitagóricos como a los ritos satánicos.

Y en cada una de sus puntas, siguiendo el movimiento de las agujas del reloj, las cinco sílabas malditas: Al, Fon, So, Sas, y Tre.

Miré con más atención —la iluminación era un tanto lúgubre y bastante pobre— forzando todo lo que pude mi vista, hasta que mis ojos sangraron de dolor.

Pronto descubrí que bajo cada una de las sílabas, con las letras góticas y doradas propias de los cementerios, estaban escritas las siguientes palabras: Impublicable, Irrepresentable, Indeseable, Invisible... y la más extraña de todas, Invisable, que tuve que leer varias veces para asegurarme de que no se trataba de una caprichosa errata.



Tomó la palabra la vieja Celestina –que a la luz de las velas me pareció poseedora de ciertos rasgos gitanos, un color de piel aceitunado y un pelo negro, recogido en un moño perfecto, que destacaban en contraste con el oro de los aros que pendían de sus pequeñas orejas– y dijo que si la Hidra de Lerna, el famoso monstruo que tanto trabajo dio a Hércules, tenía siete cabezas, Alfonso Sastre no se quedaba corto en su monstruosidad.

Y le atribuyó al escritor cinco cabezas: una como poeta lírico, otra, tal vez la más conocida, como autor teatral. La tercera cabeza es la del eventual novelista. La cuarta, la del filósofo, y la quinta cabeza la del guionista cinematográfico. ¡Toma ya!

¡Cinco escritores en uno! O lo que es lo mismo... ¡Un pentaescritor!

Ella había elegido, de entre la vasta producción lírica del autor (*El español al alcance de todos*, *T.B.O.*, *El evangelio de Drácula*, *Vida del hombre invisible contada por él mismo...*) un libro de poemas titulado *Balada de Carabanchel y otros Poemas Celulares*.

Y de entre los poemas celulares había elegido uno, *Este gitano*, que fue escrito tras las rejas de la tristemente conocidísima prisión madrileña en abril de 1975. El poema dice así:

Este gitano de Carabanchel ha dicho
mirando a los polis grises sin remedio:
eztoz van a cagarze ahora
en cuanto que entremoz en Zaigón.
Yo me he quitado la gorra en su homenaje.
Sabio gitano, camarada...

Siendo como era un demonio, la gitana Celestina lo recitó con voz de ángel. Y con el último verso derramó una lágrima de nácar que brilló en la lúgubre noche como un fuego fatuo.

–Siempre me pasa lo mismo, dijo con un nudo en la voz.



